



Euskal Lexikografia. Irakaskuntza txostena 2

Blanca Urgell

► **To cite this version:**

| Blanca Urgell. Euskal Lexikografia. Irakaskuntza txostena 2. 2002. <artxibo-00656949>

HAL Id: artxibo-00656949

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00656949>

Submitted on 5 Jan 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LEHEN GAIA
LEXIKOGRAFI OINARRI TEORIKOAK

HELBURUAK

Gai honetan ikastaro osoan zehar Lexikografiaz jarduteko erabili beharko ditugun oinarrizko kontzeptuak aurkeztuko dira: hiztegiak definitu eta deskribatzeko ezinbesteko ditugunak, alegia.

Aurkezpena orokorra izango da, eta ahalik praktikoena, irakasgaiaren kreditu kopuru eta izenari dagokionez: ez luke zentzu handirik arlo teorikoan etengabe aritzea, ezta gero aztertuko ditugun euskal hiztegi ereduetatik at geratzen diren gertakarietan gehiegi geratzea.

Erabat neutroa izango da, gainera, denboraren aldetik. Hiztegi gintzaren historia bigarren gairako utzirik, hobetsi dugu sinplifikazio bat egin eta "hiztegia" kontzeptua betierekoa bailitzan-edo jokatzea, ikasleari berez ezagutzen dituen hiztegi motetatik hastea errazago suertatuko zaiolakoan.

EDUKIAK

I. HIZTEGIEN EZAUGARRIAK

1. Hiztegiaren hedadura

- 1.1. Sarrera kopurua
- 1.2. Hizkuntz kopurua
- 1.3. Hitzak eta gauzak

2. Hiztegiaren ikuspegia

- 2.1. Denbora
- 2.2. Helburua
- 2.3. Erabiltzaile eredua

3. Makroegitura

3.1. Nomenklatura

- 3.1.1. Zer da "hitza"?
- 3.1.2. Hautapen irizpideak
- 3.1.3. Nomenklaturaren etorkia
- 3.1.4. Osotasun nahiaren ondorenak

3.2. Sarreraren bila (I): nomenklaturaren hurrenkera

3.3. Sarreraren bila (II): beste laguntza batzuk

- 3.3.1. Izenburutxoak
- 3.3.2. Azazkaltxoak
- 3.3.3. Frantses lerrokada
- 3.3.4. Letra beltza

4. Mikroegitura

4.1. Sarrera zer den

4.2. Sarreraren osagaiak

- 4.2.1. Sarrera-buruaren itxura (forma kanonikoa)
- 4.2.2. Sarreraren gorputza

II. HIZTEGI ELEBIDUNAK

1. Ohiko hiztegi elebidunak

2. Bestelako hiztegi elebidunak

2.1. Gaitasun hiztegiak

2.2. Estandarrarekin lotutakoak

2.2.1. Literatur hizkuntza sortaileak

2.2.2. Eraberritzaileak

2.2.3. Zaharzaleak

2.2.4. Deskribatzaileak

III. DEFINIZIOAK ETA ORDAINAK

1. Definizioa

1.1. Definizioaren sorrera eta izaera

1.2. Definizioaren inguruko kontzeptu garrantzizko batzuk

1.2.1. Metahizkuntza

1.2.2. Adiera

1.2.3. Homonimia eta polisemia

1.3. Definizioaren "legeak"

1.4. Definizio motak

2. Ordainak

2.1. Anisomorfismoa

2.2. Ordain motak

2.3. Ordainik gabeko unitateak

AZALPENA

Oro har, jakintzat eman dezakegu ikasleek nagusiki hizkuntz hiztegi orokorra izango dutela buruan, alfabetoaren araberako hurrenkera bakarrik gogoratuko zaiela ezaugarri formaletatik, eta hiztegietara zertarako jotzen duten galdetuta, esanahia eta ortografia aipatuko dituztela. Ikasleen eskarmentutik abiatuta, beraz, hiztegiez daukaten kontzeptua zehazten eta hedatzen saiatuko gara.

I. HIZTEGIEN EZAUGARRIAK

Hiztegiak ez dira sailkatzen errazak, ez baitago ia ezaugarriarik era bateko eta besteko hiztegiek neurriren batean ez dutenik. Hortaz, interesgarri eta emankorrago da hiztegiak deskribatzeko aintzat hartu behar diren ezaugarriak zein diren erabakitzea. Lau taldetan banatuko ditugu:

1. Hiztegiaren hedadura

SARRERA KOPURUA.— Lan lexikografikoetan bost mota bereiz daitezke:

Hitz zerrendak: 5.000 sarreratik beherakoak

Sakel-hiztegiak: 5.000-15.000 sar.; 250 orrialdetik beherakoak, tamaina txikikoak.

Esku-hiztegiak: 15.000-35.000 sar.; 250-500 or.

Hiztegiak: 35-60.000 sar.; 500-1.000 or.

Hiztegi handiak: 60.000 sar eta 1.000 or. baino gehiagokoak.

HIZKUNTZ KOPURUA.— Hiru mota bereizi ohi dira gaur: elebakarrak, elebidunak eta eleaniztunak. Historikoki hirukoitz eta laukoitzak ere aintzat hartu beharko ditugunez, “eleaniztunak” lau hizkuntzatik gorakoak izango dira guretzat. Ikuspegi beretik, beste bi mota gehiago azalduko zaizkigu: sasi-elebidunak eta sasi-hirueledunak (latina apaingarri dutenak).

HITZAK ETA GAUZAK.— Oro har, hiztegiek hitzei buruz dihardute, eta entziklopediek gauzei buruz. Intuitiboki bereizterrazak badirudite ere, praktikan zaila da erabateko mugarik jartzea, maiz bata bestearen informazioak jasotzen dituzte eta.

Hizkuntz hiztegiak era askotakoak dira (ohikoak, sinonimo hiztegiak, terminologikoak...). Behin baino gehiagotan “hizkuntz hiztegi orokorrak” aipatu beharko ditugu: erabiltzailearen hizkuntzari buruzko jakinmina ase nahiz, denetariko hitzak (baita gramatikalak ere) biltzen dituztenak.

2. Hiztegiaren ikuspegia

DENBORA.— Garai bakar bateko (oraingo edo lehengo) lexikoa jasotzen badu, hiztegia sinkronikoa izango da; garai guztietakoari lekua ematen bazaio, diakronikoa edo historikoa. Lexikoaren aurrehistoriaz kezkatzen bada, etimologikoa.

HELBURUA.— Objektiboa: dagoena biltzen du. Araue-mailea: dagoena irizpide zenbaiten arabera bahetzen du, edota agerian usadio zenbaiten kontra egiten. Irrigarria: definizio harrigarri edo barregarriak ematen ditu.

ERABILTZAILEREDUA.— Hiztegiaren norentzat ari den, eta halakoa izango da hiztegia, euren ama-hizkuntza, adina, kultur maila, hiztegiaren (beste) hizkuntzaren ezagutza... kontuan hartu beharko dituelako.

3. Hiztegiaren antolakuntza (makroegitura)

Hiztegia ez dago “hiztegiaren” bakarrik osatua: maiz hitzaurrea eta bestelako atalak ere baditu, lana bere osotasunean ulertu eta aurkezteko ezinutzizkoak. Egun “A-Z atala” izena eman ohi zaio hiztegiari, liburuko gainerakoetatik bereizteko. A-Z ataleko hitz-zerrenda hutsari “nomenklatura” deritza, berriz.

3.1. Nomenklatura

ZER DA “HITZA”?.— Nomenklatura hitzez osatuta dago. “Hitza” kontzeptua lausoa izanik, Hizkuntzalaritzak urteetan arbuia du; halere, badirudi hiztunaren senaren aldetik baduela zentzua eta, oro har, hiztegiaren ongi funtzionatzen duela, nahiz mugako kasuetan zalantzaren bat sortu.

HAUTAPEN IRIZPIDEAK.— Ez dago pentsatzerik hiztegieta hitz guztiak sartzen direnik. Nomenklatura lau irizpideren arabera hautatu ohi da:

- ✓ Hiztegiaren xedea (orokorrak, teknikoak...)
- ✓ Erabiltzaile eredua (oinarrizkoak, denetarikoak...)
- ✓ Hiztegiaren tamaina
- ✓ Hiztegiaren irizpidea (maileguak? hitz berriak? tabuak?...)

NOMENKLATURAREN ETORKIA.— Hizkuntza baten oinarrizko lexikoa 2.000 hitz ingurukoa den bitartean, lexiko osoan milaka eta milaka hitz daude, ehun milatik oso gora historia luzeko hizkuntzetan. Hiztuna bizitza osoan ziurrenik ez da iristen hamar mila hitzetik gora ezagutzera. Beraz, norberak ezin du hizkuntzaren lexikoa bere burutik jaso, eta hiztun talde batek ere ez. Honegatik, bi bide nagusi daude nomenklaturak osatzeko:

- ✓ Corpus (ahozko edo idatzi) baten azterketa
- ✓ Hiztegi bat(zuk) kopiatu, laburtu, egokitu edota emendatzea

OSOTASUN NAHIAREN ONDORENAK.— Hizkuntz hiztegi orokorra hizkuntzaren lexiko osoaren bilduma delako mitoak indar handia du: erabiltzaileek hiztegiaren aurkitzen ez duten hitza ez dela existitzen sinesteko joera dute; hiztegiak ahalik hitz eta adiera gehien biltzen saiatzen dira. Osotasun nahiak berekin dakar hitz pilaketa, eta hitz pilaketak hiztegiaren gaixotasunetako asko:

- ✓ Batetik bestera igarotzen diren *iratxoak*
- ✓ Inork inoiz erabili ez dituen hitzak
- ✓ Ohiko hitzen gaineratik bitxitasunak nabarmentzea

3.2. Sarreraren bila (I): nomenklaturaren hurrenkera

Hiztegia ez da hasi eta buka irakurtzeko egindako liburua, eskuarki hitz bakar baten bila irekitzen duguna baizik. Honegatik, bilaketa errazteko baliabide zenbait garatu dira, artean nomenklatura nolabaiteko hurrenkeran ezartzeko balio dutenak.

ALFABETOA BAKARRIK?— Alfabetoa hiztegiaren definizioan sartzen da: “Hurrenkera jakin baten (gehienetan alfabeto hurrenkeraren) arabera sailkaturiko hitz bilduma” (*EH*,

s.v. *hiztegi*). “Gehienetan” horrek adierazten duen bezala, ez da hau hiztegietan hitzak antolatzeko dagoen modu bakarra, nahiz egun —eta aspalditxotik— nagusiena izan.

Sistema zaharra den arren, mendeetan ez da estimatuena, ezta garatuena ere izan. XVII. mendera arte hiztegiak gehienez ere AB ordenaraino heltzen ziren, eta luzaro alfabetatze maila ez zen hertsia-hertsia izaten. XVII-XVIII. mendeetan, boladan jarri zenean, hiztegiak azaldu beharra zuten nola erabiltzen den. Oro har, ez zen behar beste hobetu hitzen idazkera eta letren hurrenkera ongi finkatu arte.

BESTE ANTOLABIDEAK.— (1) gramatika kategoriak; (2) gaika edo kontzeptuak; (3) hitz-familiak.

3.3. Sarreraren bila (II): beste laguntza batzuk

Bilatzen dugun hitza hiztegi orri guztietatik gutxi gorabehera zeinetan dagoen jakiteko laguntzak (izenburutxoak, azazkaltxoak) eta orriaren sarrera begiekin ahalik azkarren antzematekoak (frantses lerrokada, letra beltza) ere asmatu dira.

IZENBURUTXOAK.— Orriaren goialdean jarritako letrak (hitzak edo hitz-zatiak). XX. mendea baino lehen izenburutxoak, zutabearen agertzen den lehenengo hitzaren hasierako letrak (bizpalau) iragartzen zituzten: zenbat zutabe, hainbat izenburutxo orrialdeko. Sistema ez zen erabat zehatza: batetik, zutabearen zehar aldaketak gertatzera ez zuen haien kontu ematerik; bestetik, zenbait letra-taldek orrialde mordo besarkatzen zuten. Sarrerak gutxi gorabehera aurkitzeko bidea zen.

XVII. mendean zehar zutabe barruko izenburutxoak erabiltzen hasi ziren. Bai hauek eta bai hasierako letrekin osatutako goialdeko izenburutxoak gutxika-gutxika desagertzen dira XIX. mendearen erdialdetik aurrera, eta gaur egun ezagutzen dugun goialdeko izenburutxo motak (eskuarki orrialdeko lehen eta azken hitzak aipatzen dituenak) ordezkatu zituen Europako hiztegi gehienetan.

AZAZKALTXOAK.— Estatu Batuetan azazkaltxoak (liburuaren ertzean egindako zirkuluerdi-formako ebakidurak) erabiltzen dira letra bakoitzaren hasiera markatzeko.

FRANTSSES LERROKADA.— Sarrerako karakter batzuk zutabeko ezkerreko ertzaren ezkererantz aurreratzea edo, bestela esanda, hasierako lerroa izan ezik gainerako

guztiak sangratzea. Aspaldiko prozedura, gaurdaino iritsia. Adituen ustez, oso onuragarria ezkerretik eskuinera irakurtzen dugunontzat.

LETRA BELTZA.— Asmatu zenetik (1815 inguruan) eta gaur arte, sarrera-burua nabarmentzeko erabiltzen da, oso egokia baita goitik beherako irakurketaren geltokiak markatzeko. Horrelakorik ez zegoenean, frantses lerroak (berak bakarrik edo letra larriekin batera) markatzen zituen.

4. Sarreraren antolakuntza (mikroegitura)

4.1. Sarrera zer den

“Sarrera” hitzak bi esanahi izan ohi ditu:

- ✓ Hiztegia osatzen duten unitate lexiko guztietatik bakoitza azaltzeko eratzten den atal edo artikulua.
- ✓ Atal edo artikulua horren buruan azaltzen den unitate lexikoa.

Nahasgarri izan daitekeen orotan, “sarrera” izena artikulurako gordeko dugu, buruko unitate lexikoari “sarrera-burua” deituko diogun bitartean.

4.2. Sarreraren osagaiak

Bi zati bereizi ohi dira: sarrera-burua eta sarreraren gorputza.

4.2.1. Sarrera-buruaren itxura (forma kanonikoa)

Sarrera-buruaren itxura ez da nahitaez naturala eta jakina, aldaera fonetikoaren artean estandarra eta itxura morfologiko ezberdinen artean hiztegiileen konbentzioz paradigma osoaren ordezkari izaten dutena baizik.

MORFOLOGIAREN ALDETIK.— Forma kanoniko morfologikoaren abstrakzioa egitea gaitasun unibertsala da. Alabaina, batzuetan hiztunek emango luketena baino egokiagorik asmatu behar izan dute hiztegiileen.

FONETIKAREN ALDETIK.— Estandarra behar da, edo dialekto hobetsi bat, aldaera fonetikoaren artean sarrera-buruan jaso behar den forma zein den erabakitzeko.

4.2.2. Sarreraren gorputza

DEFINIZIOA EDO ORDAINA.— Gorputzaren osagai garrantzizkoena. Sarrerak konplexutasun maila oso ezberdinak izan ditzake. Hiztegi elebidunetako sarrerarik bakunena “sarrera-burua + ordaina(k)” egiturakoa da; honelako bakarrik osatutako hiztegiari “itzultzaile” deritzagu. Elebakarretan, ordainen orde, definizioa dugu.

BESTE OSAGAIK.— Sarrerak hamaika osagai izan ditzake. Hiztegi modernoetan hierarkia estu baten arabera antolatuta agertzen dira, eta grafikoki baliabide anitzez markatuta (letra tipo eta tamainak, zeinuak...).

II. HIZTEGI ELEBIDUNAK

1970 arte euskal hiztegi guztiak gutxienez elebidunak izan direnez gero, ezinbestean hauen ezaugarriak elebakarrenak baino astiroago aztertzeak ditugu.

1. Ohiko hiztegi elebidunak

HIZKUNTZAK.— Bi aldetatik bereizten dira:

- ✓ iturri-hizkuntza (sarrera-burukoa) vs xede-hizkuntza (ordainetakoa)
- ✓ H₁ (norberaren hizkuntza) vs H₂ (hizkuntza arrotza)

BETEKIZUNAK.— Teorian bi norabideko hiztegi elebidunak lau lanetan lagundu behar du:

- ✓ H₁-ean testuak ontzen
- ✓ H₂-tik H₁-era testuak itzultzen
- ✓ H₂-an testuak ontzen
- ✓ H₁-etik H₂-ra testuak itzultzen

Praktikan, hizkuntza bietatik bakar baten hiztunentzat taxutu ohi dira. Honek eragina du (edo izan behar luke) hainbat arlotan egingo diren hautapenetan:

- ✓ Iturri-hizkuntzaren hitzak eta adierak
- ✓ Sarrera-buru agertuko diren formak (irregularrak...)
- ✓ Argibideen nolakoa eta kopurua
- ✓ Informazioa emateko erabiliko den hizkuntza

2. Bestelako hiztegi elebidunak

Metalexikografoek aztertu ohi dituzten hiztegi elebidunak, ohikotzat jotzen direnak, normaldutako hizkuntzenak izaten dira. Mendeetan normaldu gabe egon diren hizkuntzetan, teoria aplikatzeko oinarritzko arazo bat daukagu: zein da euskaldun baten H_1 , eta zein H_2 ? Gure hiztegiak ulertzen hasteko, gutxienez beste bi hiztegi mota hartu behar ditugu kontuan:

GAITASUN HIZTEGIAK.— Ohiko hiztegiak erabilera-hiztegiak dira. Gaitasun-hiztegiak, erabiltzen denaz gainera, hiztegiaren hizkuntz gaitasunaren arabera —hobeto esanda, hizkuntzaren hitz sorbideez dakienaren arabera— erabil daitekeena edo litekeena ere jasotzen dute, hizkuntzaren ahalmen sortzailea ahal edo nahi beste garatuaz. Lexikoa finkatu gabe dagoen edota aberastu beharra sentitzen den garai eta hizkuntzetan agertzen dira.

ESTANDARRAREKIN LOTUTAKOAK.— Lau mota bereiz daitezke, nahiz askotan hiztegi berean mota bat baino gehiago biltzen diren:

(1) Literatur hizkuntza sortzaileak: Estandar idatzia sortzeko helburua dutenak. Elebidunak dira: noiz-nolako kultur hizkuntzan diren baina norberarenean falta diren berbak sartzeko asmoz biltzen dira, eta honegatik kultur hizkuntza da beti ere hiztegiko iturri-hizkuntza. Jakintzat ematen da badirela edo laster izango direla kultur hizkuntzan hezita izan arren, beren hizkuntzan idazteko laguntza beharko duten hiztunak.

(2) Eraberritzaileak: Estandarra eguneratu nahi dutenak, dela terminologian, dela zenbait erregistrotan hizkuntzak dituen gabeziak beteaz.

(3) Zaharzaileak: Estandarra aldatzetik gorde ez ezik, are lehengora eraman nahi dutenak (arkaismoak berreskuratuz...).

(4) Deskribatzaileak: Estandarra deskribatzen dutenak, eta argitzen.

III. DEFINIZIOAK ETA ORDAINAK

1. Definizioa

1.1. Definizioaren sorrera eta izaera

BEREZO DEFINIZIOA edo DEFINIZIO NATURALA. — Hitzunak ematen duena, hitz baten esanahiaz galdetzen diotenean.

OINARRIZKO DEFINIZIOA edo DEFINIZIO NAGUSIA.— Hitzunek aintzat hartzen dutena; ez du zientziarekin bat etorri beharrik.

DEFINIZIOAREN ALDAKORTASUNA.— Honako arlo hauetan gertatzen den edozein aldaketa garrantzitsuk alda dezake —aldatu ohi du— hiztegietao definizioa:

- ✓ Hitzun komunitatearen ideologia
- ✓ Ezagutzaren hedapena
- ✓ Definizioaren kontzeptua zorroztea

DEFINIZIOA ETA SEMANTIKA.— Definizioa hiztegi gintza tradizio luzean oinarrituta dago. Hizkuntzalaritzaren aurrerapenak gorabehera, definizio lexikografikoa goitik behera berrizta dezakeen metodorik ez da inoiz azaldu, nahiz hobekuntza zenbait bideratu dituzten. Azken batean, ez dirudi hiztegiak hitzaren esanahiaren analisia aurkeztu behar duenik: aski bide da definizio orokorra, erabiltzaileak hitza ongi ulertu eta erabiltzeko adinakoa.

1.2. Definizioaren inguruko kontzeptu garrantzizko batzuk

METAHIZKUNTZA.— Hizkuntzari buruz hitz egiterakoan erabiltzen dugun hizkuntza. Definizioa metahizkuntzaz egiten da. Metahizkuntza honen adierazgarrietako batzuk izaten dira (izaten ziren) *Dícese... Honela deritza...*

ADIERA.— Hitzaren esanahi ezberdinetako bakoitza, bat baino gehiago dituenean. Adierak sarrera barruko atal ezberdinak (zenbakiekin, etab.ekin bereziak) izan ohi dira. Adieren arteko ordena erabakitzeo irizpideak:

- ✓ kronologia

- ✓ etimologia
- ✓ logika
- ✓ hiztunaren sena
- ✓ maiztasuna
- ✓ sistemaren barruko posizioa
- ✓ banaketa sintaktikoa

HOMONIMIA ETA POLISEMIA.— Homonimia: esanahi ezberdineko hitzen forma berdintasuna. Polisemia: hitz berak esanahi bat baino gehiago izatea. Hiztegiak bien artean hautatu behar du, baina ez dago irizpide trinkorik. Honako hauek erabiltzen dira:

- ✓ etimologia
- ✓ hiztunen sena
- ✓ esanahiaren aldetiko erlazioa edo erlaziorik eza
- ✓ gramatika kategoria

1.3. Definizioaren "legeak"

- Definizio barruko hitz guztiak azaldu behar dira.
- Definizioak ez du azalgaia baino ulergaitzagoa den hitzik izan behar.
- Definitua ezin da definizioan erabili, ezta haren eratorririk ere, nahiz hauek beren aldetik ongi definiturik egon.
- Definizioak bat etorri behar du definituaren gramatika kategoriarekin

Beste ezaugarri garrantzizko batzuk:

- ✓ Funtsezkoenaren lehentasuna
- ✓ Ordezlagarritasuna (?)
- ✓ Bakuntasuna
- ✓ Laburtasuna
- ✓ Anbiguotasunik eza

ZIRKULARTASUNA EDO GURPIL-ZOROA.— Hiztegiaren xedea esanahia argitzea izanik, ez dago akats larriagorik; halere, tamalez, oso zaila da saihesten. Bi mota daude:

- ✓ A B-ren arabera definitzen da, eta B A-ren arabera
- ✓ Definizioak inora ere ez eramatea

1.4. Definizio motak

Hiztegiak erabiltzaileari delako hitz bat ongi erabiltzeko edo ongi ulertzeko aski diren informazioak eskaini behar baldin badizkio, honek berez bezala dakar definizio motak hitzen arabera, eta hiztegien arabera ezberdinak izatea.

A) Metahizkuntzaren izaeraren arabera

A₁) Metahizkuntzazko definizioa edo ohiz kanpoko definizioa

- a) Defini ezin daitezkeen hitzak
- b) *hala deritza, -ri dagokio...* aurkezpendunak
- c) *-ri dagokiona* formuladunak
- d) Testuinguruaren arabekoak

A₂) Definizio parafrastikoa edo ohiko definizioa

- a) Hiperonimikoa
 - a₁) Metonimikoa
- b) Sinonimikoa
- c) Antonimikoa
- d) Aurreko kategorien osagarriak:
 - d₁) Seriala
 - d₂) Mesonimikoa
 - d₃) Begi-bistakoa

B) Definituaren izaera eta definizioan emandako informazioaren arabera

B₁) Definizio lexikografikoa vs definizio entziklopedikoa

B₂) Definizio azaltzailea vs definizio sortzaile edo hitzartua

2. Ordainak

ANISOMORFISMOA.— Hizkuntzen egitura lexikoak ez datoz denetan bat; hauxe da hiztegi gintza elebidunaren (eta itzulpengintzaren) arazo nagusia. Ez dago erabateko baliokiderik, terminologian izan ezik: gehienak zatikazko ordainak baino ez dira, adiera batean edo batzuetan, testuinguru batean edo batzuetan baliokide direnak.

ORDAIN MOTAK.— Ordain itzultzaileak: taiu bereko testuinguruetan ager daitezkeenak.

Ordain azaltzaileak: iturri-hizkuntzako hitzaren esanahia agerian jartzen dutenak.

ORDAINIK GABEKO UNITATEAK.— Nagusiki hiru erakoak izan daitezke:

- ✓ Funtzio designatiboaz bestelakoa duten unitateak (gramatikazkoak...).
- ✓ Kulturarekin lotutako hitzak
- ✓ Hutsuneak betetzeko ahaleginetan dabilen hizkuntzak falta dituenak

Lehenengoetan irtenbidea funtzioa labur adieraztea eta adibideak ematea izan ohi da. Beste biek bi irtenbide dituzte: ordaina eratzea (mailegua edo hitz berria) edo ordain azaltzailea ematea.

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Bray (1989a): Ezer gutxi ezagutu ohi ditugun hiztegiaren ezaugarri formal zenbait ederki aurkezten ditu.

Zgusta (1989): Estandarrarekin lotutako hiztegi elebidunei buruzko oso lan argigarria.

Rey (1992): Entziklopediei buruzko lana, euskaratu diren gutxietakoa.

BIBLIOGRAFIA

Al (1989). Algeo (1989). Arzamendi (1981). Bosque (1982). Bray (1989a). Dreyfus & Richaudeau (1990). Dubois & Dubois (1971). Haensch *et al.* (1982). Haiman (1980). Landau (1989). Lara (1989, 1997). Malkiel (1975). Martínez de Sousa (1981, 1995). Osselton (1989a). Quemada (1967). Rey (1992). Rey-Debove (1971). Seco (1987). Zgusta (1971, 1989).

BIGARREN GAIA

EUROPAKO LEXIKOGRAFIAREN HASTAPENAK

HELBURUAK

Aurreko gaian hiztegiak tipologikoki definitu eta deskribatzeko irizpide eta kontzeptu nagusiak ikusi ondoren, honako honetan hiztegiak genetikoki ulertzeko ezinbestekoak diren zenbait gai jorratuko ditugu.

Batetik, Antzinateko hiztegi gintzan sartu-irten bat eginez, gizakia lexikografian aritzera eraman duten zioak funtsean betierekoak direla azpimarratuko dugu.

Bestetik, Mendebaldeko Europako hiztegi gintzaren historiari eutsiko diogu, honen barnean garatu baita Euskal Lexikografia. Gure bidaia Erdi Aroko glosetan hasi eta "hiztegi gintza akademikoa" deitu ohi den mugimenduan (XVII-XVIII. ea.) bukatuko da, garapenaren ezaugarri nagusiez jabetzeko epe hau aski delakoan, orokorki ikertu ez den XIX. mendetik aurrerako hiztegi gintzaren historiaren oihanean sartu gabe. Berezi-bereziki interesatzen zaizkigu atal honetan genero lexikografikoen sorrera eta bilakaera, baita euren eragile soziokulturalak ere.

EDUKIAK

I. AURREKARIAK

1. Antzinateko lexikografia
2. Erdi Aroko genero lexikografikoak
 - 2.1. Glosografia
 - 2.2. *Nominalia* edo *nomenclator*-ak
 - 2.3. *Colloquia*
 - 2.4. Alfabetoaren arabera antolatutakoak
 - 2.5. *Summa*-k

II. ERRENAZIMENDUKO IRAULTZA

1. Hiztegigintza elebidun klasikoa
2. Hizkuntza arruntak ikasteko baliabideak
 - 2.1. Hiztegigintza eleaniztuna
 - 2.2. Hizkuntz eskuliburuak
 - 2.3. Hiztegigintza elebidun modernoa

III. HIZTEGIGINTZA ELEBAKARRAREN JAIOTZA

1. Hasikinak (XVII. mn.)
 - 1.1. "Hard word" tradizioa
 - 1.2. *Summa* antzeko hiztegigintza elebakarra
2. Hiztegigintza akademikoa (XVII-XVIII. mn.)

AZALPENA

Lexikografia historia luzeko jardunbidea da. Idazkerarekin bateratsu sortzen da, edo idazkeraren lehenengo agerraldiekin bateratsu lekukotzen behinik behin, Ekialde Hurbileko antzinako kulturetan. Haatik, jauzi handia dago orduko hitz zerrendetatik egungo hiztegiatarara: esan liteke xedeek berdintsu dirautela, baina artean hiztegiaren itxura eta edukia nabarmen aldatu dira, aldez hiztegiaren berezko garapenagatik, aldez inguruan izan diren berrikuntzen eraginez (hizkuntzalaritzaren bilakaera, inprentaren asmakuntza...). Hona hemen, beraz, gai honetan azpimarratu nahi ditugun bi ezaugarri, hiztegiak azaltzeko ezinutzizkoak:

a) Hiztegiaren tradizio luzeko jardunbidea da, ia artisau-lana. Oinarrizko kultur premia jakin batzuei berdintsu erantzuten dien heinean, funtsean ez da aldatu mendeetan zehar, oso gutxinaka baizik. Eta metatutako jakintzaren transmisio-bidea den heinean, maiz kopian edo egokitzapenean oinarritu da.

b) Hiztegia kultur objektua da, unean uneko gizartearen premia zehatzak ere asetzeko pentsatua, hizkuntz eta kultur egoera —heinean baita soziopolitiko eta ekonomikoa ere— islatzen duena eta, hortaz, gizartearekin bateratsu aldatuz doana.

Lexikografia modernoa Europan sortzen da, XV-XVI. mendeetan, Erdi Aroko latinezko hiztegiaren garapen gisa. Orduan gertatzen da “lehenengo iraultza lexikografikoa” dei dezakeguna: ondoko lau mendeetan ez dago ezer, Errenazimenduko bultzadarekin berdindatekeena, berriki ordenagailua hiztegiaren erabiltzen hasi den arte. Erdi Aroz eta Errenazimenduaz, bi garai hauetaz kezkatuko gara batez ere, bada, Europako hiztegiaren hastapenak deskribatzeko; gure historia une esanguratsu batean etengo da: “hiztegiaren akademikoa” deritzagunear, hizkuntz hiztegi elebakar handiak sortu zireneko mugimenduan, alegia.

I. AURREKARIAK

1. Antzinateko lexikografia

Antzinatean geroagoko eragile eta xede berberak aurkitzen dira jadanik. Izan ere, non-nahi ere dela, jarduera lexikografikoa heziketaren eskutik dator, idazten eta irakurtzen ikasi beharretik hasita. Halaber, beste bi faktore nagusirekin lotuta dago: hizkuntz ukitze egoerekin eta hizkuntzaren etengabeko aldaketarekin. Ukitze egoerak bi erataraz daitezke:

Kultur menpekotasuna: Geroago latina bezalaxe, sumeriera akadioen artean kultur hizkuntza eta hizkuntza sakratua izan zen. Honek sumeriera-akadiera zerrenda elebidunak (batzuetan oso luzeak, milaka hamarreko hitzekoak) sortarazi zituen (K. a. III. milurtekoan).

Nazioarteko harremanak: Erresuma akadioaren mugako herrietan zerrenda eleaniztunak aurkitu dira, aldameneko herrien hizkuntzak (hititera, hurritera, ugaritera) ere barneratzen dituztenak.

Hizkuntzaren etengabeko aldaketak —eta denboraren iragateak berak— beste premia bat sortzen du: tradizioa gorde beharra. Aurrekoen testuak ulertarazi behar dira, areago antzinako hizkuntza hura klasikotzat jotzen denean. Lexikografia grekoa hemendik dator neurri handi batean: azken buruan Homero ulertu beharretik. Honek hitz zail, ulergatiz edo ustelduak azaltzeko iruzkinak (*glossa*) pilarazi zituen.

Bada laugarren faktore orokorrago bat: mundua ezagutu eta ordenatu beharra, alegia. Dirudienez, zerrendarik zaharrenak honek eragindakoak dira: sumerioek egin zituzten zerrenda elebakarrak mundu ezagunaren erroldak baino ez omen ziren. Faktore orokor hau, dakigularik, askoz beranduago arte ez zen bilakatu hizkuntzari buruzko hausnarketa. Hiru adibide baino ez:

- Sinonimia: Prodicó (K. a. 470), sinonimiaren ñabartasunez ohartuta, itxuraz esanahi berekoak ziren hitzen artean bereizketak egiten saiatu zen, definizio kontzeptual trinkoen bidez.
- Etimologia: Luzaroan hiztegegintzaren lagun izango den jardura hau Antzinatean (Bizanzioko Aristofanes, Malosko Cretes, Atenasko Apolodoro...) poesiaren interpretapenaren lagungarri gisa landu zen.
- Sormena: Aurkitu ahal izan dudun gaitasun-hiztegi zaharrena —besteen aldean oso berria, halere— Al-Jalil lexikografo arabearen *Kitab al-'Ayn* lana da (K. o. VIII. mn.): arabierazko erroak silaba kopuruaren arabera sailkatuaz, hizkuntzaren sormena (litezkeen hitzak, erabili gabeko konbinazioak) agerian jartzen saiatu zen.

2. Erdi Aroko genero lexikografikoak

Erdi Aroko latinezko hiztegegintza kultur premia ezagun batekin lotuta dago: Europako mendebalde osoan latina izan zen kultur hizkuntza eta nazioarteko hizkuntza. Honek esan nahi du non-nahi bigarren hizkuntza gisa irakatsi eta ikasi behar zela. Ikasi behar honek berekin dakar baliabideak gerturatzea: gramatikekin batera, latina ikasten laguntzeko ez ezik, itzultzeko eta idazteko lan lexikografikoak egiten dira. Premia azkarrago sentitu zen erromantzeez bestelako hizkuntzak zituzten herrietan (germaniko edo zeltikoetan), baina une batetik aurrera Erromanian bertan ere ohartzen hasi ziren idazten zena eta hitz egiten zena ez zetozeela bat.

Erdi Aroan kultur transmisioa erreproduzioan eta konpilazioan oinarritzen da: eskuizkribuak behin eta berriz kopiatzen dira, laburtzen edo hedatzen dira, euren artean biltzen edo premia ezberdinei egokitzen. Nazioartekotasuna da lan garrantzitsuenen ezaugarria.

Erdi Aroko hiztegegintza bi norabidetan garatzen da: (1) irakaskuntzako; (2) jaso, entziklopedi motakoa, Antzinateetik datorren kultur ondarea jasotzen eta Errenazimenduraino transmititzen duena.

Buridant-ek (1986) proposatu duen sailkapen ebolutiboaren arabera, honelatsu garatu zen hiztegitza Erdi Aroan zehar:

2.1. Lan glosografikoak

Ikasle-irakasleek eskuizkribuetan egindako glosetatik, maiz erabiltzen ziren liburuen edo biziki garrantzitsu ziren gaien glosarioak biltzera igaro zen. Glosario garrantzitsu eta nazioartekoenak latinezkoak ziren, baina xede-hizkuntza gisa bertako hizkuntza ageri deneko glosarioak Europako herri askotan aurkitzen dira.

GLOSAK.—

- ✓ Lexikografiaren beheko mailan daude
- ✓ Hitz zailak azaltzea helburu
- ✓ Latin errazagoan edo glosagilearen hizkuntzan

GLOSARIOAK.—

- ✓ Glosa bildumak
- ✓ Sarritan elebidunak, maiz hurrenkera alfabetikoan (A edo ABraino bakarrik), erabilera errazteko
- ✓ Adibiderik esanguratsuenak: Richenau-ko abadiarena (Frantziako ipar., X. mn.)
- ✓ Ondokoak: literatur lanetako glosarioak eta, oro har, "hard word" tradizioa

2.2. Nominalia edo nomenclator-ak

- ✓ Gaika antolatutako hitz bildumak, gai bakarreko txikietatik entziklopedia gisako handietaraino
- ✓ Didaktikotasun handiko antolamendua (mnemoteknikoa), latina edo tokian tokiko hizkuntza irakasteko profitatua
- ✓ Nagusiki izen konkretuak biltzen dituzte
- ✓ Sarritan lan handiagoen (gramatikak, solasak...) eranskin
- ✓ Erdi Arotik aurrera erraz iraungo zuten. XVI. mendean garairik onena hasten da

2.3. Colloquia

- ✓ Eredu gisa aurkeztutako solasak

- ✓ Galderak aitzakia, gai bati buruzko informazioa —harekin lotutako lexikoa barne— eskaintzen dute
- ✓ Latina irakasteko erabiliak
- ✓ Errenazimenduan berragertuko dira, bi eratara:
 - Latina ikasteko (cf. Erasmoren *Colloquia*)
 - Hizkuntza modernoak ikasteko hizkuntz eskuliburuetan (Berlaimont, Minsheu...)

2.4. Alfabetoaren arabera antolatutakoak

- ✓ Hasikinak: glosario alfabetikoak (*Abavus, Aalma...*)
- ✓ Gaiak sakabanatuta daude: didaktikotasunean galtzen dena, kontsultagarritasunean irabazten da (irakaskuntzarako baino, itzulpengintzarako egokiagoak)
- ✓ Gutxieneko mikroegitura, sarrera-buruaren esanahia azaltzeko adinakoa:
 - Elebakarretan: perifrasiak edo esanahikideak
 - Elebidunetan: ordainak
- ✓ Latinezko elebakarrak hasieran, gutxinaka hizkuntza arrunteko glosak erantsiko dituzte. XV. mendean hizkuntza arrunta-latina hurrenkerara igaroko da Europako herri askotan (= Errenazimenduko hiztegiak elebidunaren aurrekari hurbilak)

2.5. Summa-k

- ✓ Latinezko bilduma handiak
- ✓ Metatzaileak: lexikoa + gramatika + inguruaren ezagupena, maiz etimologiaren azalpenaren bitartez. Sinonimoez gainera, objektua deskribatzeko balio duten edozertariko azalpen edo parafrasiak
- ✓ Adibide garaiak:
 - Papias, *Elementarium doctrinae erudimentum* (XI. ea.)
 - Hugucio, *Magnae derivationes* (XII. b.)
 - Balbi, *Summa grammaticalis quae vocatur Catholicon* (1286)
 - *Summa de summas*
 - 200 eskuizkribu baino gehiago
 - Gutenbergek berak inprimatua (1460)
 - 1460-1500 bitartean 20 argitalpen baino gehiago

II. ERRENAZIMENDUKO IRAULTZA

Humanistek Erdi Aroko tradizio zaharkitua berariaz hatsi zuten hainbat arlotan, baita hiztegi gintzan ere. Errenazimenduan hiztegia genero gisa definitzen duten funtsezko ezaugarriak finkatu ziren, Europako mendebal osoan garatuko zen lexikografia baldintzatuaz.

Haustura ez zen erabatekoa izan: aurreko lanetara jotzea lehen bezain ohikoa da, eta latinak oraindik oso betebeharrak garrantzizkoak dauka. Alabaina, faktore berri batzuek eragin zuten hiztegi gintza:

Ikasketa klasikoak itxuraberritzea.— Idazle klasikoen argitalpen hobeak egiteaz gainera, tresna didaktiko berriak (hiztegi eta gramatikak) prestatu ziren, Erdi Aroko baliabide zaharkituen ordean.

Hizkuntza arruntek ordura artean ez bezalako garrantzia hartzea.— Estatu modernoak finkatzen ari diren garai batez ari gara: hizkuntza botere-tresna eta sinbolo bihurtzen da, kanpora begira bereizgarri, barnera begira bateratzaile. Latinak kultur hizkuntza gisa pairatzen duen beherakada nabarmenarekin batera, hizkuntza arruntak erabilera goraka doa arlo gehienetan; ondorioz, Europako hizkuntza askoren lehen gramatikak eta hiztegiak egiten dira.

Nazioarteko harremanak lehen baino iraunkor eta garrantzizkoagoak bilakatzea.— Nazioarteko hizkuntza gisa ere, latina ez da lehengoa: hizkuntza modernoak ikasi beharra agertzen da, nazio modernoek artean sortzen diren harreman komertzial, kultural eta soziopolitikoak bideratzeko. Xede honekin oinarriko gramatikak eta hizkuntz eskuliburuak ugari ekoizten dira.

Inprentaren asmakuntza.— Informazioa igortzeko bideak irauli zituen: eskuzko kopiak aldaketa eta hutsetarako zeukan joera nahikoa gutxitzeaz gainera, edozein idazki anitzez aise, ugari eta merkeago hedatzeko aukera ematen du.

1. Hiztegi gintza elebidun klasikoa

Bide jasoaren Errenazimenduko ordezkari, eta maiz geroagoko hizkuntz hiztegi elebakar orokorren aitzindari. Bi tradizio biltzen dira: Erdi Aroko latinezko elebakar handiak eta hiztegi alfabetiko elebidunak; bietatik hartzen dute hiztegiak.

Norberaren hizkuntza lexiko aberastasunean latinaren pareko dela frogatzeko zein latinaren pareko bihurtzeko begibistako bidea, latina-hizkuntza arrunta hurrenkeran egindako hiztegiak dira (Nebrixa 1492, Estienne 1538, Cardoso 1551...). Alderantziz antolatutako hiztegiak eskuarki horien ondoren ohi datoz, eta sarri euren zordun dira (Nebrixa 1495 (?), Estienne 1539, Cardoso 1562-63...); bide honetatik, hizkuntza arrunten lehen nomenklatura handiak sortu ziren.

2. Hizkuntza arruntak ikasteko baliabideak

Hizkuntz irakaskuntza Erdi Aroan baino garrantzizkoago bihurtzen da. Hizkuntza arruntek gero eta leku gehiago kentzen diote latinari, nazioarteko harremanak ugaltu eta norberaren hizkuntza denetarako gehiago erabili ahala.

Hiztegietan lotuta agertzen diren hizkuntzak, garai hartako herrien arteko erlazioen isla dira hein handi batean, baita hizkuntza batzuek Europan izan zuten garrantziarena ere.

2.1. Hiztegiak eleaniztuna

Garai honetan mundu ezaguneko hizkuntz aniztasunaz biziki interesatuta daude jakintsuak. Hiztegi eleaniztunak honen ondorioetako bat ditugu, hainbat hizkuntzaren ordain zerrendak biltzen zituztenak.

“Calepino” deitua izan zen garai honetako *best-seller*-etako bat: Ambrogio Calepinok latina-italiera hurrenkeran egina (1502), hizkuntza batzuk kendu eta beste batzuk jarri, zortzi, hamar eta are hamaika hizkuntza biltzeraino iritsi zen XVI. mendeko eta XVII. mende hasierako argitalpen anitzetako batzuetan. Genero bilakatu zen.

2.2. Hizkuntz eskuliburuak

Hiztegiak jakituriarekin lotzeko joera dugu: ezagutzen ez ditugun edo ongi ulertzen ez ditugun, sarritan inoiz ere erabiltzen ez ditugun hitzez betetako liburuak direla uste

dugu, hizkuntzaren altxor osoaren gordailu. Alabaina, halakoak ez dira ondu izan diren lan lexikografiko bakarrak, ez eta hurrik eman ere. Premia apalagoetarako ondutakoak hamaika izan dira, eta dira oraindik ere.

Zehatzago, hitz egin behar dugu herririk herri ibili behar zen jendearentzat (merkatariak, bidaiariak, soldaduak...) pentsatutako lanez. Honelakoek ez dute hiztegi handi baten beharrik: aski dute, gehienbat, oinarrizko hitz edo esapide zenbait eskura izatea. Europako hizkuntza nagusiak binaka edo batzen dituzten hiztegitxoak dira; hiztegiok bestelako osagaiak eransten zaizkie.

Adibiderik garaiena: Berlaimont, *Vocabulaire pour aprendre legierement a bien lire, escripre & parler Francois & Flameng...* (c. 1530): eskuliburu familia erraldoi baten oinarrian dago, beste hizkuntza batzuetako eransketak eginda. Edukia:

- ✓ Ohiko hitzen glosarioa
 - Gehienbat alfabetikoa (A edo ABrainokoa bakarrik)
 - 1.500 hitz inguru
- ✓ Zenbakiak eta egunak
- ✓ Hiru solas (gero gehiago)
 - “Hamar pertsonentzako konbitea”
 - “Saltzen eta erosten ikasteko”
 - “Zorra kobratzeko”
- ✓ Gutunak eta dokumentuak, eredu gisa, nagusiki merkataritza eta negozioei buruzkoak
- ✓ Otoitzik beharrenak
- ✓ Ahoskerari buruzko atal laburra, gramatika nozio zenbaitekin

2.3. Hiztegiqintza elebidun modernoa

Gramatikei edo hizkuntz eskuliburuei erantsitako hiztegi txikien alboan, nazioarteko harremanen ohiko norabideen arabera, hizkuntza moderno bi biltzen dituzten lehen hiztegi handiak ere antolatzen dira. Garai hartan, ezaguna denez, gaztelania da erreferentzia hizkuntzetako bat: gaztelania italierarekin (Las Casas 1570), frantsesarekin (Hornkens 1599), ingelesarekin (Percyvall 1591) edo neerlanderekin (Rodriguez 1624) biltzen duten hiztegiak ez dira falta; baina nork bere erreferenteak ere badituzte Europako herriek: adib. neerlandera lehen eta nagusiki frantsesarekin lotzen da (*Naembouck* 1546), eta gero ingelesarekin (Hexham 1647).

III. HIZTEGIGINTZA ELEBAKARRAREN JAIOTZA

1. Hasikinak (XVII. mn.)

Hiztegigintza elebakarra sor dadin, nor bere hizkuntza ikasi eta lantzeko premia sortu behar da aurrenik. Premia honek bi ondorio nagusi izan zituen lehen unean: Kodetzea: Europako hizkuntzen lehen gramatikak idazten dira, Nebrixaren gaztelaniazkoatik (1492) hasita. Goratzea: espekulazio linguistikoaren barruan leku garaia izango duen korrante historiko-filologiko bat sortzen da, “apologia” izen orokorrarekin ezagutzen duguna: nor bere hizkuntza Babelgo nahastearen ondorengoan artean kokatzeko edo haiekin nola edo hala lotzeko argudio historikoak eta filologikoak (etimologikoak gehienbat) biltzen dituen.

Beranduago baizik ez du eragingo hiztegigintza elebakarraren sorrera: Europa osoan lehen nazio-hiztegiak denak elebidunak dira, dakigunez. Honegatik, hein handi batean hiztegigintza elebakarra aurreratuago zegoen elebidunaren ondorena da, bertan izan baitzuen abiapuntua, bai tekniken aldetik, baita maiz edukiaren aldetik ere.

Hiztegigintza elebakarraren beharra ez zen berdin sentitu Europako herri guztietan, eta ez zen arrazoi berengatik, ez eta bide beretik sortu. Hasikinetan bi eredu aurkitzen ditugu: “hard word” tradizioa ingelesez, eta *summa* antzekoa gaztelaniaz.

1.1. “Hard word” tradizioa

Ingelesez lehenengo hiztegi elebakarrak nahiko goiztarrak izan arren (Cawdrey 1604), txiki eta murrizak dira: hiztun arruntarentzat ulergaitz diren hitzak baino ez dituzte biltzen (kultur hitzak, terminoak, hitz zaharkituak...). Eguneroko hitzak ez dira sartzen oso berandu arte (Kersey 1702), eta honetarako hiztegiak betidanik jasotzen zituen tradizio elebidunera (ingelesa-latina eta ingelesa-frantsesa hiztegiatar) jo behar izan zuen.

1.2. *Summa* antzeko hiztegigintza elebakarra

Bide honek ordezkari goiztar eta ezagun bat du espainolez (Covarrubias 1611), European argitaratzen den lehen elebakar handia. Etimologiatik hasita, eta honetan

interes gehiena jarriarik, hiztegiak hitzez (edota gauzez) egileak eman dezakeen informazio guztia (historikoa, linguistikoa, mitologikoa, geografikoa...) biltzen du.

2. Hiztegi gintza akademikoa (XVII-XVIII. mn.)

Lau harkantoi ditugu, bata bestearen eraginez sortuak, baita bata bestearen eredura ere hein handi batean:

- Italiaraz *Vocabolario degli Accademici della Crusca* (1612)
- Frantsesez Frantziako Akademiaren hiztegia (1694)
- Gaztelaniaz Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades* (1726-1739)
- Ingelesez Samuel Johnson-en hiztegia (1755).

Bi alderdi azpimarratu behar ditugu:

OSOTASUN NAHIA.— Hizkuntz apologiaren ildotik ahalik hitz gehienak biltzeko ideia sortzen da, hizkuntza denetarakoa eta ezin aberatsagoa dela erakutsi beharrez.

ARAUEMAILETASUNA.— Berariaz (akademiak) edo nahi gabe (Johnson), arauemaile dira hiztegiok, eta eragin handikoak. Hizkuntza maila jasoan erabiltzeko irizpideak finkatzen dituzte, hala gramatikagintzaren lana hainbat alderditatik osatuaz (idazkera, ahoskera...), nola batez ere hizkuntzaren lexikoari muga zenbait jarriaz: hitz tabuak, arruntegiak, mailegu irunsi gabeak, neologismo gordinak... baita maizenik hitz dialektalak ere kanpoan uzten dituzte; bestela, hitzen artean bereizketak egiten dira, maila jakin batzuk (diatopikoak, diastratikoak eta diafasikoak) markatuaz.

Oso ideia zabaldu bat dute denek oinarrian: hizkuntza guztiek bere loraldia izaten dute; ondoren, finkatzeko modurik aurkitu ezean, hondatu eta galtzen dira. Hortaz, zeinek bere hizkuntz eredua ("le bel usage") hautatuta, hura da finkatu eta betiko bilduta aurkeztu nahi dutena: Cruscaren Akademiak Florenziako tradizio humanistikoa, Frantziakoak garaikoa, Espainiakoak XVII. mendeko literatura eta Johnsonek aurreko bi mendeetakoak. Literatur aipuak izaten dira, beraz, euren sarreren euskarri eta arima, salbu eta Frantziako Akademiaren hiztegian, zeren eta:

Il [hiztegia] a esté commencé & achevé dans le siecle le plus florissant de la Langue Françoisé. Et c'est pour cela qu'il ne cite point, parce que plusieurs de nos plus

celebres Orateurs & de nos plus grands Poètes y ont travaillé, & qu'on a creu s'en devoir tenir à leur sentimens (hitzaurrea, ap. Viscardi *et al.*, 133).

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Osselton (1995: 1-15): Hiztegiak deskribatzeko erabili ohi ditugun ezaugarrien bilakaera aztertuz historia nola egiten den ikasteko eredugarri.

BIBLIOGRAFIA

Anderson (1972). Azorín (2000). Bajo Pérez (2000). Benson, Benson & Ilson (1986). Bischoff (1981). Boisson (1996). Bourland (1974). Bray (1989b). Buridant (1986). Carrera de la Red (1988). Castro (1936). Cooper (1960a, 1960b, 1962). Della Casa (1981). Esparza (1995). Gallina (1959). Green (1996). Hayashi (1978). Hüllen (1989). Lépinette (1987, 1989, 1992). Migliorini (1933). Niederehe (1986, 1987). Osselton (1973, 1983, 1986, 1989a, 1989b, 1995). Quemada (1967, 1990). Read (1992). Seco (1987). Starnes (1954). Starnes & Noyes (1946). Stein (1986, 1988). Steiner (1970, 1986, 1989). Van Lerberghe (1990). Verdonk (1988, 1990, 1992). Viscardi *et al.* (1959).

HIRUGARREN GAIA

EUSKAL HIZTEGIGINTZAREN HASTAPENAK

HELBURUAK

1745 baino lehenagoko hiztegitza saio xumeak —hiztegiez bestelakoak— bildu, sailkatu eta deskribatuko ditugu, beren tipologia eta historiaren oinarriak jartzeko, behar beste adibideekin.

Bi irizpide nagusik gidatuko gaituzte. Batetik, euskaldunen zerrendei atzerritarrenei baino garrantzi gehiago emango diegu, egiazki horiek bakarrik osatzen baitute “euskal tradizioa” deritzaguna: ondoko hiztegitzaren aurrekaritzat jo daitekeena, Euskal Herriko kultur giroaren berri ematen diguna, eta euskaldunek lexikografiaren konbentzioak betetzeko hautatu zituzten irtenbideak ezagutzeko bidea ematen diguna, alegia.

Bestetik, euskal zerrenda hauek ohi baino arreta gehiagoz aztertuko ditugu, nahikotxo argitaratuak izan baitziren, garai bereko hiztegiak ez bezala: hartara, geroengan eraginik izatekotan, badirudi hauek aukera gehien izan zutela.

EDUKIAK

I. ZEHARKAKO LEKUKOTASUNAK

1. Glosak

2. Atzerritarren hitz zerrenda eta hiztegitxoak

2.1. Bidaiarien bildumak

2.2. Hizkuntzalarien bigarren eskuko zerrendak

2.3. *Glossaria duo vasco-islandica* (XVII. mn.)

II. TRADIZIOAREN SORRERA: GENERO LEXIKOGRAFIKO XUMEAK

1. Literatur lanetako glosario eta hitz zerrendak

1.1. Leizarragaren *Testamentu Berri*-koak (1571)

1.1.1. *Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuén declarationea*

1.1.2. *Testamentu berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin*

1.1.3. *Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac*

1.2. Oihenarten *Neurtitz hautaco hiz bekanen adigarria* (1657)

1.3. Ibarzüen-Cachopinen kronikako hiztegitxoak (c. 1600)

2. Hizkuntz eskuliburuak

2.1. Voltaire: *Tresora hirur lengualetakua* (c. 1620)

2.2. Rafael Mikoleta: *Modo breve para aprender la lengua vizcaína* (1653)

3. Etimologi zerrendak

3.1. Oihenarten *Notitia*-koa (1638?, 1656)

3.2. Larramendiren *De la Antigüedad...*-ekoa (1728)

4. Gramatiketako hiztegitxoak

4.1. Pierre d'Urte: *Gramaire Cantabrique* (1712)

4.2. Martin Harriet: *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hizcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (1741)

AZALPENA

Euskal Lexikografiaren jaiotza euskararen Erdi Aroko lehen agerpenekin bat eginda aurkeztu ohi da. Alabaina, metodologia eta xedeen aldetik banatu behar genituzke lexikografiaren eta hizkuntzaren historiak orainokoan bainoago, zeinek bere bideak urra eta, behar izanez gero, elkar susta dezaten. Oinarrizko banaketa honetatik zuzenean datoz gai honek dituen bi atalak: “Zeharkako lekukotasunak” eta “Tradizioaren sorrera: genero lexikografiko xumeak”.

I. ZEHARKAKO LEKUKOTASUNAK

Atal honetako lekukotasunek, euskararen barneko edo kanpoko historian garrantzi handia —batzuetan apartekoa— izan arren, euskal lexikografi tradizioan ez dute inolako jarraipenik edo eraginik izan. Honegatik, sorrarazi zituen testuinguruaz eta euren kultur esanguraz gehiago kezkatuko gara, eurak deskribatzeaz baino.

Atalak bi zati ditu, oso asimetrikoak ezinbestean: euskaldunen aldetik glosak bakarrik aipa daitezke, gainerako lekukotasun guztiak “Atzerritarren zerranda eta hiztegitxoak” deritzan atalean sartu beharrekoak diren bitartean.

Glosak. Hizkuntzen arteko urruntasunagatik, latinezko eskuizkribuetan egindako glosak erromantzeaz bestelako hizkuntzetan goizago agertu ziren European barrena, eta handik abiatuta, ondoko hiztegitzaren oinarrian dauden glosario

tradizioak sortu ziren hainbat herritan (cf. aurreko gaia). Euskal Herrian, oster, Donemiliagako bi glosez besterik ez dugu.

Euskal hiztegi gintzaren hasiera berankorra eta bilakaera arazotsua ulertzeko baliagarri den heinean, batez ere euskaraz idazten ez hasteko bildu bide ziren arrazoiak—Lacarrak (1957) bikain azalduak—gogoratzeko balioko digute.

Bidaiarien bildumak. Europako bideak ugaltu eta seguruago bihurtzearen ondorio argiak, hiru alderdi azpimarratzeko baliatuko ditugu:

a) Lekukotasun askea ematen digute XV. mendetik aurrera bederen euskaldunen erantzun naturala izenketan nominatibo singular mugatua dela. Erantzun natural honek baldintzatu du mendeetan izenkiei hiztegietan eman zaien forma kanonikoa.

b) Hasiera ere aipatu behar da, gaikako hiztegitxoaren ildotik datorrena, zehazkiago eskema teozentrikoaren arabera antolatutako Erdi Aroz gerozko tradizioetik: *Jainkoa* lehen, *Andredena Maria* bigarren... goitik behera, gorenetik lurrazalera. Tradizio indartsua izan zenez, aurrerantzean behin baino gehiagotan azalduko zaigu.

c) Multzo honetako zerrendagileen artean bat bereizi behar da, Marineo Siculo humanista (1530), lehenengoz euskarari buruz anekdotaz goitiko jakin-mina islatu baitzuen; honek hurrengo azpiataleko zerrenden aurrekari—ez gutxitan iturri ere—bihurtzen du.

Hizkuntzalarien bigarren eskuko zerrendak. Siculoren eskutik “Babel deskubritzen ari den” garaian sartzen gara: hizkuntz ezberdintasunak txunditu eta biziki interesatuta, Errenazimenduaz geroz bilduma eleaniztunak ugari ekoizten dira, hitz zerrendak eta Aita Gure sortak, besteak beste. Testuinguru honetan, XVI. mendearen bukaeratik aurrera, hizkuntzalari zenbaitek euskarari buruz zer edo zer esan nahi eta nekez eman zezaketen haren erakusgarririk, aurreko lanetatik kopiatuaz baizik. Hitz zerrenda zahar-berriak egiten dira orduan.

Nahiz aurrekoak baino luzexeagoak izan, halabeharrez, zerrenda hauek guztiak *codex descriptus* dira, bigarren eskuko lekukotasunak: hitzen historiarako baliogabeak, beraz. Gure ikuspuntutik, ordea, gutxienez bi interes argi dituzte:

a) Kultur historiaren aldetik, European barrena euskarak izan zuen izena ezagutzeko ezinbestekoak dira; bidenabar, Leizarragaren Testamentu Berriaren euskarazko itzulpenak arrazoi erlijioso eta linguistikoengatik lortutako nazioarteko oihartzunaren berri ere bademaigute.

b) Lexikografiaren aldetik, iturritasun ariketa errazak egiteko balio dute, zeren eta ezaguna baita, neurri batean bederen, zerrenda hauetako batzuek (Vulcanius, Lhwyd) Leizarragaren testuarekin daukaten erlazio zuzena, baita euren artean daukatena ere.

Glossaria duo vasco-islandica. Biltzaile islandiar ezezagunei esker, euskal arrantzaleak eta islandiarren arteko harremanak —biziak oso XVI eta XVII. mendeetan— islatzen dituzte bi zerrendok eta, areago, euskaldunek harreman horiek bideratzeko sortu zuten pidginaren hizkuntz lekukotasun ezinutzizkoak eskaintzen.

Vocabularia Gallica izenekoak ohi ez bezalako aukera ematen digu, gutxi gorabehera gaika antolatutako zerrenda luzexka bat (520 sarrera) nola bildu zen aztertzeko: biltzaileak eta berriemaileak elkar ulertzeko bide ziurrik gabe eta eredu lexikografikorik gabe, antza denez, keinuak eta atzamarra erabili bide ziren gauzen izenak lortzeko, ikusi edo bururatu ahala.

Vocabularia Biscaica deritzanean, berriz, hasiera teozentrikoa Europako beste bazter batean bermatzeaz gainera, *nominalia* eta gainerako kategorien arteko bereizketa aurkitzen dugu lehenengoz; egitura bertsua ikusiko dugu Urteren gramatikako hiztegieta.

II. TRADIZIOAREN SORRERA: GENERO LEXIKOGRAFIKO XUMEAK

Atzerritarren zerrenden bitartez aise igaro dugu Erdi Arotik (Picaud, 1134 b. I.) 1745 inguru arte. Alabaina, tartean euskal lexikografia sortzen da, XVI. mendearen bigarren zatian, literaturarekin bateratsu, Europako beste hizkuntza batzuenak sortzen edo finkatzen diren garai beretsuan: gaztelaniaren lehen hiztegiak (Nebrixa, 1492) eta frantsesarenak (Estienne, 1531) neurria emango digute, goitik bada ere.

Errenazimendu ondoko giroa hartarako ezin hobea izan eta, egileen aldetik sorrera indartsua da: guztira hogeitun lexikografiko ezagutzen ditugu Landucciren hiztegian hasi (1562) eta Larramendirena arte (1745). Haatik, orduan ondu ziren tamaina bateko hiztegietatik bakar bat ere ez zen argitaratu: halako lanen eskaera sortarazten —eta, jakina, finantzaketa erdiestarazten— duten baldintza soziokultural bereziak falta ziren, nonbait, orduko Euskal Herrian (cf. hurrengo kapitulua).

Lan xumeagoetako batzuk, ez guztiak, argitara ziren. Euskal hiztegiak hasikin hauetan pairatu zuen inausketa izugarriak, hizkuntzaren estatusa garden adierazteaz gainera, bide ematen digu aurkako norabidean noraino iritsi ahal izan zen jakiteko edo, bestela esanda, zein genero lexikografikok nolabaiteko harrera edota zori hobea izan zuten egoera hartan. Genero hauek lau izan ziren, agertu ziren kronologiaren arabera zerrendatuak: literatur lanetako glosario eta hitz zerrendak, hizkuntz eskuliburuak, etimologi zerrendak eta gramatiketako hiztegi laburrak.

Hauetatik, hasiera batean, dena interesatzen zaigu, oraindik ere euskal hiztegiak historiaz zeinen gutxi dakigun kontuan hartuta, bertan baitautza, gerokoek ezagutu ahal izan zituzten neurrian, haren ageriko tradizioaren hatsarreak.

Beraz, generoz genero eta zerrendaz zerrenda arituko bagara ere, guztiak zein bere testuinguruan kokatzea eta beren ezaugarriak sistematizatzea izango dugu helburu, bereizgarri esanguratsuak eta ohiko joerak identifikatzea euskal lexikografiaren bilakaera berreraikitzeke oinarrizko urratsa delako uste osoan.

Ikuspegi orokorra lortzeko jorratu beharrekotzat jotzen ditugun gaiak honakoak dira:

a) Eragile edota lagungarriak

- ✓ Hiztegitza eta hizkuntza idatziaren sorreraren arteko erlazioa
- ✓ Zerrendagilearen asmoak: zertarako?, norentzat?
- ✓ Ereduak

b) Edukia

- ✓ Jasotako hizkuntzak
- ✓ Nomenklaturaren hedadura eta izaera

c) Euskal osagaiaren etorkia

- ✓ Lexikografi eta literatur iturriak
- ✓ Neologia (mailegu berriak eta hitz berriak)
- ✓ Euskalki ezberdintasuna azpimarratu eta jasotzeko joera

d) Makroegitura

- ✓ Antolamendu orokorra
- ✓ Hizkuntzen hurrenkera
- ✓ Aurkezpen grafikoa

e) Mikroegitura

- ✓ Sarreraren izaera (sarrera sakabanatua vs sarrera modernoa)
- ✓ Sarrera kanonikoa
- ✓ Esanahia bereizteko baliabideak
- ✓ Euskal hitzen forma kanonikoa

f) Bizitza

- ✓ Argitalpenak
- ✓ Eragina

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Lakarra (1993: § I): Gai honetan bildutako zerrenden lehen aurkezpen orokorra, datuen aldetik ezinutzizkoa, eta genero zein ezaugarri batzuen identifikazio eta azalpenean aurrena.

Oroz (1981): Zerrenden kokapen historiko eta kulturalean eredugarri.

Hualde (1991b): Zerrenden erabilera linguistikoan eredugarri.

BIBLIOGRAFIA

Aquesolo (1967). Bilbao (1991a). Bourland (1933). Dodgson (1898). Echenique (1987). Garate (1961). Gavel (1922). Hualde (1991). Lakarra (1991, 1992b, 1993, 1994a, 1994c, 1997, 1999). Mañaricua (1970). Mitxelena (1958, 1964). Oroz (1980, 1981). Oyharçabal (1993). Ramos (1994). Rico (1982). Robins (1984). Sarasola (1983, 1998). Urgell (2000). Urkizu (1971, 1983, 1986, 1989). Urquijo (1925). Wolf (1996). Zelaieta (1988).

LAUGARREN GAIA
LARRAMENDIREN AURREKO HIZTEGIAK (1562-1745)

HELBURUAK

Lehendabiziko euskal hiztegia argitara zen urtea (Larramendi, 1745) berriro ere mugatzat harturik, euskara jasotzen duten lehendabiziko hiztegiez jardungo dugu.

Aurreko gaian baino are garrantzi gehiago emango diogu testuinguru soziokulturalari, garaian ondutako hiztegiak hainbat izan arren, bakar bat ez argitaratu izanaren arrazoen bila.

Helburu nagusia tarte honetako hiztegi gintza ikuspegi orokorra lortzea izango litzateke, eta honetarako hiztegi gileen asmoak ulertu, baliabideak deskribatu eta eragina ezagutu beharko genuke. Alabaina, nahi baino askoz datu gutxiago ditugu, hiztegi ezagunen bi herenak galdutzat jotzen baitira.

Beraz, ahalegin berezia egin beharko dugu orduko hiztegi gintza berreraikitzeke: alde batetik, hiztegi galduek dauden berri apurretatik ahalik ondorio lexikografiko gehien ateraez; bestetik, lagungarri gisa, hiztegien eta garai bereko hitz-zerrenden arteko berdintasun eta ezberdintasunak, eta erlazioak orobat, ohi baino arreta gehiagoz aztertuez.

EDUKIAK

I. GALDUTAKO HIZTEGIAK

1. Joanes Etxeberri Ziburukoa (c. 1630?)
2. Jakes Bela (1660-1666)
3. Dominique Bidegarai (1676)
4. Joanes Etxeberri Sarakoa (1712 b.l.)
5. Melchor Oyanguren (1717 ondokoa)
6. Pierre Duhalde (XVIII. ea.?)

II. GORDETAKO HIZTEGIAK

1. Nicolao Landucci: *Bocabulariua ezkeraz jakiteko, ezkeraz berba egiteko* (1562)
2. Silvain Pouvreau: Hiztegi laukoitzerako zirriborroak (c. 1665)
3. Pierre Urte: *Dictionarium latino-cantabricum* (1715)

AZALPENA

Ikusi bezala, Erdi Aroan ez dago euskaraz, Europako herri askotan hain emankor suertatu zen glosa eta glosario tradizio hartatik ezer, bi glosa xumez besterik. Kontua XVI. mendearen bigarren zatian hasi zen aldatzen, Errenazimenduak berriztutako kultur haizeak azkenik paraje hauetara iritsi zirenean. Izan ere, orduan hizkuntza arruntak, latin, greko eta hebraieraz bestelakoak balioetsiak eta erabiliak izaten hasi ziren, eta ordukoak dira, beraz, latinaren ondoan hizkuntza arruntak jasotzen dituzten lehen hiztegiak; orduan sortu ziren, halaber, bi hizkuntza arrunt edo gehiago biltzen dituztenak, eta ezer gutxi falta da gure abiapuntua izango den garaian, lehen hiztegi akademikoa (Accademia della Crusca, 1612) kalera dadin. Bide luzexka ibilia du Europako Lexikografiak, hortaz, XVI. mendearen bigarren zatirako (cf. 2. gaia).

Cruscarena baino 50 urte lehenago arte ez dugu edireiten tamaina bateko lehen euskal hiztegia, hain zuzen ere italiar bati zor dioguna (Landucci, 1562). Bederatzi urte beranduago argitaratzen dira euskaldun batek egindako lehen hitz-zerrendak (Leizarraga, 1571). Hasikin xume hauen ondotik, XVII. mendean zehar euskarak bazirudien abiada har zezakeela arlo honetan.

Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ezpada, euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac (*Gero* 19)

zioen Axularrek; baina, euskaldun guztien errua ote? Izan ere, Axularren gizaldian alde guztietatik “euskal hiztegi” dei ditzakegun lehenak ekoizten dira, hots, euskaldunek euskaldunentzat egindakoak. Orotara, bederatziren berri daukagu 1562-1745 bitartean. Ez dira gutxi, hasteko; eta, hala ere, haietatik bat ere ez zen bere mendean —ezta hurrengoetan ere— argitaratu, eta bi herenak egun galdutzat eman behar ditugu.

Ondorio latz hauek ulertzeko, lehenik agerian jarri behar dugu literatur hizkuntzaren sorrera eta hiztegiaren artean dagoen erlazioa hitz-zerrendetan baino, hiztegiaren are nabariagoa dela: bederatzi hiztegiiletatik zazpi Iparraldekoak dira, bostaldi berean euskal idazle edo itzultzaile, eta lau "Sarako Eskola" deritzagunaren barruan kokatzekoak (Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa eta Urte). Argi dago, honezkero, literatur hizkuntzaren sorrerak hiztegiaren beharra azalarazi zuela, baina sentitu, egileek bakarrik ia sentitu zutela: gizartea beste norabide batetik zebilen, antza.

Argitaratuak eskariaren isla diren heinean, ari garen epean lapurteraz orotara 25 liburu argitaratu ziren behin bederen; haien artean %15 inguru ditugu erlijio gaiez bestelakoak eta, bestalde, tartean hizkuntz liburu bi baino ez ziren kaleratu: Voltoirerena (c. 1620) eta Harrietena (1741). Eskariaren erretratu hertsia goa lor daiteke, gainera, Ziburuko Etxeberriren *Noelac*-en bederatzi argitalpenak, egile beraren *Manuala*-ren edo Axularren *Gero*-aren bina argitalpenekin erkatuz; edo Voltoireren zazpiak Harrieten bakarrarekin. Non-nahi eta noiznahi bezala edo areago, maila apaleko liburuak, errazak eta merkeak, maila jasokoak, zailak eta garestiak baino aiseago saltzen ziren. Pentsatzekoa da hiztegien eroslegaiak ez ziratekeela Etxeberri edo Axularren liburuenak baino gehiago inondik ere.

Gaurko hitzetan esanda, eskaintza handia izan zen ia eskaririk ez zegokeen unean; halaxe ulertu bide zuten erlijio liburuen argitalpenak bai, baina hiztegienak diruz laguntzeko prest izan ez zirenak. Instituzioek eurek ere ez zioten erronkari behar bezala eutsi, Bidegarai eta Sarako Etxeberri lekuko. Bidenabar, egoera beretsua aurkituko dugu hurrengo bi mendeetan, euskaraz argitaratzeko debekuak gaineratuta (ik. 6. gaia).

I. GALDUTAKO HIZTEGIAK

Hiru hiztegitan bat bakarrik gorde izana oso kontuan hartzeko galera da, nekez berdin baitaiteke galdutakoez ditugun berri apurrekin. Denak ez daude egoera berean, dena dela: alde handia dago inoren hiztegian aztarnak utzi dituzten Etxeberri bien hiztegietatik, Larramendiren aurreko edo ondokoa den ere ez dakigun Duhalderen hiztegiara, esate baterako. Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu azterketak ziur aski garai honetako hiztegi gintzaz ikuspegi mugatua baino ezin diezagukela eman.

Honek ez du esan nahi etsi behar dugunik; aitzitik, gaiari oraindik ere lexikografiaren aldetik etekin gehiago atera dakiokelakoan gaude. Irizpide honen arabera, honako gaiak azpimarratuko ditugu hiztegi bakoitzeko:

Joanes Etxeberri Ziburukoa. Pouvreauren hiztegiko eta O-SP eskuizkribuko aztarnen argitara, hiztegiak euskara eta latina biltzen zituen, ziurrenik euskara-latina hurrenkeran, euskal hitzaren alboan inoiz latinezko definizio luzexkak azaltzen dira eta (“*durdo*a, E. trocus qui baculo ejectur a pueris”). Egilearen lexiko jasotasun eta joritasuna ezagututa, pentsatzekoa da aberatsa zatekeela; edonola ere, lehen lekukotasunak eta hapaxak ugaritxo bide zituen, hitzberrigintza iradokitzen duten eratorri zenbait barne (*eliçateguia, lagunkoia, modorrotsua, oholdia...*).

Jakes Bela. Antza denez, gramatika eta hiztegia elkartu zituen lehena. Joan Felipe Bela hiztegi gilearen birraitona denez gero, suposatuta izan da hiztegiaren arrastoren bat egon litekeela birbilobarenean (ik. 6. gaia), beste oinarririk gabe oraingo. *Tablettes* delakoaren hizkuntza nagusitik erator daiteke hiztegiak frantsesa ere gutxienez jasotzen zuela; ezin zabalegia izan, bestalde, galdutako liburukiaren zati bat besterik ez izanik.

Dominique Bidegarai. Gramatika (*Rudimens basques*) eta hiztegia elkartzeaz gainera, euskararen egoera deitoratzen eta bere lanak “saltzeko” apologia erabiltzen duen lehen hiztegi gilea. Hiztegia Euskal Herritik atera gabe gaztediari latina eta frantsesa ikastea erraz zezakeen lan gisa aurkeztu zuen arren, azpian zetzan helburua —agerriki aitortua— euskara eguneratzea zen. Hala asmo-eginetan nola eramandako patuan, begi-bistakoa da bera eta Etxeberri Sarakoaren artean paralelismoak ezarri beharra.

Hiztegia, hasieran hirukoitza, laukoitz bihurtu zuen, gaztelania ere erantsiaz (euskara-latina-frantsesa-gaztelania). Baxenabarre, Zuberoa eta Lapurdiko (hurrenkera honetan) hitz guztiak biltzen omen zituen eta, egilearen esanetan, zaila zatekeen “zabalago, modernoago eta fidelagorik egitea”; honek iradoki lezake erdal eredu garaikideren bat izan zukeela. Euskal hitzetan, aipagarri zeritzon izen berezien (?) eta aditzen ugaritasuna (“l’abondance merveilleuse des noms propres et des verbes basques”), aldameneko hizkuntzak aise gainditzeko modukoa.

Joanes Etxeberri Sarakoa. Gramatika, hiztegia eta apologia ondu zituen lehena. Egitasmoaren helburuak: (1) munduko hizkuntzak ikasi behar dituzten euskaldunei lehendabizi latina irakastea; (2) euskaldunak euskaraz idaztera bultzatzea; eta (3) euskara zein altxor ederra den erakustea, behar bezala jabetu ez diren euskaldunei.

Hiztegiak bestelako lanak soilik gorde izan dira. Laukoitza zen (euskara-latina-frantsesa-gaztelania) eta, dirudenez, ez oso handia. Ziurrenik lapurterazko literatura iturri izan zuen, baina egiantzekoa da, halaber, hitzberrigintzak ere parte izatea, egilearen idatziak eta honi buruzko ideiak ezagututa.

Larramendiren aurrekari zuzen gisa aurkezteaz gainera, egiletasun auziak lexikografian nola garbi daitezkeen lantzeko aukera ematen digu, garai batean “Sbarbi-Urquijo” deitu hiztegia Etxeberrirena bera izan zitekeela pentsatu baita, edo gutxienez haren bermoldaketa.

Melchor Oyanguren. Hiztegi hirukoitza (tagalog-gaztelania-euskara), gramatika (*Arte de la lengua vascongada*) eta agian apologiatzat-edo har daitezkeen lan baten (*Cantabrisimo elucidado*) egilea. Lan ezagunak Nebrixaren gramatikan oinarrituak direnez, baliteke besteak ere halatsukoak izatea; hiztegiari dagokionez ere, gogoan har dezakegu hainbat misiolarik Nebrixarena eredu erabili zutela.

II. GORDETAKO HIZTEGIAK

Prestatu dugun gaitegiak (cf. aurreko gaia) berdin balio dezake hiztegiei buruz atera daitekeen informazioa sistematizatzeko, zeren eta, hasiera batean, hitz-zerrendetako joera berak edo beretsuak aurkitzea espero baitugu, guztiz hizkuntz hiztegi orokorretik hurbilen daudenetakoak (Voltaire, Urte eta Harriet Iparraldean; Iburgüen-Cachopin eta Mikoleta Hegoaldean), baina jakintzat eman dezakegu, halaber, tamainaz besterik ere aldatuko dela: gutxienez asmoa (dudarik gabe gorabehera handiagokoa) eta nomenklatura zabalagoak berekin dakarren guztia (ausaz iturrien erabilera zabalagoa edo hitzberrigintza indartsuagoa), adibidez. Ondokoan eskolan aurkezterakoan hiztegi bakoitzeko azpimarratuko diren alderdiak jasotzen dira:

Nicolao Landucci: *Bokabulariua ezkeraz jakiteko, ezkeraz berba egiteko.*

ASMOA.— “Hiztegia” izena merezi duen lehendabiziko lana egin zuen, inork baino berrogeitaka urte lehenago. Euskal izenburuaren arabera, luzaroan inortxok ere sumatu ez bide zuen behar bati erantzuten dio: euskaraz ikasi nahiarri, alegia.

ESKUAK.— Berriemaile euskaldunak erabili zituen: hiru esku identifikatu dira, letraz baino hizkuntz ezaugarriez are ezberdinagoak. Ez bide zuen kezkarik nolako euskara jasotzen ari zen, eta honi esker hizkera oso berezi baten lekukotasun zuzena erdietsi dugu. Izan ere, baliteke hirurak arabarrak izatea, gutxieneko kontuan A eskua: aski euskara zabarrekoa, okerrez eta mailegu gordinez betea, arkaismo eta hapax ugari ditu bestalde, bazter-hizkera baten lekuko delako seinale. Baserriko lexikoa nekez eta hirikoa ondo menderatzen duenez gero, gainera, gasteiztarra zelakoan gaude. B eskua, ordea, gipuzkeratik gertuagoko hizkera baten ordezkari dugu, euskara zuzen eta garbiagokoa.

A eskua, hiztegiko garrantzizkoena (sarreraren %96,5), badirudi ziurtasunik gabeko euskalduna izateaz gainera, “no muy buen castellano” (Larramendi) ere bazela. Maila batekoa, idazten baitzekien, Navaggiere (1528) eta Venturinoren (1571) lekukotasunen ildotik egiantzekoa da euskara noizbehinka baizik ez erabiltzea.

NOMENKLATURA.— Gaztelaniazko nomenklatura Nebrixaren gaztelania-latina hiztegitik (*Vocabulario de Romance en Latín*, 1495) hartu zuen eta laburtu, batez ere adieren

aldetik. Italiarazko hiztegiaren aldean, badirudi euskarazkoan are murriztagoa dela, jatorrizkoaren erdia baino gutxiagokoa.

EDUKIA.— Denetariko hitzak, aurrerantzean nekez aurkituko dugun arlo batekoak barne: hitz tabuak, alegia.

FORMA KANONIKOA.— Atzerritarren hitz zerrendetan bezala, honetan ere erantzun naturala espero dugu. Alabaina, harrigarriki, C eskuak gaztelaniazko infinitiboaren ordain gisa partizipio mugatua ematen du, eta bada A eskuaren adibideren bat ere.

BIZITZA.— Lehenengo aipua Mayansena da (1737: 347); honen bitartez ezagutu zuen Larramendik (1745: xxxv-xxxvi) eta hiztegian erabili. Ondoko guztiek zuzen edo zeharka handik aipatzen dute, euren begiz ikusi gabe. Larramendiren erdeinuzko hitzek (Mayansen euskararen aurkako ondorioak deusezteko idatziak) atzeratu bide zuten XX. mendean berreskuratzea: esanguratsuki, Azkuek ez zuen bere hiztegirako erabili. Agud eta Mitxelenaren argitalpenaz geroz (1958) bere patua aldatu da.

Silvain Pouvreau: Hiztegi laukoitzerako zirriborroak

Hiztegi gintzan aritu den lehen euskaldun berria. Honek ere gramatika eta hiztegia elkartzeko asmoa zeukan (hiztegian zehar “V. Gram.” laburdura erabiltzen du hari erreferentzia egiteko), baina lehenengotik zati batzuk baino ez zaizkigu iritsi.

ESKUIZKRIBUAK.— Hiru gorde dira: A esk., hiztegi osoaren zirriborroa, etengabe erabili zuena eransketak-eta egiteko; B esk., A-ren une bateko kopia garbia, zati batzuk falta dituen; eta C txikia (*arrayoa-aztoea zatia*), bere egiazko asmoa gauzatzen bide duena: hiztegi laukoitza (euskara-frantsesa-gaztelania-latina) idatzi eta argitaratzea, alegia.

MAKROEGITURA.— Antolamendu nagusia alfabetoaren araberakoa izan arren, bigarren mailan etimologikoa da, hots, hitz familiaka bildua. Hitz nagusiaren azpian elkartu-eratorriak, esapide eta kolokazioak, literatur adibideak... azaltzen dira.

ITURRIAK.— Oihenartek egindako oharrez landa (eta honen lanetatik jasotako hitzekin batera), Axular, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa (eta honen hiztegi galdua), Harizmendi eta honek moldatutako Haranbururen liburuko aipuak bildu zituen.

EREDUA.— Gaztelania Cesar Oudinen hiztegitik (*Thrésor des deux langues française et espagnole*, 1607, etab.) hartua da hitzez hitz.

GAITASUNAREN HIZTEGI.— Hizkuntzen ordena (euskara-erdara) eta literatur iturrien erabileragatik, besteak beste, oso begi onez begiratu izan zaio: XX. mendean egin behar denaren eredu bilakatua, Larramendiri aitz. “Autoritate hiztegi” balioespenari arestian “gaitasunaren hiztegi” epaia kontrajarri zaio, frogatu baita antolamendu etimologikoak hitzberrigintza automatikoa errazten eta are bilatzen duela, erdal ereduan bezalaxe.

BIZITZA.— Hiru hiztegieta eragin gehien (eta iraunkorra) izandakoa, Humboldt (1817) bere berri eman zuenetik aurrera: Aizkibel, Xaho, van Eys, Duvoisin, Maurice Harriet, Azkue, Lhande... denek iturri izan zuten.

Pierre Urte: *Dictionarium latino-cantabricum*

EREDUA.— Dударik gabe latina-ingelesa eredu bat izan zuen, azpisarrera eta fraseologia ugariz hornitua, ziurrenik garaiko elebidun handietako bat, ingelesezko arrastoak baitaude han-hemen.

AUTOMATISMOA.— Londresen egin izan arren, Donibane Lohizuneko euskara buruan zuela ondutako hiztegitzat jo dute. Haatik, arrazoi asko daude hau ere “gaitasun hiztegia” dela sinesteko; nagusia automatismoa da, hiztegiaren jaun eta jabe, hala paradigma morfologiko zenbaitetan (aditzen aurkezpena gramatikakoa bera da), nola ordain eraketan: errekursiboak izan ohi dira, hots, eskura dauden erro guztiak ordain-eredu berari (den atzizki, elkarbide edo sintagma mota) egokitzen sortuak, euskararen ahalmen guztiak agerian jartzeko moduan.

BILAKAERA.— Hiztegiaren aurreratu ahala, sarrerako ordain kopuruak gora egiten du nabarmen (A letran batz best 3,2 ordain sarrerako; C letran 10,5); honek esan nahi lezake hiztegiak gero eta automatismoaren zaleago bilakatu zela.

LARRAMENDIREN AURREKARI.— Atzizkien eta elkarbidearen erabilera anitez aberats eta ausartagoa egiten du Pouvreau hiztegiak baino (baina ez Pouvreau idazleak baino); orokorrean ez ezik, zenbait joera zehatzetan ere Larramendigandik hurbil xamar dabil.

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Urkizu (1989: III.4.3): Urteren hiztegiaren aberastasunaz jabetzeko ezinutzizkoa.

Lakarra (1994b): Aurrekoaren ondoan irakurtzekoa, Urteren hiztegitzintza behar bezala ulertzeko.

Lakarra (1995): Pouvrearen hiztegitzintzaz jabetzeko ez ezik, "gaitasunaren hiztegiak" Europan barrena nondik nora sortu ziren ulertzeko oinarrizko lana.

BIBLIOGRAFIA

Bikendi (2002). Bilbao (1991a, 1991b, 1992, 2000). Dubarat (1914). Egaña (2002). Gallina (1959). Garate (1972). Humboldt (1817). Jones (1991). Kerejeta (1991). Knörr & Zuazo (1998). Lakarra (1991, 1992b, 1993, 1994a, 1994b, 1994c, 1995, 1996a, 1996b). Mitxelena (1961, 1970). Peillen (1983). Pérez (1909). Sarasola (1976, 1998). Torrealdei (1997). Urgell (1997, 2000). Urkizu (1989). Urquijo (1907, 1909, 1910, 1934). Vinson (1881).

BOSGARREN GAIA
LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZA

HELBURUAK

Gure helburu nagusia ikasleari *Hiztegi Hirukoitza* ezagutzera ematea da, behar izanez gero filologo gisa konfiantzaz erabiltzeko gauza izan dadin. Honetarako, Larramendiren egitasmo orokorraren barruan kokatuko dugu, eta azken ikerketen emaitzarik interesgarrienak aurkeztuko.

Euskal hiztegi gintza aztertzeko metodo aldaketa hiztegi honek eragiten dituen arazoen ildotik sortu eta neurri handi batean bere azterketan oinarritu denez gero, metodoak berak ere nolabaiteko garrantzia izango du gai honetan.

EDUKIAK

I. LARRAMENDIREN EGITASMOAREN XEDEA ETA GARAPENA

1. Gaiaren bilakaera
2. Egitasmoaren garapena

II. HIZTEGI HIRUKOITZA-REN BILKETA METODOAK

1. Eranskina-ren lekukotasuna
2. Hiztegi egitasmo aldakorra
3. Antolakuntza eta erdal ereduaren erabilera
4. Euskal osagaiak
 - 4.1. Oinarri teorikoak
 - 4.2. Iturri idatziak
 - 4.2.1. Literatur iturriak
 - 4.2.2. Hiztegiak
 - 4.2.3. Euskarari buruz diharduten erdal liburuak
 - 4.3. Ahozko euskararen bilketa
 - 4.4. Antzinako osagaiak berreskuratuz
 - 4.4.1. Erdal hitzen euskal etimologia
 - 4.4.2. Toponimia eta antroponimia
 - 4.5. Neologia
 - 4.5.1. Eratorriak
 - 4.5.2. Elkartuak
 - 4.5.3. Maileguak

5. Euskal osagaien antolamendua eta erabilera

5.1. Sarrera barruko antolamendua

5.1.1. Hurrenkerakronologikoa

5.1.2. Hurrenkeralogikoa

5.1.3. Euskalkien hurrenkerak

5.2. Hiztegien zeharko erabilera

5.2.1. Ustiatutako lekukotasunak

5.2.2. Lekukotasun bakartuak

AZALPENA

Europako lexikografia guztien garapena hein handi batean aurreko hizteigileen lorpenak profitatzean eta euren akats edo hutsuneak gainditzean oinarritu denez gero, bistan da elkar ezagutzeko zailtasun eta are ezintasunak biziki eragotzi duela euskal hizteigintzarena. Tradizioaz hitz egiteko modua badugu ere, amateur bakartuen lana izan da luzaro, norberaren eginahalen araberakoa, eta etxeko lorpenei bainoago, kanpoko ereduaren erabilera gutxi-asko zentzuzkoari esker aurrera egin duena.

Orain arte bildu ditugun hamaika lanak gorabehera, eskubide osoz esan ahal izan zuen Larramendik lehentzat zeukala bere burua, bere egiteko erraldoiari lagun zekioken ezer ez baitzuen ezagutzerik izan, hiru aurrekari xumeez besterik: Landucci, Sarako Etxeberri eta Harriet.

Hala eta guztiz ere, hasiera batean ez dugu ezer berarengan aurkitzen Pouvreau, Urte edo Harrietenean jadanik ikusi ez dugunik, edo Bidegarai zein Etxeberri Sarakoarengan suposatu ezin dezakegunik: euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi edo euskarazko literatur hizkuntza hasiberria aberastu nahi izatea, honelako asmoek ezinbestean lexikoa eraberritu beharra sortzen dute hala idazleen nola hizteigileen artean. Eta behar honek irtenbide betiereko eta bakarra du non-nahi eta noiznahi ere dela: mailegutza edota hitzberrigintza, alegia.

Hizteigileen jarrera idazleena baino egituratuagoa izan ohi da: maiz hizteigintzan sartu baino lehen, edo harekin batera, gramatikaren azterketan aritu dira, eta honek betaurrean jarri die hizkuntzaren ahalmen sortzailea. Gaur jakintzat ematen ditugun erator atzizkiak edo elkarbideak, orduan banan-banan deskubritu behar izan zituzten, eta zerk zertarako balio zuen eta nola funtzionatzen zuen asmatu. Garai haietan gauzatzen dira Europako hizkuntza askoren lehen deskribapenak, eta

sarri bidenabar erdiesten dira, hizkuntza klasikoen ezaugarri hobezinak berdintzekotan edota hiztegia egiteko asmoaren ondorioz (cf. Etxeberri Sarakoa eta Larramendi).

Egoera honetatik berez bezala sortzen da “gaitasunaren hiztegia” deritzaguna, dena, daitekeena eta litekeena, denetatik biltzen duena. Alabaina, Larramendiren hiztegia (Harriet eta agian Urterenarekin batera) sail hertsiago batean sartu behar dugu, “literatur hizkuntza sortzaileak” deritzenen artean (cf. 1. gaia).

Funtsezko berdintasun hauen aldean, esan gabe doa *Hiztegi Hirukoitza-k (HH)* bereizgarriak ere badituela. Batetik, egitasmoa handinahi eta hats handiagokoa da, kultur hizkuntzen hiztegien pareko, erdal eredu erraldoiak (Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades*, = *DAut*) aditzera ematen duen bezala; pareka lekiokoen bakarra Urteren hiztegia dateke, bukatzerik izan balu. Bestetik, egitasmoari dagokionez, hitzberrigintza aberats eta ausartagoa da: aberatsagoa, euskal hitz eraketaz bestek baino informazio gehiago erdietsi zuelako; eta ausartagoa, erabili zituen askotariko gaien eta egin zuen berranalisi berezi eta bere-berezkoaren kariaz.

Alabaina, alderik handiena bere izaerarekin zerikusi gutxiago duen gertakari batean datza: argitaratua izan zen eta, honegatik besterik gabe, mugarri gertatu zen hala Hegoaldean nola Iparraldean, hala hiztegiileen nola idazleen artean, hala etxean nola kanpoan: ez dago aurrekoetan antzekorik, ez eta izaterik ere.

I. LARRAMENDIREN EGITASMOAREN XEDEA ETA GARAPENA

1. Gaiaren bilakaera

Aitzindaririk gabe ia, eta aurrekoek baino egitasmo handinahiago bat esku artean zuela, Larramendik ezinbestean hutsetik hasi beharra izan zuen, bere indarretan bakarrik fidatuta. Lana ondo ala gaizki egin zuen, hau gutxienekoa izan zen orduan: sekulako iraultza eragin zuen euskal letren munduan, eta gorabehera historikoengatik ondoko mende eta erdian ez zen izan aukerarik inork gaindi zezan (cf. hurrengo gaia).

Egoera zeharo aldatu zen XIX. mendearen azken urteetatik aurrera: Arana Goirik eta Azkuek —nork bere arrazoiengatik— erabat arbuiatu zuten Larramendiren lana, guztiz hiztegikoa, eta urte gutxiren buruan euskara idatzitik bere itzala ia osoki suntsiarazi. Hiztegiaren alorrean, Azkueren hiztegiak mugarri berri bat ezarri zuen (cf. 7. gaia). Hiztegiaren interpretazio historikoari dagokionez, harrezkero gainbehera baino ez zen joan, Azkuez geroz baliogabekotzat joa, Ibarrez geroz ondoko garbizalekeriaren iturburu bilakatu, Mitxelenaz geroz euskal lexikoaren azterketa diakronikoaren *crux* izendatua.

Arestian, Larramendiren lanak hobeto ezagutzeari eta Europako testuinguruan behar bezala kokatzeari esker, agerian utzi da aurreko hurbilketak utilitarista, anakroniko edota azterketaren eragozgarri zirela. Honek Larramendiren helburuaz ez ezik, lehenagoko eta geroagoko hiztegiileenaz ere hausnarrean aritzera behartu gaitu, eta *HH*-an sakondu beharrez hiztegien azterbideak zorroztera (cf. aurkezpeneko § 2).

2. Egitasmoaren garapena

Larramendik hiru urrats nagusiko egitasmoa garatu zuen, bata bestearen ondoan apologia (1728), gramatika (1729) eta hiztegia (1745) argitaratuaz. Lehena ezinbestekoa zen euskaldunen gogoia iraultzeko, euskararen ahalmen mugagabe sinetsaraziaz; beste biak, euskaldunak euren ama-hizkuntzan alfabetatu eta edozein gairi buruz duintasunez aritu ahal izateko azpiegitura lan nahitaezkoak. Hirurak, Europako hainbat hizkuntzatan aurkitzen ditugunen taiu berekoak.

Egitasmoa gaztelaniatik abiatuta gauzatu zuen, Hegoaldeko euskaldun jantzien kultur hizkuntzatik, hain zuzen. Hemendik hasita, egitasmo osoan zehar eraginkortasun nahia nabaria da, are honek etengabe egoerari egokitu beharra dakarrenean ere.

HIZTEGIRANZKO MUGARRIAK.— DAut-en lehen liburukiaren argitalpena (1726): Egitasmoaren pizgarria, bere esanetan, euskarari nahita ezikusia egiten zaiolako. Gramatika: Hiztegitik hasi nahi zuen arren, berehala ohartu zen euskararen legeak ezagutu gabe alferrik arituko zela. Apologia: Bertan daude hiztegi egitasmoa bera eta haren oinarri teorikoak, baita hiztegi etimologiko hasikin bat ere (cf. 3. gaia). Hizkuntz hurrenkera: Gaztelania-euskarakoa hautatzeak bide eman zion *DAut*-en liburukiak atera ahala (1726-1739) *HH* osatuaz joateko. Bataz beste 13-14 urteko lana izan bide

zen. Baionako egotaldia (1730-1733): Iparraldeko literatura ia guztia ezagutzeko egokiera. Loiolako erretiroa (1734tik aurrera): Gogoia hiztegi lanetan biltzeko, baita ahozko galdeketak egiteko aukera bikaina.

Alderantzizko hiztegia ere beharrezkotzat jo zuen, halere. Euskara-gaztelania baten hasikinak eskuizkribuan gorde ditugu: *HH*-aren bihurteta bukagabea, haren eduki osoa —zertxobait bahetuta eta emendatuta— jaso nahian egindakoa.

II. HIZTEGI HIRUKOITZA-REN BILKETA METODOAK

1. Eranskina-ren lekukotasuna

LAN-HIPOTESIAK.— (1) *HH*-aren hainbat berezitasun iturrien ñabartasunari zor zaizkio. (2) *Erans* ez da *HH*-az bestelakoa, “egiazkoagoa”, haren eranskin xumea baizik; hortaz, lehen hipotesiaren egiaztalekua izan daiteke.

IRAKASPEN NAGUSIAK.—

Iturrien ñabartasuna: Iparraldeko zein Hegoaldekoak, eta tankera guztietakoak: hiztegiak (Landucci, Harriet), literaturakoak (Axular, *RS*), hizkera ezberdinetako ahozkoak eta, neurri apalagoan, etimologia eta toponimia-antroponimiak.

Iturriekiko fidelotasuna: Arazorik ez egotera, iturrikoa kopiatzen du, besterik gabe. Akatsak zuzentzeko gai da, baina inoiz iturriko hutsak errepikatu ditu (huts bateratzaileak), zenbait irakurketa txar egiteaz gainera. Honek esan nahi du maiz *HH*-ko lekukotasunak iturriaren arrasto argiak gorde ditzakeela edozein mailatan.

Egokitzapenak eta arazoak: Iturriko informazioa egokitzeko premia lau aldetatik sortzen zaio: zalantzazko edo bereizmen gutxiko grafiek estaltzen duten forma zuzena berreraiki nahitik, itemak hiztegi formatoan ezarri beharretik (forma kanonikoa...), gaztelaniazko itzulpena eman beharretik eta, gutxiagotan, ahalik formarik oso eta egokiena eskaini nahitik. Honek arazoak sortzen dizkio batzuetan, interpretazioa eskatzen duten lanak baitira: gaizki ulertutako grafia, oker biluzitako formak, testuinguruaren edo (ustezko) etimologiaren arabera hala-hola itzulitakoak...

Analisi morfologikoa: Badirudi iturriko formaren ulerkera, egokitze eta erabileran garrantzi handia duela haren etimologiaz Larramendik izan zuen inpresioak: aldaerak ezagutzeak, atzikia antzeman uste izanak, mailegutasunak, baita elkarketak eta eratorpenak euskaraz dauzkaten jokabide eta arauz zituen iritziek ere. Ez da ezohikoa atzikiaren edo atzizkitzakoaren arabera hitzak (forman zein esanahian) ulertzea; ezta iturrian aurkitutako formek besterik gogora ekartzea (esanahikideak, aldaerak, paronimoak, interpretapen etimologikoak...).

Hitzberrigintza: Berri-berria dirudien hitzen bat gorabehera, *Erans*-ak gardenkien erakusten duen hitzberrigintza mota iturrien erabileraren alderdi bat baino ez da: iturrian aurkitutako oinarrizko forma eratortzea, edo iturrian aurkitutako eratorriaren azpian datzan oinarrizko forma erauztea.

Iturrien hurrenkera: Badirudi bata bestearen ondoan erantsi zituela: honen arrastoak daude hala sarrera konplexuetan, nola testu zenbaiten hitzak denak bateratsu sartzeagatik eginda diruditen alfabeto hurrenkeraren aurkako desbideratzeetan.

2. Hiztegi egitasmo aldakorra

A LETRAREN BEREZITASUNA.— Letra honetako bereizgarrien arabera, hiztegiak gutxienez bi idaztaldi izan zituen: A letra osoa, edo haren zati handi xamar bat, eta gainerakoa. Lehenengo idaztaldian zehar egitasmoa bakunduz doa. Gogoan hartu bide zuen, hartutako bideari jarraituz gero, ez zela hiztegia sekula bukatzeko gai izango, eta egingarriago bilakatzeko modua bilatu zuen. Ez dirudi zorakeria denik pentsatzea lehen idaztaldia Loiolara baino lehenagoko gorabehera handiko garaiari dagokiokela, eta bigarrena bertaratzearekin lotuta dagokeela.

HASIERAKO HIZTEGIA.— Gerokoa baino handinahiagoa, halaxe jarraitzera, ereduarekin zerikusi gutxi izango zukeen. Ezaugarriak: DAut inspirazio iturri: Burura datorkion guztia biltzen du, hurrenkerari gehiegi begiratu gabe, eta kupidarik gabe nahi adina kendu zein erantsiaz. Muturrerainoko eratorpen automatikoa: Oinarri guztiak atziki guztiekin konbinatzen dira, litezkeen ordainak oro jasotzearen. Argibideak: Euskal ordainen erabilera azaltzeko behar beste ematen dira, mota askotakoak; gutxieneko kontuan

adibideak eta, behar izatekotan, oharrak ere ugari. Grafia: *DAut* gainditzen du, irakurlearen ortografi zalantzak saihesteko sarbide ezberdinak eskaintzen baititu.

GEROKO HIZTEGIA.— Sarrerak uniformeago dira, dudarik gabe lan jarraikiaren ondorioz. Ziurrenik eskuizkribu bakarra izan zen, inprentara joan zena, alegia. Ez dirudi sarrerak berrantolatzeko astirik hartu zuenik, ez hiztegia garbi jartzeko, ezta osoki berrirakurtzeko ere. Eta agian hasi eta buka idatzi zuen, atzera-aurrera gehiegi begiratu gabe.

Azkar behar honetan, *DAut*-en nomenklaturari ia erabat atxikita jarduteaz gain, lehengo gai zenbait alde batera utzi zituen: Grafi istiluak, letra beraren barruan aldatu ahal izan zituenak izan ezik. Osotasun nahia: Ez du sarrerarik erantsi ohi eratorri automatikoak sartzeko, eta oinarriak eta atzizkiak aldizkatzera mugatzen da, edo oinarri batzuk soilik eratorzera. Adibideak desagertzen dira. Oharrak zeharo bakantzen ditu, eta iruzkin beharrenak (aditzen jokoa) markatzeko adierazpide normalduak bilatzen.

3. Antolakuntza eta erdal ereduaren erabilera

Nahiz oraintsu arte gure hiztegi guztiak gutxienez elebidunak izan, euskarazko alderdiari bakarrik begiratzeko ohitura handia izan dugu. Oker handia da, eredurik izan denentz jakitea eta izatekotan nola erabili den zehaztea azterketaren osagarri ezinutzizkoa baita. Lexikografiaren ikuspegitik, jakina da garaian garaiko eredu aurreratuenek garrantzi handia dutela beste hiztegitzintza tradizioen garapenean eta teknika berrien hedapenean. Lexikoaren historiaren ikuspegitik, aztertzen hasiak gara Europako hizkuntza askoren hasierako hiztegitzintza elebiduna eta norberaren hizkuntzaren lexikoa jaso eta aberasteko premiaren artean dagoen erlazioa.

HH ordura arteko eta luzaroko euskal hiztegitik handi eta aberatsena da (2 liburuki, 828 or.): gaztelaniazko 43.000 bat sarrera eta azpisarrera, 87.000 bat euskal testu-hitz, agian 40.000 bat lema ezberdin. Eta hau, oinarrian bederen, ereduari zor zaio, ez baita nolana hiko hiztegia, aurki zitekeen berri eta osoena baizik, gaztelaniazko kultura guztia itzuli ahal izateko Larramendiren asmoarekin ezin hobeto datorrena. *DAut* erraldoia (6 liburuki, 4.183 or.) berdintzeak sekulako ahalegina eskatzen du, eta hiztegitzintza, bertatik bertara nomenklatura zabala eta ordenatua lortzeaz gainera, ia

ezinbestean etengabe bertan bermatzen da: ondorioz, *DAut*-en eragina oso handia da, hala forman nola edukian, euskal ordainak ere eragiterainokoa.

Garai haietako hainbat hiztegi bezalaxe, *HH* eredu sasi-elebiduna sasi-hirueledun bihurtuaz eratutakoa dugu (cf. 1. gaia) eta, eredu bezalaxe, hizkuntz hiztegi orokorra. Izaeran elkarren antz handia izan arren, aurrean jarri baino ez, nabaria da oso hiztegi ezberdinak direla, bai tamainan, bai aurkezpenean. Bien arteko alderik handienak —eta esanguratsuenak— hiztegi elebakarra elebidun bihurtzetik datoz eta, jakina, hiztegiaren interesgunea gaztelaniatik euskarara aldatzetik.

AURKEZPEN GRAFIKOA.— *DAut*-en sarrera konplexuetako osagai ezberdinak aski ongi ezaugarritzatu eta hierarkizatuta daude. *HH*-an, aldiz, begi-kolpera bereiztezinak dira.

NOMENKLATURA MURRIZTUA.— *DAut*-eko sarrerak, adierak, esapideak eta errefrauak bakandu samartuta agertzen dira *HH*-an, hurrenkera horretan zenbat eta aurrerago, hainbat eta bakanduago. Bakanketa, jakina, *HH*-aren elebiduntasunarekin lotu behar, baita lekua irabazi beharrenekin ere, ziurrenik.

NOMENKLATURA ZABALDUA.— Zenbait hitz —batzuetan familia osoak—, adiera eta esapide eransten ditu. Eransketa interesgarrienak: (a) euskal familia etimologikoak osatzeko egiten dituenak; (b) euskal esapideak jasotzeko egindakoak.

MAKROEGITURA.— Ereduari zor dio alfabetoaren arabera antolatutako hiztegia izatea. Orobat, eredutik hartu du sarritan adieren, esapideen eta atsotitzen hurrenkera, hala nola partizipio aktibo eta pasiboak eta -se aditzak infinitiboaren ondoan emateko ohitura. Halere, Larramendik familia etimologikoak biltzeko joera dauka, eta familiaren barruan adieraren araberako azpifamiliak egiteko; bide honetatik, euskal ordainak batzuk besteetatik erosoago eratortzea eta adieren ezaugarritzatze semantikoa errepikapenik ez egitea lortzen du.

MIKROEGITURA.— *HH*-ko sarrera bakun eta laburragoa da, espero bezala. Sarrera kanonikoa bat dator hiztegi itzultzailearen gutxieneko edukiarekin: “gazt. sarrera-buru + euskal ordaina(k) + latinezko ordaina(k)”. Eduki osagarriak: (a) gaztelaniazko sarrera-buruaren adierak ezberdintzeko balio duten azalpen laburrak (sinonimoak, zehaztapenak); (b) gaztelaniazko hitz batzuen euskal etimologia; (c) euskarari buruzko gramatikazko edo semantikazko azalpenak.

EREDUAREN ERAGINA SARRERAREN OSAGAIETAN.— Gaztelaniazko azalpen laburrak bertatik hartuak dira ia beti. Latina ere bertakoa izan ohi da, nahiz eskuarki laburtua.

EREDUAREN ERAGINA EUSKAL ATALEAN.— Bai etimologia asko, bai hitz berrien osagaietako asko *DAut*-en definizioan edo etimologian oinarritzen dira. Beste hitz berri batzuk gaztelaniazko sarrera-buruaren, latinezko ordainaren eta are grekozko etimoaren kalkoak edo itzulpenak dira.

4. Euskal osagaiak

Jakintzat eman ohi dugu *HH*-ak hiru etorkiko hitzak jasotzen dituela: berriak, ahozkoak eta literaturakoak. Gaingiroki egia bada ere, *HH*-ko lehengaiak ñabarxeagoak dira eta, batez ere, sailen arteko mugak ez hain argiak. Hau ulertzeko, orain artean apologia soiltzat jotzen zen teoriaren barruan dauden ideia batzuk berreskuratu behar ditugu, euskal lexikoa bildu eta eguneratzeko Larramendik izan zituen oinarri teorikoak, hain zuzen.

Larramendi bat dator garai beretsuko beste batzuekin hizkuntza denboraz kanpoko tramankulutzat —hiztunek hartaz egiten duten erabilera arruntetik asketzat— hartzean, lege aldaezinak dituen goi-isurizko zerizantzat, eta, horietako askok bezala, ondorioztatzen du hartara jarriez gero funtsezko legeez jabetu ahalko dela. Bat dator, halaber, intuizio honen botere sortzaileaz ohartu eta hiztegi gintzara daramatenekin. Gainerantzean, lexikoaren aberastasun eta egokitasunaz egiten duen argudiaketa eta praktikan jartzeko modua —bilketa, etimologia tradizionala, morfofonologi analisiaren hasikin zenbait eta hitz berrigintza uztartuaz— bere-bereak dira.

ABERASTASUN MOTAK.— Feijooen ustetan (1726), hizkuntza baten aberastasuna frogatzeko aintzat hartu ohi diren hiru ezaugarrietatik —*copia, propiedad y armonía*—, *copia* (hitz oparotasuna) bakarrik jo daiteke ziur eta nabaritzat. Hertsapen hau oso gogorra da gutxi landu izan diren hizkuntzentzat; honegatik Larramendik nahiago du aberastasun mota bi bereizi: formala edo berezkoa, eta materiala edo erantsia (halabeharrezkoa).

HITZ MOTAK.— Larramendik bi hitz mota bereizten ditu: Ohiko hitzak: Bere ustez hasieran euskara bere aberastasun formalak aditzera ematen duen bezain aberatsa zen aberastasun materialean ere, baina antzinako *copia* hura egun euskalkietan

barreiatuta dago. Jakintza eta teknikako hitzak (“voces facultativas”): Euskarak eguneratu beharra daukanez, edozein hizkuntzak bezala bi aukera ditu: maileguak onartzea edo berezko ordainak sortzea; eta berak bigarren bidea hobesten du.

Funtsean Larramendik hiru alditan lan egin zuen:

BILKETA.— Antzinako copia-ren sakabanatze geografikotik eratortzen da euskalki guztietako hiztunengandik eta liburuetatik ahal beste hitz bildu beharra. Frogatuta dago Larramendik galdeketa zabalak egin zituela, euskalki eta hizkera askotarikoak. Frogatuta dago, berebat, aurreko euskal literatura ia guztia hustu zuela, baita helmenean izan zituen hiztegi urriak ere.

Euskarak Babeldik hona aldagabe iraun du. Ideia honetatik eratortzen da denboraren aldetik ere bilketa lana egin behar dela, eta honen emaitzak euskal lexikoan eskubide osoz —ez arkaismo gisa— sartzekoak direla. Iturri bitara jotzen du: Toponimia eta Antroponimia: Euskararen antzinatasuna eta hedadura frogatzeko mendeetan erabiliak izan ondoren, ez gaitu harritu behar Larramendik arlo hauetan antzinako hizkuntzaren fosilak bilatzeak. Etimologia: Bere ustetan euskararekin harremanen bat izan duten hizkuntzek euskal maileguak gorde dituzte, batzuetan egungo euskararen bizirik ez direnak. Beraz, etimologiek hiztegia elikatzen dute, mailegu sustraituez “jabetzeko” eta haien itzalpean mailegu berriak egiteko deretxa emanez.

BERRANALISIA.— Bildutakoak oro berranalisiaren bahetik igaro zituen, erroak, atzizkiak eta elkarbideak lortzeko. Anlisiaren ondorioak eskuarki agerian jartzen ez dituenek, zatika bakarrik ezagutzen ditugu oraindik, baina badirudi ez daukatela parerik aurreko hiztegi eta gramatikagileek erabiltzen dituztenekin. Alderdirik nabariena: Euskal atzizki mordoak identifikatzea: Ondorioz, *HH*-ko eratorpen bidezko hitzberrigintza oso ñabarra da. Morfema mugan gertatzen diren (edo ziren) hots-aldaketa zenbaitez oihartzea: Badirudi zuzen igarritako hainbatekin batera, oker ulertutakoak ere ugaritxo direla. Baliteke honetan egotea *HH*-ko elkartu askoren ohiz kanpoko itxuraren zioa. Halaber, dudarik gabe erlazonatuta daude testuinguru eta alomorfoaren arteko erlazioaren galerarekin eta atzizki zenbaiten alomorfo ezezagunak erabiltzearekin.

HITZBERRIGINTZA.— Euskal hitzak motibatuak —ez arbitrarioak— dira. Beraz, behar bezalako berriak egiteko, eraketaren aldetik legeak errespetatzeaz gainera, filosofikoki euskararen bereizgarri hau ere gorde beharrekoa da. Hitz berri kratilikoak nola egiten diren jakiteko, aski da Covarrubiasen definizioa norabidez aldatzea: “En la etimología de cada vocablo está encerrado el ser de la cosa, sus cualidades, su uso, su materia, su forma, y de algunas dellas toma nombre” (s.v. *etimología*). Eta badakigu nondik atera zituen Larramendik osagaiak —Covarrubiasen harako *horietako batzuk* hura—: nagusiki *DAut*-eko informaziotik (cf. § 3).

Hauxe da *HH*-ko hitzen iturburu nagusia: itemen %80 inguru lehen lekukotasunak dira; artean hitz herrikoiak ere asko izan arren (%14tik gora), esanguratsua da gehienak eratorriak (%50) edo elkartuak (%22) izatea. Izan ere, elkartu-eratorrien %90 lehen lekukotasunak dira, eta neurri handi batean eredu jakinen gainean eratuak: ezer baino lehenago gaitasunaren hiztegi delako seinale ezin argiangoak.

5. Euskal osagaien antolamendua eta erabilera

DAut-ekin eta bere gaitasunarekin lotuago dauden osagaiak —bere buruaz beste indarrak eskatzen ez dutenak— gehienbat lehen unean bertan barneratuta dirudite, ereduko sarrera irakurri eta bururatu ahala, gaztelaniazko azalpenak eta latinezko ordainak erabakitzearekin bateratsu: definizioak, ordain perifrastiko eta zehazgabeak, kalkoak, mailegu berriak, *DAut*-ek eskainitako informaziotik sortutako hitz berriak eta etimologiak, baita bere hizkerako hitz eta esapideak ere.

Bilketa lanetik datozenak, aldiz, hiztegia ondu bitartean edota bukatu aurretik egindako eransketak izan litezke, lehen osagai horien ondoan baitaude eskuarki. Halere, argi dago ahaleginean irizpide trinkoagoak erabili direla: ordainaren izaera (bakuna vs perifrastikoa, jatorrizkoa vs mailegua), familiakidetasuna (aldaerak eta familiakideak biltzeko joera) eta euskalkia (G, B, L hurrenkera).

Iturri ezberdinetako datu hauek etengabe erdiesten zituenez, batzuk astiro erabili zituen, hiztegiaren hutsuneak (famiakideak, sinonimoak) haietaz edo haietatik ateratako elkartu-eratorriez hornitzeko; azken ordukoak, berriz, doi-doi jaso zituen, gehiago gabe, edo *Erans*-erako utzi.

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Lakarra (1985a): Larramendiren egitasmo orokorra behar bezala ulertzeko eta Etxeberri Sarakoarenarekin dituen kidesunez jabetzeko oinarritzkoa.

Sarasola (1986): Larramendiren eraginaz datu erabakigarri eta intuizio bikainez beterikako lana.

Urgell (1998a: "Sarrera"): Azterketa lexikografikoan ereduak daukan garrantziari buruzko argudio ezberdinen bilduma.

BIBLIOGRAFIA

Altuna (1967). Azkarate (1992). Azkue (1905-1906). Ibar (1935). Lakarra (1985a, 1985b, 1991, 1992b, 1993, 1994a, 1996a). Mitxelena (1958, 1959, 1961, 1970, 1983a, 1983b, 1984). Sarasola (1986, 1998). Urgell (1992a, 1996, 1998a, 1998b, 1999a, 1999b, 2000, 2001a, 2001c, 2001d, 2002a, 2002b, 2003a, 2003b).

SEIGARREN GAIA
LARRAMENDIREN ONDORENGO HIZTEGIGINTZA (1745-1905)

HELBURUAK

1745 ondoren eta Azkueren hiztegia argitaratu arteko (1905-1906) hiztezigintzaren ikuspegi orokorra eskaini nahi genioke ikasleari: nondik sortzen den eta zer berri dakarren euskal tradizioaren barruan.

Asmo honekin, garai aberats honetako lexikografi lanen zerrenda ahalik osoena eratzeko ahalegina egin dugun arren, mota nagusi, arrakastatsu eta berrienetan jarriko dugu arreta gehiena, eta garaiko ezaugarriak azalera saiatuko gara, adibide esanguratsu zenbaiten laguntzarekin.

EDUKIAK

I. LEXIKOGRAFI LAN MOTAK

1. Hiztegi orokorrak

1.1. Galdutakoak

1.2. Hiztegi handiak (40.000 sarreratik gorakoak)

1.3. Hiztegi txikiak (10.000 sarreratik beherakoak)

1.4. Gramatiketako hiztegiak

1.5. Hitz-zerrendak

1.6. Atzerritarren hiztegiak

2. Hiztegi bereziak

2.1. Euskalki hiztegiak

2.2. Landare hiztegiak eta beste

2.3. Glosarioak eta eranskinak

2.4. Etimologi hiztegiak eta zerrendak

2.5. Klasikoen lexikoiak

2.6. Euskal Herriko erdararen hiztegiak

2.7. Deitura hiztegiak

3. Hizkuntz eskuliburuak

II. *HIZTEGI HIRUKOITZA*-REN ALDERANTZIZKOA ETA EUSKARA-ERDARA ORDENA

III. LEXIKOGRAFI TEKNIKEN ERABERRITZEA

1. Sarrera sakabanatzearen bukaera
2. Gramatika kategoriak
3. Izenkien forma kanonikoa
4. Aditzen forma kanonikoa
5. Euskalki markak
6. Adibideak eta erreferentziak
7. Beste berrikuntza batzuk
 - 7.1. Bidalketa-deiak
 - 7.2. Sinonimoak

AZALPENA

Zenbat eta ikertuago, hainbat eta argiago dago Larramendiren hiztegiaren eragina erabatekoa izan zela garai honetako hiztegi gintzan, pare bat salbuespenekin. Azkuek honegatik arbuia zuten hiztegiez gainera (Novia, Fabre eta, ia-ia, Aizkibel), are argitaratzaile modernoek Larramendiren eragin gutxikotzat, beren kabuzko bilketatik lortutako hitz jatorrez betetakotzat aurkeztu dituzten hiztegietan (Añibarro, Odriozola), ikuspegi utilitaristatik “salbatzeko” asmoz edo, *HH*-aren ekarria %70-90 bitartekoa izaten da; areago, azkenotan ohartu ahal izan gara, hiztegi originalak berak ere itxuraz bakarrik daudela eragin horretatik at (cf. Duvoisin).

Izan ere, Larramendiren eragina ez da mugatzen ageriko alderdietara (hitz berri nabarmenak, etimologiadun maileguak): hitz “arruntak” eta ohiko hitzen aldaeren arteko hautuak ere horren adierazgarri ditugu, ez hain begi-bistako, baina (horregatik ere) besteak baino iraunkorragoak.

Bi mendetan zehar (1562-1745) euskal lexikografiaren gaitz larriena aurreko lanak ezagutzeko eta, beraz, tradizio bati atxikitzeko zailtasuna izan zen (cf. 4 eta 5. gaiak). *Hiztegi Hirukoitza*-ren argitalpenak egoera behin betiko aldatu zuen. Alde honetatik, Sarasolarekin bat, “Larramendiren paradigmaz” hitz egin dezakegu garai honetako hiztegi gintza definitzerakoan: XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera eta XIX. mende osoan zehar, *HH* nahitaezko erreferente lexikografiko bihurtu zen, euskal lexikoaz ezer egiteko —ikasi zein irakasteko, bildu, aberastu zein aztertze— abiapuntu.

Halere, ez da erreferente bakarra: aurreko hiztegi eskuizkribatuak zerrendatu eta berreskuratzeko ahaleginak egiten dira, inoiz arrakastarik gabe bada ere (Landucci). Bide honetatik Pouvreau (Humboldt, van Eys, Aizkibel, Duvoisin...), Aizpitarte (Humboldt,

Aizkibel) eta Astarloaren lanek (Humboldt), besteak beste, geroko hiztegiak aberasten dituzte.

Honek ez du esan nahi egoera normaldu zenik. Garai honetako lanen zerrenda (cf. eranskina), argitaratuetara mugaturik ere, hainbestekoa da, alderdi soziolinguistiko eta kulturalean zer edo zer aldatzen hasi zelako seinale; haatik, gorabehera historikoek euskal lan askoren argitalpena atzeratu egin zuten (batzuetan *sine die*) eta, beti bezala, lan teknikoak kaltetuenak izan ziren, guztiz hiztegiak: aurreko garaian bezalaxe, batzuk gaur galdutzat jotzen dira (Astarloa, Humboldt, Lécuse, Iturriaga, Lardizabal).

Dena dela, garai hau ez da beti bat eta bera, ezta alderdi horri dagokionez. Argi pixka bat egiteko asmoz, hiru azpigarai ezar ditzakegu, bi argitalpen mugarri hartuz: *HH*-aren bigarrena (1853) eta Aizkibelen hiztegiarena (1883):

1) 1745-1852: Hegoaldekoak dira orain arloari nagusiki eusten diotenak, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen (EHAE) egitarautik hasita (1773). Mota ezberdineko lanak nahiko agertzen dira, baina denborak txarrak izan eta burutzen direnak ere ez dira inprentara iristen, ez bada lan txikiak: liburuxkak (Mogel, 1801), gramatiketako hiztegitxoak (Lécuse, 1826) eta hizkuntz eskuliburuak (Astigarraga, 1825). Galdutako hiztegiak hasierako garai honetakoak dira guztiak.

2) 1853-1883: Larramendiren berrargitalpenarekin (1853) azkenik ere aurreko garaia gertu gero asmoa lortzen da (cf. Iturriaga, Lécuse). Izan ere, bestelako giroa sumatzen da oro har, Iturriagaren *Arte de aprender a hablar la lengua castellana...* delakoaren argitalpenaz geroz (1841) behinik behin, eta gertu dagoen masa kritiko baten seinaleztat har dezakegu; dena den, oraindik ere ez dago ia ezer argitaratzerik Hegoaldean, hizkuntz eskuliburuak izan ezik. Hauxe da Manterolak (lehenago Astigarragak bezala) ematen duen aitzakia, hain zuzen.

Iparraldeak aurrea hartzen du orain: Xahoren hiztegiaren argitalpen bukagabetik hasita (1855), Salaberri (1856), Fabre (1870) eta van Eysenak (1873) ikusten dute argia, lan xume zenbaitekin batera.

3) 1883-1905: Foruen desagerpenari (1876) egotzi ohi zaio mendearen azken laurdenean gertatzen den susperraldia. Gure arloan behintzat, aldaketa erabatekotzat jo dezakegu: 1883tik aurrera, emanaldika, Aizkibelen hiztegi erraldoia argitaratzen da,

harpidedunei esker, eta 1887an Novia de Salcedorena. Garai honetan aurkitzen ditugun ia lan guztiak argitalpenak dira, eta ñabar xamarrek.

Labur bilduz, garaia oso emankorra izan zen, baina baita oso gorabeheratsua ere. Esan behar dugu, bestalde, oraingo azal-azalek baino ez dugula ezagutzen: obren zerrenda osatzeak berak lanak ditu, eta ez bide dugu behar bestean gainditu hiztegitik zintzo eta baliogabeen arteko dikotomia (cf. Novia). Nolanahi ere den, garai hau definitzerakoan, badirudi hasteko gutxienez hiru alderdi aintzat hartu beharrekoak direla: (1) lanen ñabartasuna (tamainan, xedean...), ordura arte parerik ez duena; (2) Larramendiren eragina, hala lexikoa nola lexikografikoa; (3) lexikografi tekniken eraberritzea. Aldatzen ez den gauza bakarra: elebiduntasuna.

I. LEXIKOGRAFI LAN MOTAK

Argitaratzea erraza ez izan arren, euskalariak askotariko lanetan sartzen dira; argitaratuak eurak inoizko ñabarrenak dira, guztiz XIX. mendearen bigarren zatian.

Hizkuntz hiztegi orokorrak

Lan gehienak, gaingiroki mintzaturik, hizkuntz hiztegi orokor elebidunak dira, hirueledunak edo sasi-hirueledunak (gazt. eta fr.: L cluse, Manterola, Agirre, Darricarrere; gazt. eta lat.: Novia), laueledunak (gehi latina: SbUrq eta Xaho) eta eleaniztunak (Bela) falta ez badira ere. 1902 arte (Lopez Mendizabal) ez dago norabide biko hiztegitik, gramatiketako ez besterik (L cluse, G ze), ohi bezala; halere, batzuetan alderantzizko aurkibidea eskaintzen da (Novia, Lakoizketa).

Tamainan, gehienbat bi muturretan biltzen dira:

a) Hiztegi erraldoiak (40.000 sarreratik gorakoak), haien artean oraintsu arteko hiztegitik handiena (Harriet). Badirudi *HH*-ak hautsi beharreko marka ezarri zuela. Halere, hauek dira okerren dabilzanak, ez bakarrik argitaratzeko, baita are burutzeko ere: cf. EHAE-ren egitasmo bugakabea, Xahoren hiztegiaren zati bat soilik argitaratua, L cluse harpidedunik bildu ezinik-edo azkenean galdua, Harriet eta Duvoisin argitaragabeak, Aizkibel eta Novia egilea hil ondoan argitaratuak...

b) Ez dago lan ertainik, antza denez; gainerako guztiak, ezagutzen ditugun neurrian, 10.000 sarreratik beherakoak dira. Hauetatik Iparraldekoak bakarrik argitaratzen dira, guztiz 1850 ondokoak.

Atzerritarren ohiko hiztegiez gainera (Bullet, Goldmann; cf. 3. gaia), garai honetan lehenengoz euskalari atzerritarrek egindako hiztegi homologagarriak aurkitzen ditugu (Humboldt, Lécuse, van Eys), euskaldunek aintzat hartuak, erabiliak eta geroko hiztegitintzan (aukera izan zen heinean) eraginkorrak.

Hizkuntz eskuliburuak

Azpimarratzekoa da oso, hizkuntz eskuliburuak garai honetan hartzen duten garrantzia. Astigarraga (1825) *best seller* erabatekoa da, nekez berdintzekoa: 44 argitaraldi zenbatu dira, eta Arrese-Beitiak (1884) bizkaierara itzuli zuen. Azkueren mugarrira gainditu zuen lan lexikografiko bakarra dugu, nahiz eta garai berriari egokituta, nonbait. Euskara oinarritzko hezkuntzan irakasteko pentsatutakoa da (cf. Iturriaga). Lexikografi edukia kategoriara txertatuta dago gramatika azalpenetan, eta izenak gaika antolatuta, betiko moduan *Jaungoiko*-tik hasita.

Haur euskaldunei gaztelania erakusteko egindakoa dugu Egurenen *Metodoa*. Gainerakoak bidaiarientzat —zehatzago turistentzat— eginak dira. Egurenen *Guía*-k bi zati ditu: “Vocabulario castellano-vascongado”, izenkiak eta aditzak bereiz ematen dituena, eta bi sailak gaika antolatuak, eta “Ejercicios sobre la declinación, conjugación y diferentes formas de construcción”. Latasarena, izenburuaren arabera, gazt.-fr.-ingeleza-euskara hiztegi txikia da, marrazkiduna.

Euskalki hiztegiak

Hauxe da garai honetako bereizgarrienetako bat: zuzenean lotu behar dugu Bonaparteren eraginarekin (cf. Salaberri, Otaegi) eta zeharka dialektologiak Europan barrena XIX. mendean izan zuen garrantziarekin. Erlazioa dauka, halaber, Larramendiz geroz euskalkiak markatzeko joera handiarekin (ik. beherago, § III).

Landare hiztegiak

Euskaraz egin izan diren lehen hiztegi berezituak, denak landare hiztegiak dira, bi argitaratu (Lakoizketa, Althabe) eta egile ezezaguneko argitaragabe bat, botanikazaletasuna gurean indarrez sartu zelako seinale.

Etimologiazaletasuna eta hiztegi etimologikoa

Garai honetako hiztegien funtsezko osagarria izaten da etimologia, dela informazio lagungarri (Iztueta, Hiribarren, Manterola, Lakoizketa... baita EHAE ere), dela nomenklaturaren erabakitzailer (Xaho: maileguak eta hitz jatorrak hiztegi banatan) edo antolatzaile (van Eys, Harriet). Ez da harrigarria, bada, Noviari hiztegi etimologikoa egitea bururatzea.

Lorpenek ia ez dute jakin-minik sortu orain arte, ezin konta ahala etimologia fantasiatsu eta okerren artean ezkutatuta daudelako, nonbait. Noviaren hiztegiak berak baduke interesik, halere. Bi etimologibide erabiltzen ditu, maiz biak elkarrekin: tradiziozkoa, morfologian batez ere oinarritutakoa, eta berria (astarloarra), cratilismo fonologikoa oinarritutakoa. Bigarrena hizkuntzaren deskribapenean hotsak garrantzia hartuaz doazen garai baten isla hutsa bide den bitartean, lehenengoan ohartzekoak dira, gutxieneko kontuan: (1) hamaika atzizki eta elkarbideren esplizitazioa, sarri ziuurrenik lehendabizikoz; (2) Larramendiren elkartu zatikagaitzen bere kabuzko azalpenak eta erator atzizkien alomorfo ezezagunen identifikazioak, batzuk eta besteak maiz zuzenak.

II. HIZTEGI HIRUKOITZA-REN ALDERANTZIZKOA ETA EUSKARA-ERDARA ORDENA

Garai honetako temarik nabarientetako bat euskara-erdara hiztegi handia lortzea dugu, eta honek hautsi egiten du ordura arte erdara-euskara hiztegiak egiteko Hegoaldeko joera. Hiztegi handi guztiek euskara dute iturri-hizkuntza, baita txikietako gehienek ere. Arrazoi nagusiak bi dira: (1) Gehien aipatzen dena: ikertzaileari euskal lexikoa eroso eskaintzea (EHAE, Humboldt, Aizkibel...); (2) Abbadiek ematen digu bigarrenaren lekukotasun ezinutzizkoa: "Si su Dueño no quiere vendérmelo

[Larramendiren hiztegia] por ochenta pesetas, me quedaré sin ello, como que el que va a salir a luz [...] me será de mayor utilidad para escribir en bascuence, pues que empieza cada artículo por la voz bascongada, ventaja que no tiene el de Larramendi" (Iztuetari, 1827-X-20ko gutuna).

Nolanahi ere den, euskal hiztezigile askorentzat, lanari hasiera emateko bide naturala *HH* atzekoz aurrera jartzea da, gero honi bestelako gaiak erants badakizkioke ere. Batzuk lanaren fase honetan geratu ziren nahigabe (Aizpitarte) edo nahita (Humboldt, gero honekin oraindik ezagutzen ez dugun *Primitiva* osatzeko); beste batzuek lana bukatu zuten askoz urrunago iritsi gabe (Lécluse, Aizkibel, Novia...); Harrietek bakarrik lortu zuen alde askotatik aberatsago den hiztegia egitea. Dakusgunez, *HH*-aren alderantzizkoa hiztegi handien oinarrizko gaia dugu, Duvoisinin salbuespen garaiarekin. Larramendik berak egindako hasikina ez da erabat ezezaguna (Arana 1880), baina ez zen inor hartaz baliatu, dakigularik.

III. LEXIKOGRAFI TEKNIKEN ERABERRITZEA

Batzuetan Europako berrikuntzak bere eginda (ereduak aztertu gabe daude, baina), bestetan berezko premiek hartaratuta, garai honetan hamaika alderditan aldatzen da euskal hiztegiaren itxura. Bi izen aipatu behar dira berritzaile nagusi eta aitzindari gisa: Xaho (1855-56) eta Salaberri (1856).

Sarrera sakabanatzearen bukaera

Nahiz osoki eta betiko izan ez, esan daiteke hiztegi zaharren sarrera sakabanaketa Xahoren hiztegiarekin bukatzen dela, sarrera-buruari buruzko informazio guzti-guztia lerrokada berean ematen baitu, eta sarrerako osagaiak lehenengoz zeinuen bitartez bereizten: marra zut edo plekak (|) bereizten ditu frantses ordain-definizioak gaztelaniazkoetatik; gurutzeak (†) latinezkoak, eta lerrokada zeinuak (§) etimologi azalpenak edota "Tabl. gram."-erako (gramatika taulak) deiak.

Atzera-aurrerak egon arren, ondoko hiztegi gehienetan sarrerak itxura modernoa dauka, osagai guztiak edo ia sarrera-buruaren azpian nola edo hala bilduta,

eta bi eratara bereizita: (1) zeinuen bitartez: ohikoena pleka bikoitza da (||): Fabre, Gèze, Harriet, Aizkibel; (2) letra tipoen bitartez: Van Eys, Manterola.

Hauetan tradiziozkoena Aizkibel da: esapideak, konparatibo eta superlatiboak, adizkiak... zeinek bere sarrera daukate, guztiz hiztegiaren hasieran. Eta berritzaileena Harriet: adierak zenbatzen dituen lehena dugu (1^o, 2^o...), baita homofonoak ere (I, II...).

Gramatika kategoriak

Kategoriaka antolatutako zerrendetan izan ezik (cf. Urte), XIX. mendearen erdialderaino ez dugu aurkitzen euskal hitzen gramatika-kategoria adierazten duenik, nahiz EHAE-ren egitasmoan jadanik jasota egon (“Se ha de individualizar en cada artículo o voz, qué parte de la oración sea...”, § 3^o, 1^o).

Berrikuntza Salaberriri zor zaio, baina Xahok ere frantses eta gaztelaniazko ordainak sistematikoki markatzen ditu, eta euskarazkoetarako gramatikazko tauletara bidaltzen. Halere, ez zen orduan orokortu, ezta XX. mendearen zati on batean (cf. hurrengo gaiak): garai honetako salbuespen bakarra Gèze dugu. Fabrek frantses sarrera-buruena bakarrik ematen du, van Eysek gutxi-gutxitan baino ez (antza, definiziorik ez duten “interj.” bezalakoetan soilik) eta Duvoisinek beharrezkoa deritzanean bakarrik (kategoria bikoitzekoetan: “adj. eta subst.”).

Izenkien forma kanonikoa

Lehen hiztegiileen zalantzetatik (cf. 3. gaia) nominatibo singular mugatua orokortzera igaro zen, eta halaxe mantenduko da indarrez XX. menderaino: eskuliburuez gainera, Añibarro, Lécluse, Iztueta, Fabre, Harriet, Aizkibel, Novia eta Lakoizketa, denak tradizio hari atxikitzen zaizkio.

Berrikuntza Iparraldekoa da, eta lehen urratsa Xahoren hiztegiakoa, sarrera-buru mugagabe ematen baitu, eta mugatzailea argi bereizita (CROCODILO, — A). Sistema beretsua darabil Manterolak, Xahorengan ikasitakoa inolaz ere (*abere-a*). Salaberrik ematen du lehenengoz mugagabe soila sarrera-buruan (Bonaparteren eraginez, ziurrenik), eta ondotik van Eys, Gèze eta Duvoisinek ere. Arxu erdibidean geratzen da: izenak mugaturik, frantsesez ere (“*Bazterra*, le bord”), eta izenondoak mugagabean (“*Aberats*, riche”).

Aditzen forma kanonikoa

Hegoaldean kontua egonean dago gehienbat: aditzaren forma kanonikoa beti ere partizipio mugagabea da, eta tradizio honi lotzen zaio Lécluse *Gorputza*-n.

Konpondu gabe dago, hala Hegoaldean nola Iparraldean, partizipio mugatuaren gaia, partizipio erromantzearen ohiko ordaina. Garai honetan jadanik gutxi ikusten dira: bat edo bat Añibarro, Lécluseren *Manual* eta, batez ere, Fabre eta Aizkibelengan, baina ez, oso oker ez banago, gainerako hiztegietan.

Interesgarriago dugu Iparraldean sortzen den arazoa. Hemen tradiziozko forma kanonikoa aditizena da, Lécluseren *Manual*, Arxu eta Fabrerengan topatzen duguna, baina ez da garai honetako ohikoena, ez da “modernoa”. Izan ere, Xaho berritzaileak euskal lexikografiaren historian lehen aldiz aditzoina sarrera-buru jartzen du, partizipio eta aditizenez atzizkiak ondoren dituela (CRISTALISA, tu, tze, etc.). Sistema ezin ekonomikoagoa izan arren, Duvoisin da bere jarraitzaile bakarra (*sosega, tze, tu* edo *sosegaraz, te, i*). Dena dela, harrezkero aditzoinak garrantzia hartzen du ondoko hiztegie batzuetan, sarrera-buruko lehen forma edo forma nagusi bihurtuta: Salaberri (*protesta, protesta-tu*), Géze (eusk.-fr.: *Orhit, orhitze, orhitu*; fr. -eusk.: *orhit*).

Van Eysek, buruan gipuzkerazko formak eman ohi dituzenez, partizipioa eta aditizena hautatzen ditu sarrera-buru (*tolestu, tolestutzen*), edo partizipioa bakarrik (*tirriatu*); Manterolak bere egiten du sistema (*abiatu, abiatzen*), arlo honetan ere berritzaile ageri den Hegoaldeko bakarra.

Harrietek erabiltzen du sistematik garestiena, sarrera-buru aditizena jarri ondoren, eman beharreko bilakatu diren forma guztien bilduma egiten baitu (PISATCEA, *pisa, pisatu, pisatcen*).

Euskalki markak

Larramendik berriaz hitzen etorkia ez zehaztea erabaki bazuen ere (cf. 5. gaia), ia bere ondorengo guztiek egiten dute, zio ezberdinengatik. Jadanik EHAE-ren egitasmoan jasotzen da honen beharra (“...en cada voz se ha de advertir el Dialecto a que pertenece...” § 3º, 7º). Euskalki markak, eskuarki laburduren bitartez adieraziak, beti edo ia beti ematen dituzte batzuek (Añibarro, van Eys, Manterola, Harriet), eta

aldizka besteek (Iztueta, Xaho, Duvoisin, Aizkibel, Lakoizketa...). Xaho da sistematikoki laburdurarik erabiltzen ez duen bakarra (“*Cristau et Cristinau* sont du dialecte cantabre; *Khirsti* est du dialecte vasco-souletin”).

Oso orokorrak izan ohi dira (euskalki nagusiak) eta, dena sailkatu beharrez, ardura belarriz ebatziak, edo iturriaren arabekoak (Larramendi = gipuzkera). Han-hemen zehaztasun gehiago eta egozpen ziurragoak aurkitzen dira, halere.

Adibideak eta erreferentziak

Larramendiz geroko denboran testuak hustea euskal nomenklatura sortu edo hazteko bide usua da (cf. Manterola). Hiztegi handiek (Harriet, Duvoisin, Aizkibel) adibideak ugari dakartzate, batez ere literaturakoak, hitzaren erabileraren argibide edo egiaztabide, nahiz egokituak izan (Harriet) edo batzuetan erreferentziara mugatu (Aizkibel). Txikiago zenbaitetan ere adibideak agertzen dira, gehiago edo gutxiago, ahozkoak (Salaberri), asmatuak (Hiribarren) edo irakurriak (van Eys). Hauen aldean, hiztegi orokortzat nekez har daitezkeenak (Zabala, Iztueta) hein handi batean han-hemen entzun edo irakurritako hitz, adibide eta esapide bildumak dira funtsean.

Salbuespenak albuespen, iturriak zintzo aitortu ohi dira, eskuarki laburduren bitartez (van Eys, Harriet, Duvoisin, Aizkibel...).

Beste berrikuntza batzuk

BIDALTZE-DEIAK.— Hiztegiaskok aldaerak lotzeko, eta hala ohiko informazioa batean bakarrik emateko erabiltzen dituzte (Xaho, van Eys, Manterola, Harriet, Duvoisin, Novia).

SINONIMOAK.— Bi hiztegitan sinonimoek atal egonkorra osatzen dute, laburduraz markatua: Manterola (Sin.) eta Harrietenean (Sy.).

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Knörr (1985): Oraindik ere Harrieten hiztegiaren aurkezpenik zuhurrena.

Lakarra (1985b): Larramendiren "segiziokoen" giroaz jabetzen hasteko lan garrantzizkoa.

Urkizu (1991): Xaho hiztegiari arreta jarri dion lan bakarra; hitzaurrearen aurkezpen eta hiztegiaren balioztatze egokiak eskaintzen ditu.

BIBLIOGRAFIA

Altuna (1985). Aquesolo (1967). Arana (1880). Aranbarri (2002). Azkue (1925). Bilbao (1978-1981). Cubero (2002). Echenique (1985). Etxebarria (1990, 1991, 1994). Fita (1881). Garate (1936, 1971). Garmendia (1968). Genette (1972-1973). Hirigoyen (xxx). Humboldt (1817). Kerejeta (1997). Knörr (1981, 1986, 1987, 1995). Lakarra (1985a, 1985b, 1993). Lakarra & Urgell (1988). Lhande (1926). Manterola (1880). Manterola Agirre (2002). Mitxelena (1965, 1970). Peillen (1983). Polin (2002). Sarasola (1998). Sorarrain (1891). Urgell (1995, 1997, 1999b, 2001b, 2003c). Urkizu (1991, 1996). Villasante (1963). Vinson (1877, 1891-1898).

ZAZPIGARREN GAIA
AZKUEREN GARAIA (1905-1970)

HELBURUAK

Azkueren hiztegia eta ondorengoak aztertuko ditugu. Garrantzizkoa da ikasleak ulertzea euskaltzaletasunaren gorakadak hiztegi gintzan izan zituen ondorio onuragarriak eta, aldi berean, garbizalekeri giroak hiztegi gileei sortu zizkien arazoak, maileguak uxarazi eta ordezeko eredu argirik proposatu gabe.

Testuinguru historikoaz gain, Azkueren hiztegiaren on-gaitzak oinarri izango ditugu, aurreko garaiarekiko zer aldatu zen eta zer ez mugatzeko, eta aurrerantzean euskal lexikografiak hartu zituen bideez jabetzeko, beti bezala adibide sorta baten laguntzarekin.

EDUKIAK

I. AZKUEREN *DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS* (1905-1906)

1. Euskal nomenklaturaren hautapena

- 1.1. Herriaren autoritatea
- 1.2. Maileguak
- 1.3. Hitz berriak
- 1.4. Euskararen denborazkanpokotasuna

2. Alderdi teknikoak

- 2.1. Filologian
- 2.2. Dialektologian
- 2.3. Lexikografian
 - 2.3.1. Sarreraren definizioa eta antolakuntza
 - 2.3.2. Gramatika-kategoriak
 - 2.3.3. Hirukoitzaren arazoak

II. *DVEF* ONDORENGO HIZTEGIGINTZA

1. Hiztegigintza merkatuan

2. Egitasmo garaia

3. Lan motak

- 3.1. Hiztegi orokorrak
- 3.2. Hiztegi bereziak
- 3.3. Glosarioak
- 3.4. Hizkuntz eskuliburuak

4. Azkue osatu (eta zuzendu) beharrez

5. Erdara-euskara hiztegiaren arazoa

6. Hiztegi orokorren ezaugarriak

6.1. Elebiduntasuna

6.2. Nomenklaturaren oinarria

6.3. Garbizaletasuna (I): maileguak

6.4. Garbizaletasuna (II): hitz berriak

6.4.1. "Gaizki eraturako" hitz berriak

6.4.2. Elkartu gardenak

6.5. Aldaera pilaketa

6.6. Idazleen autoritatea

6.7. Hegoaldekotasuna

6.8. Hitzak eta terminoak

7. Lexikografi tekniketako geraldia

7.1. Adierak

7.2. Forma kanonikoa

7.3. Gramatika-kategoria

7.4. Euskalki-markak

7.5. Etimologia

7.6. Filologia

7.7. Erabilera adibideak

7.8. Gai laburdurak

AZALPENA

Diccionario Vasco-Español-Francés-aren (*DVEF*) argitalpenak (1905-1906) Sarasolak “Azkueren paradigma” deritzonari hasiera eman zion: egun batetik bestera Larramendiren gailentasunarekin bukatu eta bera bihurtu zen euskal lexikografiaren erreferente nagusi. Berriro ere, beraz, hiztegi bakar baten itzalpean garatzen den garai batez hitz egin behar dugu, nahiz oso bestela.

DVEF-ak euskara idatziaren lexikoan izan zuen eragina arin xamarra izan zen, sabindarrek izan zutenaren mendekoa gehienbat. Aitzitik, esateko moduan ez dago lan lexikografiko, filologiko edo linguistikorik, haren lorratzik ez duenik. Badirudi, beraz, thesaurus modura erabili zela, ez hizkuntz hiztegi orokor modura. Garai honetako hiztegi “normalak”, erabili erabiltzen zirenak, bi dira: 1965 inguru arte Bera eta Lopez Mendizabalen norabide bikoitzekoa (*BeraLzM*) eta handik aurrera Plazido Mujikaren gaztelania-euskara hiztegia (*DCV*).

DVEF-k euskara-erdara hiztegi on baten aspaldiko eskariari erantzuteko izan zen egina. Zio nagusia euskal lexikoaren bilduma ahalik osoena ikertzaileen eskura jartzea bide zen (ik. 6. gaia). Azkuek ederto erantzun zion honi, Aizkibelen argitalpen berankorrek ez bezala: bere bilketa lan erraldoiak ez du aurrekaririk, ez idatzizkoari, ezta ahozkoari dagokionez. Urteetako itxaropena mukuru bete zuen, Schuchardt (1906), Urquijo (1905) edo Orixe (1927) lekuko. Eta, gainera, bilketa lanean sakontzeko gogo bizia ere sortu zuen: “Azkue osatzeko” gaur arte iristen den lehia onuragarria.

Gainerako premiei eman zien erantzuna aski murriztailea izan zen, ordea, eta agian herabeegia. Giroan nagusi zebiltzan garbizaletasunak eta populismoak aurreko tradizioarekin hautsarazi zioten, maileguz eta hitz berriz garbitutako herri-euskaraz besterik proposatu gabe. Geroko hiztegi gileek —Azkue bera barne— ezin izan zuten *DVEF*-aren muga hau osoki gainditu.

Lafittek (1965) garaiaren diagnosi zehatza egin zuen: “ahalegin handiak, baina nahaspilatsuak”. Maileguak gaitzetsita daude baina, aldi berean, hitzberrigintza larramenditarra erdeinatzen den bitartean, neologi saio berriak sakabanatuak dira eta ez guztien gogoko; idazle zaharren autoritatea galdu-gordean dabil, eta idazle modernoena zalantzan... labur esanda, ez dago eredu argirik. Eta honek hiztegiak halakoak egiten ditu, bati baino gehiagori adorea galarazteaz eta aparteko egitasmoren bat berantarazteaz gainera (i.e. elebakarra).

Hau guztia ez da zehatz-mehatz kontuak oker dabiltzalako seinale. XIX. mendearen erdialdetik aurrera hedatuz zihoan euskaltzaletasuna (cf. 6. gaia) areagotzen da garai honetan, oroimen gaitzeko parentesi latzak gorabehera. Lexikografiari dagokionez, gero eta langile gehiago dago eta, anitzez erabakigarriago, inoiz baino erabiltzailegai gehiago, hiztegiren bat behar edo nahi duen jende gehiago, baita ziurrenik premia edo interes ñabarragorik ere.

I. AZKUEREN *DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS* (1905-1906)

Geroko hiztegi gintzari begira *DVEF* deskribatzeko, bi gairi erreparatuko diegu nagusiki: nomenklaturaren hautapenari eta hiztegiaren alderdi teknikoari.

Euskal nomenklaturaren hautapena

Azkue hutsetik abiatu zen *DVEF*-ko nomenklatura eratzeko, aurreko hiztegirik —ez euskarazko, ez erdarazkorik— eredu gisa erabili gabe. Euskalki guztietako ahalik hitz eta aldaera gehienak biltzea izan zuen xede, mailegu eta hitz berriei dagozkenez beste mugarik gabe.

Hiztegi osoa zeharkatzen duen hiztegi gilearen subjektibotasunaren ginetik edo azpitik, noiz nola, herriaren autoritatea da irizpide nagusia. Idazleen aipu eta erreferentziak ugari izan arren, Azkuek bere erara erabiltzen ditu, berak hala deritzanean beren jaioterriko hizkeraren isla direlakoan bakarrik.

Aurreko literaturari erdarak kutsatuegi zeritzan, eta bazekien herri-hizkerari berari ere hainbeste gertatzen zitzaiola. Beraz, ahaleginean mailegu guztiak hiztegitik at utzi zituen. Haatik, sabindarrak bezain muturreko izan nahi ez, eta kide jatorrik ez

duten mailegu irunsiak onartu zituen. Irizpidea zehazgabeegia da: praktikan ohikoenetako hainbat kanpoan geratu ziren, nahiz herriarengan edo literaturan errotuak izan. Hari-haritik baimendutakoei bi galdera-marka jarri zizkien, eta marka bakarrak zalantzazkotzat joak salatzen ditu.

Garbizaletasunari populismoa gailendu zitzaion: hitz berri guztiak ere hiztegitik erbestera zituen, hala modernoak nola aspaldikoak, hala hiztegitakoak nola nolabaiteko literatur tradizioz izan dutenak. Jakinaren gainean bildu zituen bakanak ere galdera-markarekin nabarmenduta daude, edo iruzkin zehatzagoekin.

Beraz, okertu ezean maila bakarreko hitzak, herri-hizkerakoak bakarrik jaso zituen, maileguak alde batera utzita. Erabaki honen ondorioz, *DVEF*-an bildu zuen lexikoa desorekatu eta murrizgarria da. Tradiziozko arlo semantikoak neurritz gain ordezkaturik daude, mundu modernoak ozta-ozta agertzen den bitartean: herri-hizkeran bertan bizirik zeuden mailegu beharrezkoak zein hauen ordeztan erabiltzen hasitako hitz berriak, denak kanpoan geratu ziren, ez batera ez bestera jaso ez zituelako.

Ez dago denborazko mugarik, ordea. Azkueren ustez (cf. Larramendi...), euskara denboraz kanpoko zerizana da, denborazko itxura narrasaren azpian bere hartan dagoena, eta ikertzaileak nolabait berreraiki lezakeena. Honek azaltzen du toponimia, etimologia eta adiera etimologikoak han-hemen agertzea, nahiz bere aitzindarietako batzuk baino neurritsuago izan; eta batez ere azaltzen du edozein garaitako hitzak denborazko markarik gabe jasotzea, salbu eta *arc.* laburdura aldean daramaten bakanak, eskuarki hobekien menderatzen zuen bizkaierara mugatuta.

Alderdi teknikoak

Azkueren borondate onak eta langiletasunak ezin dezakete erabat estali eskarmentu gabeko eta prestakuntza gutxiko hiztegitikilearen lana dela.

FILOLOGIAN.— Lekukotasunak irakurri, letraldatu edo euren forma zein esanahia interpretatzerakoan ohi baino huts gehiago daude.

DIALEKTOLOGIAN.— Laburdurak erruz erabili zituen, ez soilik euskalkietarako, baita herri, bailara edo eremu trinkoetarako ere. Jakintzat eman ohi dugu “B-d” bezalako laburdura zehatzak zuzenean datozela ahozko euskaratik. Halere, joera handia izan

zuen idazleak (are hiztegiak ere) beren jaioterriko hizkerarekin berdintzeko; hortaz, askotxo interpretapen aske (eta sarri oker) honi zor zaizkio.

Laburdura orokorrak Azkueren inferentzia gutxi-asko ziurak baino ez dira, aurreko hiztegietan kausitu ditugunen taiukoak, eta pentsa zitekeen baino maizago literatur tradizioan oinarritutakoak, bere irizpide nagusiaren aurka. Areago, batzuk iturri lexikografikoetatik atera ditu, inolako kritika-lanik gabe.

LEXIKOGRAFIAN.— Bere egin zituen, eta are inoiz gaintu, XIX. mendeko hiztegi gintzan aurkitu ditugun aurkezpeneko berrikuntzak, hala nola letra tipo eta tamainak bereizgarri erabiltzea, edo adierak zenbatzea; baita eduki osagarriari dagozkion batzuk ere, hala nola adieraz adiera euskalki markak ezartzea eta erabilera adibideak ugari ematea. Halere, funtsean ezin esan daiteke teknikoki berritzaile denik.

Sarreraren definizioan eta antolakuntzan irizpide argirik ez izatea, edo azaleko irizpideak baino ez izatea, hauxe da arazorik larriena. Nolabaiteko sarrera sakabanatzea sumatzen da oraindik. Homofonoak sarrera berean bilduta daude; aldaerak, berriz, zein bere aldetik, maizenik elkarrekin lotzeko ezer gabe. Ez dago adieraren hurrenkera erabakitzeko irizpide finkorik.

Azkuek gramatika-kategoria jasotzeari nahasgarri zeritzan (1905: xxxvi). Atzerapenaz gainera, erabaki honek euskal hitza eta erdal ordainaren artean zenbait desegokitasun sortzeko oina ematen du, irakurlea nahasteko modukoak.

Euskal Herrian bizi diren hiru hizkuntzak hiztegian bildu zituen (cf. Xaho), baina ez behar beste arduraz. Kaltetuena frantsesa izan zen: nahiz iturrian frantsesezko bertsioa izan, gehienetan bere gaztelaniazkoa —ez beti zuzena— soilik gorde zuen, *DVEF*-ko frantsesa euskaraz ez zekien norbaitek gaztelaniatik zuzenean moldatua den bitartean; hamaika gaizki-ulerturen iturri, beraz.

II. DVEF ONDORENGO HIZTEGIGINTZA

Hiztegi gintza merkatuan

Orain artean argitaratu ezinaz hitz egin dugu batez ere. Ez dago horrelakorik XX. mendean, Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu zuen *DVEF*-etik hasita. Haatik, babesleak idorotzeko erraztasunarekin baino, eskariaren gorakadarekin lotuago dago aldaketa, eta hiztegi gileak erabiltzaileen premiak asmatzeko izan zuten trebetasunarekin, jakina.

BeraLzM-k 1975-1976rako bospasei argitaraldi zituen. Gure hiztegi gintzaren historiako lehen produktu normaldu hau esku-hiztegia da, ia edonork erosteko modukoa. 1965etik aurrera erabiltzaile jasoagoak ere merkatu bihurtu ziren: Mujikaren *DCV*-aren lehen argitaraldia sei urte baino lehen agortu zen, eta 1965-1980 bitartean hiru izan zituen (17.000 ale orotara), laugarrena 1987an.

Egitasmo garaia

Orduan gauzatzen errazak izan ez ziren egitasmoak ere sorrarazi zituen aukerako giroak. Eraginik izan ez bide dutenak: Arana-Goiri (1886; 1905ean arg.) eta Vinson (1922). Luzarora nolabait beteko zirenak: elebakarra (Euskaltzaindia c. 1968; P. Mujika 1973) eta etimologikoa (Agud 1968).

Lan motak

Ez dago jauzi handiegirik lanen ñabartasunean; bai, ordea, kopuruan.

HIZTEGI OROKORRAK.— 1965 arte ertainak dira (15.000-45.000 sarrera) edo txikiak. *DVEF*-ak berak ez bide ditu 50.000 sarrera baino askoz gehiago, eta salduenak erdia inguru (BeraLzM *DCV*-k 25.000; *DVC*-k 30.000). Ohikoa da izenburuan *iztegitxo*a (Bera), *de bolsillo* (Azkue), *labur* (J. A. Etxebarria) edo *petit* eta *de poche* (Otokegy) hitzak aurkitzea. Eskaririk zabal eta errazenari erantzun nahiak baduke zerikusirik honetan, baina baita geroago aipatuko ditugun zailtasun batzuek ere. 1965etik aurrera, hiztegi handiak bata bestearen hurren agertzen dira: Mujika, Auñamendi eta Retana.

HIZTEGI BEREZIAK.— Oraindik ere lantzen dira euskalki hiztegiak (Larrasquet, T. Etxebarria, Izagirre), gramatiketako hiztegitxoak (Zamarripa, I. Lopez Mendizabal) eta Euskal Herriko erdarari buruzkoak (Baraibar, Iribarren, Lopez de Guereñu, Echaide).

Hiztegi berezituak ñabartzen dira: hegaztiak (Dassance-Elisalde, M. Itziar), arrainak (V. Laffitte), landareak (Bouda-Baumgartl), itsasoa (Garmendia)... aldizkarietan barreiatuak dauden hamaika lan txikiez gain. Garai honetan, baina, kimika eta matematika sartzen dira lehenengoz hiztegiak (Mondragón 1968).

Deitura-hiztegiak dira garai honetako berrikuntzetako bat. Badaude pare bat lehenago (Irigoien 1809, Pott 1875), baina Arana-Goirirenetik (1897) abertzaletasunak oso erakargarri bihurtu zituen; betiko etimologiazaleak aurkitzen duen esparru berria ere bada; gehienak halakoak izanik, Mitxelenarena (1953) berezi beharra dugu. Halaber, Arana-Goiriren *Deun-ixendegi euskotarra*-k (1910) izendegiak egiteko atea irekiko ditu. Bi arloetan lan xumeagoak nahiko daude aldizkarietan, eta bien kariaz antzinako dokumentuak aztertzeko grina ere sortzen da.

GLOSARIOAK.— Lehen baino handiagoa da hitz zailak nolabait azaldu beharra. Glosarioak nahiko aurkitzen dira, Azkue aitzindari (*Ardi galdua*, 1918): Otxoluaren *Bertolda* (1932), Orixeren *Aitorkizunak* (1956)... Literatur lanak ez dira bakarrik: Lopez Mendizabalen *Zenbakizti*-ak (1933ko arg.) ere “*Akeita* = café. *Axot* = tinta...” hasten den hiztegiñoa darama atzean, adibidez.

HIZKUNTZ ESKULIBURUAK.— Arlo honetan ezinbestekoa da Isaak Lopez Mendizabal nekazina aipatzea. Betiko moduan, hiztegitxoak gaika antolatuta daude.

Azkue osatu (eta zuzendu) beharrez

DVFE-aren hitzaurrean Azkuek eskatu zuen “...me envíen cuantas adiciones y correcciones estimen convenientes” (xii); ez zen hor erretorikarik: bizitza osoan zehar bilketan aritu zen. Euskaltzaindiak ahalik gehiena biltzeko deia berretsi zuen *Euskera* aldizkarian (Irigoien 1965), *DVEF* berrargitaratzeko erabakia hartu zuenean.

Gainerakoek ere ez zuten erretorikoki ulertu: hasiera-hasieratik osatze eta zuzentze aldera egindako lanak erruz aurkitzen dira, baina dudarik gabe garrantzizkoena zeritzen lana, “Azkueren hiztegiak ez dauden hitzak” biltzea izan zen, *DVEF* euskal lexikoaren errolda bailitzan legetxe (Garate, Bozas Urrutia, Azpiroz, Bouda...). Herri-hizkera ez zen osatzeko bide bakarra, nahiz ibiliena izan: testu eta hiztegi zaharrak ere baliagarri izan dira, *DVEF*-ak alde honetatik hutsuneak dituela ohartu ahala. 50eko hamarkadatik aurrera hala testu hiztegi hautatuak (F. Mendizabal,

B. Fagoaga, A. de Lizarza...) nola, askoz bakanago, testu hiztegi osoak (Gorostiaga, Villasante, Altuna...) eratzten dira; hiztegi zaharren argitalpenak, Landucciren gogoangarritik aurrera (Agud & Mitxelena 1958).

DVEF-ari egindako zuzenketak, urriagoak inondik ere, hauek ere garrantzi handikoak izan dira geroko garaiaren eraketan (Urquijo, Lafon, Mitxelena, Ondarra...).

Erdara-euskara hiztegiaren arazoa

Euskara-erdara hiztegia izateko desira bete bezain laster, erdara-euskara hiztegi eguneratuaren beharra agerian geratu zen. Haatik, ez zen beteko 1965 arte.

DVEF Azkueren egitasmoaren herena baino ez da. Ez dago argi zein zen hura baina, nolahi ere, ez zuen behin ere osoki gauzatu. Bistan da uko egin ziola "Larramendi" berria izateko aukerari. Bere ustez, Euskaltzaindia izango zenaren egitekoa zen hitz berriak onartzea (1905: xviii).

Izan ere, bazen erakundearen izenean Azkue, Olabide eta Orixek egindako gazt. -eusk. hiztegi bat, 1934 inguruan argitaratzeaz izan zena. Halere, urte mordoan bera euskaltzainburu izanik ere (1918-1951), egitasmoa bertan behera utzi zuten, etxe barruko desadostasunengatik, antza denez. Sabindarren artean ere ez zen izan bere gain hartu zuenik. Hartara, aurre egin nahi liokeen edonoren eskuetan geratu zen.

Adore faltaren arrazoa: *DVEF*-aren alderantzizkoak ez zuen aski oinarririk ematen hiztegi modernoa osatzeko, eta haren hutsuneak betetzea ez zen lan xamurra, eredu argirik ez zegoenez gero. Hortaz, irizpideak aldatzen hasi arte, hiztegi ertainak baizik ezin izan, dagoena-edo biltzen dutenak, askoz urrunago iritsi gabe.

Hiztegi orokorren ezaugarriak

Epea denboraren aldetik zorrotz mugatu dugun arren, 1970 ondoren ere badira argi eta garbi garai honetakotzat jo behar diren hiru hiztegi, gutxienez: *DBPT* (1972-1975), Mujikaren *DVC* (1981) eta Retana (1976-1989).

ELEBIDUNTASUNA.— Oraindik ere ez dago salbuespenik, nahiz batzuek orduan "euskal iztegi" izenarekin ezagutzen den elebakarra egiteko asmoa agertu. Izan ere, *DVEF*-aren ondoan denak dira elebidun huts: frantsesa edo gaztelania, bietatik bat

baino ez. Norabide bikoitzekoak ugaltzen dira hiztegi ertain eta txikietan (BeraLzM, Azkue *DBols...*); hiztegi handien ondoko gisa iragarriak (Azkue, Lhande) bertan behera utzi ziren, Mujikarena izan ezik.

Aurreko garaian legetxe, metahizkuntza erdara da. Hiztegiak modernoek ere jakintzat ematen dute erabiltzaileak erdaraz alfabetatu eta kulturizatuak direla.

NOMENKLATURAREN OINARRIA.— *DVEF* izaten da nomenklaturaren iturri nagusia, eranskin gehiago edo gutxiagorekin eta bertako hitzen kopuru handiago edo txikiagorekin; alderantzizko bat ere badago (Arbelaitz 1929).

GARBIZALETASUNA.— *DVEF*-aren edukiaz gainera, garbizaletasuna izaten da hiztegien nomenklaturaren erabakitzailer nagusia. Honek bi ondorio nabari izaten ditu: maileguak nekez agertzea, eta haien ordainetan hitz berrietara jotzea.

Maileguak. Azkuek *DVEF*-an hartutako erabakiak ez zituen maileguak zeharo erbesterratu, ez bertan ezta geroko hiztegiak ere. Alabaina, egoera berezian daude: edo markatuak agertzen dira, han bezala, edota hitzaurrean aldeztuak.

Garaian zehar jarrera aldatuz doa. Lehen hiztegiak, badirudi *DVEF*-ko maileguak soilik onartzen direla (Lhande salbu) eta beti markatzen dira, batera edo bestera. Lafitteren arabera (1965), 1947az geroz goraka doa euskara naturalagoa atxiki nahi lukeen joera. Tournier-Lafitte (1953), Iparraldean presioa, beti ere txikiagoa, goiz gainditu zelako adibide argia dugu. Hegoaldean, Euskaltzaindiaren “Euskal itzak zein diren” adierazpena (1959) mugari bide dugu: *DCV*-aren hitzaurrean (1965) ekialdeko kultura osoari dagozkion eta hizkuntza jaso guztiek beretu dituzten maileguen aldeko hitz argiak jaulkitzen ditu Mujikak, nahiz eta Lafitteren ustez oraindik garbizalegia den: izan ere, ez du jauzirik handiena *DVC* (1981) arte egingo. Lafitteren ustez, berebat, Auñamendi (1965) da ordurainoko hiztegiak eskuzabalena.

Hitz berriak. Hasieran maileguetara jotzea debekatuta baldin badago, eta behin ere ez guztiz ongi ikusia, bistan da hiztegiak hitzberrigintzara jo behar dutela, inorenak bilduaz edota nork bereak sartuaz.

Hegoaldeko hiztegiak ezinutzizkoak dira hitz berri sabindarrak; Azkuerenak eta besterenak haiek utzitako hutsuneak betetzeko erabiltzen dira batik bat.

Aintzakotzat markatzea ohitura bihurtzen da (Azkue *DEV* eta *DBols*, Euskaltzaindia, Auñamendi). BeraLzM eta Mujikaren *DCV*-n ohiturari atxiki ez izana deitoratzen du Lafittek. Euskaltzaindiaren banaketa (erabiliak vs ohiz kanpokoak) ezin interesgarriagoa da; eta guztiz adierazgarria Tournier-Lafittek (1953) haietako batzuk (*aberri*, *abesti*, *antzerki*...) ohiko hitzen artean onartzea.

Hitz berri nabarien —“gaizki eraturako” neologismoen— alboan, hain nabariak ez direnak ere badira: erdara-euskara hiztegi handiak osatzeko erdal hitzak kalkatuaz (orduan “itzuliaz” diote) egindako elkartu berriak, maiz alemanaren bidetik sortuak (Euskaltzaindia, Mujika). Hauek ez dira zeharo neologismotzat hartzen, ulerterrazak, ongi eratuak eta jator-antzekoak direlako (Mujika *DCV*, Lafitte 1965). Maileguei atear irekitzen hasten diren heinean, argitaratuetan (Tournier-Lafitte, Mujika, Auñamendi...) honelakoak ugari sartzen dira, eta sutsuki aldezen: elkartu argiak maileguak baino errazago ulertzen direlako Larramendiren argudioa aurkitzen dugu berriro, beraz.

Aztertzeko ditugu: (a) Definizioak: Lehen gaztelania-euskara hiztegietan (Azkue *DEV*, Euskaltzaindia) bakarrik. Itzulpenik gabeko gaztelaniazko hitz kulturaletan erabiltzen dira. (b) Sinonimoen arteko esanahi-banaketa: Azkueren ideia (1905: xxi-xxii); Lafittek (1965) ere aipatzen du, eta badirudi oihartzunen bat izan lezakeela Mujika *DCV*-n. (c) Euskal ordainen zehazgabetasuna: Garbizaletasunak izan zuen beste ondorio bat, Tournier-Lafitterako bakarrik (oraingoz) seinalatua.

ALDAERA PILAKETA.— Azkuek bazekien *DVEF*-ko aldaera pilaketak anabasa sortzen zuela, baina bere ustez Euskaltzaindiari zegokion aukera egitea (1905: xxi). Honen hiztegian nagusiak behintzat denak ematen ziren, gomendagarrienei lehentasuna eman arren (Orixe, c. 1934). Honetan ere ez zen erabakitze gaitasunik izan.

DVEF-ak eta ondoko lan osagarriek gauzak franko nahasi zituzten hiztegi orokorreki begira, aukera erabiltzailearen eskuetan uzten baita, Mitxelenak (1968) salatu bezala. Aldaerak *DVEF*-tik hartu eta irizpiderik gabe pilatzen dira hiztegi ertainetan (BeraLzM...), eta joera areagotzen da hiztegi handietan (Azkue *DEV*, Mujika, Auñamendi, Retana). Hedatuenei lehentasuna eman ohi zaie erd.-eusk. hiztegietan, eta inoiz (Mujika *DCV*, 1973) garrantzizgabeak ezabatu direla iragartzen da. Eusk.-erd. hiztegietan, berriz, *DVEF*-ko sakabanatzea kalkatzen da, edo areagotzen, *asi* eta *hasi* bezalakoak ere zein bere lekuan azalduaz (Retana).

IDAZLEEN AUTORITATEA.— Azkueren uzkurtasunak ez du epea beteko. Orixek hitz berri mota biak bereizteko, idazle onen autoritatera jo zuen. Eta Mujikak (1965) zuzenean aurre egin zion: “Una voz queda legítimamente autorizada, no sólo porque la usa el pueblo sencillo, *sino también cuando la emplean los buenos escritores*”.

HEGOALDEKOTASUNA.— Garaiko hiztegi ia guztiak —hala nola lexikoari buruzko zalaparta gehienak— Hegoaldekoak izanik, Iparraldeko hitzunez behar baino gehiago ahazten dira: bertako hitzak ez dira alde batera uzten, *DVEF*-n bilduta dauden neurrian behintzat, baina Hegoaldeko aldaerak hobesten dira eta Iparraldeko formak desitxuratuta (<h> gabe...) ematen. Lafitteren ustetan, ezinulertuzkoa da hiztegirik erabilienetan Axularren hitz asko ez agertzea, eta haien laguntzaz Iparraldeko idazle modernoak zein tradiziozko kantak ezin ulertzea.

HITZAK ETA TERMINOAK.— Ordain jatorrak edo kalko argiak hobesten direnez, hitza eta terminoaren artean egon behar lukeen ezberdintasuna aise galtzen da: erdal terminoen ordainetan (a) ohiko hitzak ematen dira, konnotazioari ere begiratu gabe; (b) aldaera eta sinonimoak metatuta (are euskalki markaz ere), adierazle bakartasunaren aurka.

Lexikografi tekniketako geraldia

DVEF-aren ildotik, garai honetan ez dago aurrerapen garrantzizkorik. Erdara-euskara hiztegiatan atzerriko ereduen (*DRAE*, esaterako) abantailak profitatzen diren bitartean, euskara-erdara hiztegien egitura oso badaezpadakoa da oraindik.

ADIERAK.— Era batera edo bestera, adierak formalki ondo bereizten dira (zenbakiak, plekak...). Erd.-eusk. hiztegiatan erdarazko azalgarriak erabiltzen dira (Azkue *DEV*, Tournier-Lafitte, Mujika, Auñamendi); eusk.-erd. hiztegiatan beti bezala erdal ordainen beren zeregina da (Azkue *DBols*, Mujika *DVC*, Retana). Gainera, ez dago euskal hitzen adierak antolatzeko irizpiderik; *DVEF*-n bezalaxe, formak agintea du mamiaren gainetik: homofonoak sarrera berean bilduta agertzen dira, eta aldaerak bereizita.

FORMA KANONIKOA.— *DVEF*-az geroz izenkietan mugagabea orokortzen da (salbuespena: T. Etxebarria). Halere, gaztelaniazko partizipioen ordainetako partizipioak mugaturik ematen dira (cf. oraindik Ekin, Auñamendi...), nahiz Mujika 1973ko *DCV*-n erdizka bederen konpondu, gehienbat erredundantzia ezabatuz.

GRAMATIKA-KATEGORIA.— Euskalki hiztegietan izan ezik (Larrasquet, T. Etxebarria), ez da euskal hitzen kategoria behin ere azaltzen, Mujikaren *DCV*-ko salbuespenen batean izan ezik. Erraza da, hortaz, *DVEF*-ko itzulpen desegokitasunak oharkabean igarotzea, eta luzaro mantentzea. Berrikuntzarik handiena Lafitteren erreseinan dago, ez hiztegietan: ondoko garaian beteko ziren berrikuntzetako batzuk proposatzen ditu, hala nola *da / du* eta *zaio / dio* bereizkuntza.

EUSKALKI-MARKAK.— Zehaztasun eta maiztasun gehiago edo gutxiagoz, garai honetako hiztegien ezaugarri ditugu, aurreko garaian sumatu dugun joeraren ildotik eta, ziurrenik, eskuarki *DVEF*-ko berriak baliatuta. Azkueren markak denak nahi bezain egiazkoak ez direla jakinik, ohargarria da Mujika bide dela, idazlea eta jaioterriaren identifikazioa badaezpadakotzat jotzen duen lehena.

ETIMOLOGIA.— Lehengo garrantzia galduz doa. Hasierako hiztegietan bada bat edo bat, guztiz maileguetan (Bera, BeraLzM) edo maileguetan bakarrik (Lhande), baina ez gainerakoetan. Antolakuntzaren aldetik, *DVEF*-ean erroak (letra larriz) eta eratorriak (letra txikiz) bereizten dira; Lhanderenean hitzak familiaka bilduta daude.

FILOLOGIA.— *DVEF*-ko hutsetako zenbait pixkanaka zuzentzen dira (Azkuek berak baditu zuzenketak beste hiztegietan), baina beste asko errepikatzen, are salatuak izan ondoren. Esan gabe doa batzuetan berriak eransten direla, batez ere hala moduz moldatu zen Retanaren hiztegia.

ERABILERA ADIBIDEAK.— Ia ez dago halakorik ertainetan (bat edo bat BeraLzM-n, irizpide argirik gabe), baina bai handietan (Auñamendi, Mujika *DCV* eta *DVC*, Retana).

GAI LABURDURAK.— Mujikak noizbehinka “(Zool.)” bezalako laburdurak baliatzen ditu, baina “ave” edo “pez” erakoak nahiago ditu, Azkuek *DVEF*-n bezalaxe.

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Lafitte (1965): Hiztegi irtenberri zenbaiten erreseina zorrotza, garai hartako giroaren diagnosi bikaina eta geroko hiztegitzarako baliagarri izango diren zenbait gairen aurrerapena.

Mitxelena (1966): Azkueren asmoen eta *DVEF*-aren on-gaitzen ikuspegi bikaina, lexikografiaren arazoei buruzko ohar sarkorrez apaindua.

BIBLIOGRAFIA

Bilbao (1978-1981). Gavel (1927). Lafitte (1965). Mitxelena (1966a, 1966b, 1968, 1970). Onaindia (1977). Sarasola (1998). Schuchardt (1906). Sorarrain (1891). Urgell (1997, 2000). Urquijo (1905). Villasante (1979). Vinson (1877, 1891-1898).

ZORTZIGARREN GAIA
HIZTEGIGINTZA BATUA (1970etik aurrera)

HELBURUAK

1970ez geroko hiztezigintzaren oihanean sartzea ez da lan xamurra, baina inolaz ere arreta berezia eskaini behar zaio, gugandik hurbilen dagoen garaia izanik, eskuarki guztioi —eta areago ikasleei beharbada— jakin-min handiagoa sortzen digu eta: zein hiztegi ditugun eskura, nolakoak diren, hobeak izan ote litezkeen...

Atal honetan azpimarratuko da euskara batuaren sorrerak eta gutxinakako garapenak hiztezigintzarekin izan dituen norabide bikoitzeko harremanak, hots, batak bestea nola bermatu eta gararazi duten. Halaber, XX. mendearen bigarren zati honetan euskal hiztezigintzak egundoko hazkundera jasan duela: hiztegi elebidunak ekoizten jarraitzeaz gainera, lehenengo hiztegi elebakarrak egiten dira, asko eta askotarikoak (hizkuntz hiztegiak, terminologikoak, entziklopedikoak, dialektal elebakarrak, alderantzizkoak...).

EDUKIAK

I. IKUSPEGI OROKORRA

1. Hiztegigintza elebakarra
2. Hiztegi motak
 - 2.1. Hizkuntz hiztegi orokorrak
 - 2.2. Terminologia
 - 2.3. Eskola-hiztegiak, oinarrizkoak, irudidunak
 - 2.4. Hiztegi entziklopedikoak
 - 2.5. Sinonimo eta esapide hiztegiak
 - 2.6. Zalantza eta akats hiztegiak
 - 2.7. Hiztegi elebidunak
 - 2.8. Hizkera hiztegiak
3. Lan taldeak eta hiztegi familiak
4. Informatika eta Internet
5. Hegoaldekotasuna

II. HIZTEGI OROKORREN BILAKAERA

1. Hiztegigintza batuaren ezaugarriak
 - 1.1. Metahizkuntza
 - 1.2. Nomenklatura hautatzen
 - 1.3. Nomenklatura normaltzen
 - 1.4. Nomenklatura modernotzea
 - 1.5. Nomenklatura egonkortzen
 - 1.6. Euskalki-markak

2. “OEH paradigma” definitzen

1. Irizpideak

1.1. Nomenklaturaren hautapena

1.2. Maileguen tratamendua

2. Lexikografi teknikak

2.1. Sarrera sakabanatzearen bukaera

2.2. Terminologia eta azalpen teknikoak

2.3. Homografoak eta beste

2.4. Aditzen forma kanonikoa

2.5. Adierak

2.6. Ordainak

2.7. Gramatika kategoria

2.8. Erabilera-adibideak

2.9. Euskalki-markak

2.10. Hizkuntz mailak

AZALPENA

XX. mendean zehar euskal hiztegiaren egoera normalduz doa merkatuaren aldetik, baina oraindik ez euskarari ematen zaion tratamenduaren aldetik (ik. 7. gaia). Garai honetan, berriz, euskal hiztegiak hiztegiaren aurreratuenetan aurkitzen diren gero eta parekoago dira. Aldaketa Hegoaldean (EAE-n batez ere, zehatzago) gertatzen da —gertatzen ari da—, arrazoi ezagunengatik. Bost eragile zuzen aipatuko ditugu:

Babes ofiziala: Eusko Jaurlaritzaren (ber)sorrera (1980) erabakigarria da legediaren aldetik (ofizialtasuna, hezkuntza, euskara administrazioan...), baita sustatzaile eta babesle den aldetik ere.

Batuaren sorrera eta garapena: Aurreko garaiaren eredurik ezaren aurrean, oraingo hiztegiak batuari begira egiten dira. Era batera edo bestera, batua mugatzea eta finkatzea, aberastea eta irakastea hiztegi gehienek xede bihurtzen da. Ordainetan, hiztegiaren edozein alorretan batuak erdara ordezkatzeko gaitasuna lortzen du: hiztegiaren batuaren garaia hiztegiaren elebakarrarena ere bada.

Eskariaren gorakada: Garai batean euskaltzale urriak ziren erabiltzaile ia bakarrak. Hauei alfabetatzen edo euskalduntzen hasi ziren helduak gaineratu zitzaizkien lehenik. Ondoren euskara irakaskuntzan sartzen hasi zen, eta gero komunikabideetan, administrazioan eta goi-ikasketetan, baita lan munduaren beste esparru askotan. Haurtzaindegitik goi-mailako ikasketetarako ikasle-irakasleak, idazleak, itzultzaileak... gero eta euskaldun gehiagok dauka hiztegiaren jo beharra.

Hiztegiaren irudi-aldaketa: Sekula baino ugari, ñabar eta jantziago diren erabiltzaile hauen eskariari erantzuteko, une batetik aurrera hiztegi gehienek ofizioko egin dira, non-nahi erabiltzen diren irizpideak eta teknikak gurera ekartzeko modukoak, alegia.

Erabiltzaile irudiaren aldaketa: 1970 arte hiztegi-gileek espero duten erabiltzailea errotik diglosikoa da, beti ere erdal hitzak euskaraz nola esaten diren galdezka dabilena eta, berriz, euskal hitzen zertzeladez (adierak, gramatika, erabilera...) etimologia eta euskalkia bakarrik interesatzen zaizkiona, gainerakoa erdararen bitartez azaldutakotzat jotzen da eta (ik. 7. gaia). Hiztegi-gintza elebakarrak, aldiz, bere bizitzaren arloren batean bederen euskara hutsean diharduen erabiltzaile mota berri bat badela ematen du jakintzat, eta beraz, hiztegi-gian bilatzen duena euskaraz aurkitu behar edo nahiko duena.

I. IKUSPEGI OROKORRA

Hiztegi-gintza elebakarra

Aurreko garaian egitasmoren baten entzutea izan arren, ez zegoen hiztegi elebakarrik egiteko gaitasunik, ez eta egiazko premiarik sentitzen ere, nonbait. Premia erabiltzaile irudiaren aldaketak sortzen du. Gaitasunari dagokionez, aski bide da nahi izatea: euskaldunak elkarrekin komunikatzeko balio duen zerbait (hizkuntz eredu bat) badela sinesten den une beretik, garaia-aren hasiera-hasieratik, lehen elebakarrak egiten dira (*BKutxa* 1970, *HTipia* 1973), oso hasi-masikoak oraindik, halere. 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, eta guztiz 90ekoan, ugaltu eta askotarikoak egin dira; hobetu ere, biziki hobetu dira, are euren berrikuntzekin betiko hiztegi-gintza elebiduna eragiteko moduan.

Hiztegi motak

Erabiltzaile mota ugaritasunari hiztegi mota ugaritasuna dagokio, noski.

HIZKUNTZ HIZTEGI OROKORRAK.— Gure historian lehenengoz, egiazko hiztegi orokorrak ditugu, elebakarrak, alegia. Alabaina, oraindik ere bi mota ekoizten eta erabiltzen dira, maiz elkarren osagarri: ohiko elebidunak eta elebakar berriak.

Lehen elebakarrak ezin daitezke zeharo orokortzat jo, dela tamainagatik (*BKutxa*), dela bukagabeak izateagatik (*HTipia*). Honegatik, 1995 arteko hiztegi normala “Kintanaren hiztegia” deritzaguna izan zen, oraindik ere sasi-elebakartzat funtzionatzen duen elebiduna. Urte honetan amaitzen da Sarasolaren *Hautal*-aren

argitalpena (1984-1995). 1996 hizkuntz hiztegi orokorren *annus mirabilis* izendatzeko modukoa da, aldi berean kaleratzen baitira hala *Hautal*-aren bertsio zuzendu eta emendatua (oraingoan *Euskal Hiztegia* tradiziozko izenpean), nola bi elebidun berri: Kintanaren ondorengo hobetua (3000) eta hura behin betikoz gainditu nahi lukeena (Elhuyar). Elebidun biak erraldoiak dira, bi norabidekoak.

TERMINOLOGIA.— Garai honetako erregea. Hasieran hiru data ditugu aipatzeko: 1974 (Euskaltzaindia, *Merkatalgo Hizt.*), 1976 (JAKIN, *Natur Zientziak*) eta 1979 (UZEI, *Fisika Hizt.*). Hasierako eztabaidak gorabehera, UZEI dugu erakunderik eraginkorrena, arlo bakoitzeko adituekin elkarlanean hamaika hiztegi egin dituen eta egiten ari dena, eta EUSKALTERM sortu zuena (1987). Erakunde publiko eta pribatu zenbaiten ahaleginekin batera, beranduago Elhuyar sartzen da alorrean (1988tik aurrera), eta administrazio kontuetan Eusko Jaurlaritza bera (1987) eta HAEE (1992).

ESKOLA-HIZTEGIAK, OINARRIZKOAK, IRUDIDUNAK.— Oinarrizkoak ez dira gehiegi ugaltzen lehengoan aldean, baina sail honetan ere lehen elebakarrak kaleratzen dira (Bostak Bat, 1990). Azpimarratzekoa da eskola-hiztegi elebakarrek azken urteotan hartu duten garrantzia (Bostak Bat, 1991; Elhuyar eta 2000, 1997; Vox 1999...).

Haur txikiei ere kontu egin zaie, Euskaltzaindiaren *Zortzi urte arteko...* (1976) delakotik aurrera. Hauentzat bereziki pentsatutakoak dira ugarituz doazen hiztegi irudidunak, gehienak itzuliak eta gaurko teknika didaktikoen haritik datozenak.

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOAK.— Hezkuntza euskaraz izateak laster azaleratu zuen ikasleen kontsultarako materialean zegoen hutsunea; halaber, hainbat helduk ere gai ezberdinei buruzko informazioa euskaraz behar zuten, batzuk eta besteak erdarazko iturrietara jo eta prestakuntzarik gabeko itzultzaile izan beharra saihesteko. Hiztegi entziklopedikoak bata bestearen ondoren aurkeztu ziren 90eko hamarkadan, eskaria behar bezalakoa bihurtu zenean, nonbait.

SINONIMO ETA ESAPIDE HIZTEGIAK.— Gero eta jende gehiagok euskaraz idatzi beharrak hizkuntz hiztegi berezien laguntza gehiagoren premia dakar. Sinonimo hiztegietan Bostak Bat taldearenak (1983; gero antonimoduna ere bilakatua, 1988) ez du urteetan lehiakiderik izan; 1999an bi sortu zitzaizkion, ordea (Elhuyar eta UZEI).

Esapide hiztegietan aitzindari J. Gereño dugu (1980); ezagunena, beharbada, K. Izagirre (1981) eta handiena Mokoroa (1990).

ZALANTZA ETA AKATS HIZTEGIAK.— Nahiz tankeraz oso ezberdinak izan, baita hizkuntzari buruz daukaten kontzeptuaz ere, euskaraz idazterakoan (batez ere) izan ohi diren zalantzak edota hitzak hautatzerakoan edo erabiltzerakoan egin ohi diren akatsak —maiz interferentziei zor zaizkienak— konpondu nahian egindako zenbait lan kaleratu dira azken urteotan. Aurrena G. Garateren *Erderakadak* (1988), herri-euskara ereduakoa; gero, batetik, *Egunkaria*-ren *Estilo-liburua*-ren bukaerako hiztegitxoak (1992, 1995, 2000), denetarakoa (ortografia, kalkoak...); bestetik, Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak* (1997), lexiko berriztatzeari buruzko irizpide orokorrak eman nahikoa.

HIZTEGI ELEBIDUNAK.— Ohiko elebidunen aldean, munduko beste hizkuntzak ere agertzen hasi dira euskararen alboan, gehienbat oinarrizko hiztegien bitartez (fang, errusiera, hungariera...). Halabeharra ere tartean dela inoiz, irakaskuntza edota itzulpengintza aipatu behar ditugu orain eragile gisa.

Ingelesez egindako lehen hiztegiak euskaraz ezer jakin nahi duten ingeles hiztunentzat pentsatutakoak dira. Bada aitzindari xume bat: Joe Eigurenek Idahon egindako Zamarriparen *Vocabulario*-aren itzulpena. Bide honetatik aurrera eginez, G. Aulestiak euskara-ingelesa hiztegi handia argitara zuen (1989), eta geroago, L. Whitekin elkarlanean, bi norabideko esku-hiztegia (1997), “bai euskara eta bai ingelesa ikasten diharduten ikasleei” eskainitako laguntza gisara; halere, jatorrizko egitasmoari zeharo uko egin gabe, laburdurak-eta ingelesez gorde dira.

Esku-hiztegi hau arlo berri batean kokatzen da. Izan ere, euskara irakaskuntzan sartzearekin bateratsu, ingelesa euskaraz ikasteko hiztegiak behar dira eta, hartara, egin ere egiten dira, handi eta txikiak, baita haurrentzako irudidunak ere. Aitzindaria (Lopez de Viñaspre, 1992) hitzaurrearen arabera oso euskara traketsakoa izan behar. Ondotik “Morris” familia iritsi zen, ingelesezko gramatika eta hamaika kontu ere (gutun-ereduak, neurriak...) eskaintzen dituztenak, dena euskaraz azalduta.

HIZKERA HIZTEGIAK.— Gutxienez bi arrazoi bildu dira honelako lanak ugaltzeko: Udalek, tokian-tokiko elkarteek-eta euskararen kontuetan hartu duten iniziatiba, eta euskal filologo samaldatxoak, beren kabuz edo hartarako egindako deialdien bitartez,

lanean jarri direnak. Bide honetatik, hamaika hizkeraren hiztegiak edo deskribapen hiztegitxodunak kaleratu dira azken urteotan, eta hainbat prestatzen ari dira, orokorrak zein gai baten ingurukoak (arrantzaleak...).

Lan taldeak eta hiztegi familiak

Oraindik ere badira lanari bakarrik eutsi dioten egileak, baina gero eta zailago eta ohiz kanpokoagoa da: hiztegitzintza talde-lana izaten da gehienbat, dela talde egonkorretan, dela hiztegi baterako edo hiztegi mota baterako berariaz eratzen diren taldetan. *BKutxa*-k Arestiren nomenklatura eta Kintanaren definizioak biltzen ditu. “Kintanaren hiztegia” egiatan J. Tobarrena ere bada, gehi beste sei lankide, “irakasleekin elkarlanean”; hemendik *Ekiten* taldea sortu zen. Beste lau izen gogora daitezke: Elhuyar (1972), UZEI (1977), Bostak Bat (1981) eta *OEH* (1984).

Talde hauetan EHU-ko irakasleen partaidetza azpimarratuko nuke, hala euren arloko terminologi hiztegitan inplikatu direnak, nola hainbat hiztegiaren egile, zuzendari edo begirale ditugun Euskal Filologiakoak. Eta, honekin batera, lehen ofizioko hiztegitzintza agertzea, hiztegitzintzan bakarrik edo bereziki ari direnak.

Hiztegi familiak ere garai honetako berrikuntzetako bat dira, nahiz aurrekariren bat aipa litekeen. Bi eratara uler daiteke “hiztegi familia” kontzeptua: (a) hiztegi bat eta beraren bata bestearen ondoko bertsioak, hala nola “Kintana” familia (*EHM* > 80 > 2000 > 3000); (b) egile edo talde batek egindako edota marka beraren inguruan egindako hiztegi mota ezberdinek osatzen dituztenak, hala nola “Bostak Bat” familia (*SinonH*, *EuskararakoH*, *Oinarrizkoa*, *Eskola-hizt*).

Beste hizkuntza batzuetan erakutsi den bezala, ezinbestean ia, familiaren partaideek elkarrekin halako erlazio bat izaten dute, hiztegi bat aztertzerakoan oso kontuan hartzekoa: hiztegitzintza hiztegi inertiari eusteko joera, bertsio batetik bestera gertatzen diren aldaketak, beste hiztegi mota bat lortzeko egindako egokitzapenak...

Informatika eta Internet

Ordenagailua lanerakoan egundoko aldaketa izan da hiztegitzintzat, datu-baseak osatu eta eroso erabiltzeko, idazteko, diseinu grafikoa eratzeko, sarrerak hurrenkeran jartzeko, etab. eskaintzen dituen erraztasunengatik.

Hiztegia zabaltzerakoan ere bi bide berri eskaini ditu: CD-ROM formatua (*Europako Hiztegia*, 1994) eta sarean aurki daitezkeen hiztegiak (ik. www.euskadi.net eta www.ivap.com, denetarikoa aurkitzeko, eta EUSKALTERM-erako www1.euskadi.net/euskalterm).

Hegoaldekoatasuna

Aurreko joera indartu baino ez da egiten. Batetik, ez dago frantsesa jasotzen duen elebidun baturik (ezta ia bestelakorik ere) Kintana eta Charritonen hiztegiraino (1997). Bestetik, Hegoaldeko hiztegietan hango hiztunentzat ulertezinak diren hamaika mailegu sartu dira; areago, euskalki hilak bailiran, Iparraldeko hitzekin nahi beste bidegabekeria egin izan dira, orain formari ez, esanahiari baizik gagozkiola (cf. beherago “banaketa”). Halere, Hegoaldekoak arazo honetaz kontzientzia handixeagoa hartuz doazen heinean, eta batez ere hango hiztun jantziak egitasmoetan parte hartzen hasi diren heinean, baliteke joera gutxinaka ematea.

II. HIZTEGI OROKORREN BILAKAERA

Bi data ditugu mugari hiztegi gintzan:

ARANTZAZUKO BILTZARRA (1968).— Euskaltzaindiak abian jartzen du eta gobernatzen euskararen batasuneko aspaldiko egitasmoa, Villasante buru eta Mitxelena “gidari”. Hurrengo urtean oinarrizko zerrenda bat (*Batasunerako hiztegia*, 1969) argitaratu zuen. Labor eta herabegia izanik batzuen ustetan, 1970ean Euskal Idazleen Elkartearen izenean *Batasunaren Kutxa* argitaratu zen, G. Arestik eta X. Kintanak egin; bertan, oinarrizko hari “beste hitz mordoska bat” eransten zitzaion, Elkarteak hartutako erabakien ildotik. Orduetik aurrera hiztegi orokor guztiak batukoak izango dira, P. Mujikaren *DVC* (1981) eta Umandiren *Asmo-hiztegia* (2000) izan ezik.

Mujikarena nahita garaiz kanpo irten zen. Azkueren *DVEF* bezalaxe, thesaurus modukoa da, dena jaso nahikoa, baina honek baino are kritikotasun gutxiagorekin. Bestalde, proposamenak ugari eskaintzen ditu, nahiz garaiko joeretatik urrun xamar dagoen bere kabuzko hitzberrigintzari atxikita. Dena den, hiztegi gile batzuek erabili dute (L. M. Mujikak batez ere).

OEHAREN HASIERA (1984)—. Oraingoz euskal hiztegiak izan duen azken mugarria. 1956an K. Mitxelenak Azkueren hiztegia berregiteko Euskaltzaindiaren mandatua onartu eta bitartean hartarako fitxa mordoa bildua zuen. Erakundeen laguntzarekin, 1984an euskaraz izan den hiztegi egitasmorik handiena abian jarri zuen: tradizio guztiaren lexikoa kritikoki biltzea, alegia. Data beretsuan Mitxelenaren egitasmoa eta Sarasolak aspaldixko zerabilena (*HAraru* 1977-1979, *MaizH* 1982) nolabait bat egin ziren, *Hautal*-an (1984-1995), honek nagusiki OEH-aren corpusean oinarritutako lexiko hautapena eskaintzen baitu. Corpus berak, bestalde, oinarri gisa balioko du 1995etik aurrera Euskaltzaindiak *HBat* egin dezan.

Hiztegiak batuaren ezaugarriak

METAHIZKUNTZA.— Lehen unetik (*Bat* 1969, *BKutxa* 1970...) naturaltasunez agertzen dira euskarazko hitzaurreak. Oro har, hiztegi elebakarrari euskarazko hitzaurrea dagokio, jakina, eta elebidunari bi hizkuntzetakoak. Salbuespen interesgarriak daude, hiztegia noiz den eta honen araberrak: ingelesez (Aulestia 1989), euskaraz (*EuskararakoH* 1986, Morris 1998); eta salbuespen nabariak, giro honetan antigoaleko suertatzen direnak: gaztelaniaz bakarrik (aurreko garaikotzat jo ditugunak: PMuj *DVC*, Retana, *DBPT*) edo ia osoki (LMuj, Gereño). Izenak ere euskarazkoak dira —edo elebidunak— lehenengo modukoetan izan ezik (Gereño barne).

Hitzaurrea baino adierazgarriagoa da euskaldunentzat egindako hiztegiak gainerako osagaiak (guztiz sarrera barrukoak) euskaraz egotea, honek esan nahi baitu nola edo hala aurrez hainbat kontu normaldu direla. Hasierako hiztegiak urrats txikiak ematen dira: laburdura zenbait paratu, adierak (*Bat* 1969) eta are definizioak (*BKutxa* 1970) euskaraz eman... Muga Sarasolaren *HAraru*-k (1977-1979) hausten du, lehen elebakar orokorra izanik, nahiz saio-saioa baino ez izan, eta ondotik beraren *Hautal*-ak (1984-1995). Harrezkero, elebakarrek eta euskara-gaztelania hurrenkerako elebidunek azalpenak euskaraz daramatzate, eta gaztelania-euskarakoek erdaraz.

NOMENKLATURA HAUTATZEN.— Garai honetako hiztegiak praktikotasuna dute helburu, hots, beharrezko izan litezkeen baliabide lexiko guztiak eskumenean jartzea. Honetarako, berriaz alde batera uzten dute aurreko garaiko irizpide nagusia —mailegurik ez—, eta hiru irizpide zeharo berriak erabiltzen dituzte: hitzaren hedadura,

erabilera maiztasuna eta nazioartekotasuna. P. Mujikak irekitako bidetik, gainera, “idazle zaharrak” autoritatetzat jotzen dira.

NOMENKLATURA NORMALTZEN.— Hiztegi batuen ezaugarririk esanguratsuena nomenklaturan egiten diren hautuak dira, aurreko aldaera eta aukera pilaketari aitzia. Hiztegiak Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiei atxikitzen zaizkie, baina erakundea astiro doa lexikoari dagokionez. *Bat*-etik (1969; 2.000 hitz inguru) *HBat*-en argitalpen osoraino (2000; 20.000 inguru) zatikazko arauak (zenbakien idazkera...) edo arau orokorrak (maileguen idazkera...) baino eman ez dituzenez, bereak heltzen ez diren alderdietan, hiztegiak eurek hartzen dute bere esku hautapena egitea, erabiltzaileek gehiago behar dutelakoan. Badirudi hiztegiak batzuetan joeren sustatzaile eta hedatzaile izan direla, bestetan ziurrenik aitzindariak.

(a) Forma edo idazkera finkatzea: *Bat* (1969) oinarri-oinarrizkoa baino ez da, eta aukerez betea oraindik (*abantail(a)*, *ai(h)en...*). Hasierako hiztegiak guztiek <h>aren alde egiten dute; bestalde, argi ikusten da zalantzazko formak nola doazen hiztegietan erabakitzen.

(b) Aldaerak eta sinonimoak hobestea: Aurreko hiztegiak jasotzen ziren aldaera batzuk zeharo desagertzen dira, eskuarki bigarren mailako, eremu laburreko edo tradizio gutxiak. Aldaera batzuk gordetzen dira, baina elebarrak edo euskara-erdara hurrenkerakoetan bakarrik, eta handik aldaera hobetsiraino bidaltzeko baino ez; ohiturak gaur arte iraun du.

(c) Maileguak: Maileguak agerriki onartzen direnez, hiztegiak hiztegi tradiziozko zenbait berreskuratzen dira, eta erraz berri batzuk egiten ere. Hasierako hiztegiak forma zalantzak daude, eta nolabaiteko gehiegikeria, gero orekatuz joango dena. Areago, gero eta errotuago dago beharrik gabeko maileguen aurkako sarrerak eratzea.

(c) Hitz berriak: Elkartu-eratorri zenbait ere tradiziozko bihurtzen dira hiztegiak une batetik aurrera. Sabindarretatik oso gutxi iraun dute, baina hauek ere beharrezko izaten dira. Aipatzekoa da, besteak beste, *-pen* / *-zio* zalantza maileguetan, eskuarki *-zio*-ren alde erabakiz joan dena.

Azkueren “banaketa” garai honetan gauzatzen hasten da hitz bikote batzuetan, gehienbat Iparraldeko aldaerak adiera jasoagoetan berezituaz. Hiztegiak batzuk

zeharo alde agertzen dira, eta proposamen berriak eskaintzen dituzte (“Kintana” familia); beste batzuk, berriz, zeharo kontra (Sarasola).

NOMENKLATURA MODERNOTZEA.— Berariaz, boladan diren eta batzuetan oraindik gaztelaniazko hiztegiek jasotzen ez dituzten hitzak sartzen dituzte hasierako hiztegiileek, eta hauekin batera zientzia eta teknika arloetako ahal beste hitz, terminologia finkatu ahala gero eta errazago. Bereiz aipatu behar dira tabuak, eskuzabal jasoak.

NOMENKLATURA EGONKORTZEN.— Aurreko nahaspila ez da garai honetan erraz ezabatzen diren ezaugarrietakoa. Erabateko aldaketa sumatzen da nomenklaturan BeraLzM eta oraingo tamaina beretsuko hiztegien artean: Kintanak eta Mujikak (1977) aurrekoaren %35 inguru soilik jasotzen dute. Halere, joera berriak ere ez dira argiak hasieran: euren artean ez dute askoz berdintasun handiagorik (%40 inguru). Kontuak aldatuz doaz, dena dela: urte bereko eta tamaina beretsuko 3000 eta *Elhuyar* erkatuta (1996), adostasuna %70 inguruan dabil, lehenak sarrera ezberdin gehiago baditu ere.

EUSKALKI-MARKAK.— Aukerako bihurtzen dira. Agertzekotan, esanahi trinko bat izan ohi dute: irakurleari abisatzea hitza ez dela orokorra. Hitzen jatorria ez da interesekoa (cf. *ulertu*), egungo euskaran (idatzian batez ere) daukaten hedadura bakarrik baizik.

“OEH paradigma” definitzen

Hiztegi gintza batuaren hasieratik bertatik aurrerapenak egiten dira euskararen tratamenduan, ikusi dugunez. Lehenengo hiztegi elebakarrak egiteak berak euskara gainerako hizkuntzen parean jartzen hasi beharra ekarri zuen eta, gainera, beste arlo batzuetan (gramatikan, esaterako) normalduz zihoan heinean une batetik aurrera honetan sakontzea errazago bilakatu zen. Dena dela, aise defini daiteke paradigma berria, irizpide eta tekniketarako dakartzan berrikuntzengatik. Jakintzat emango dut lehen ordezkaria Sarasolaren *HautaL* dela eta, beraz, paradigma 1984-1995 bitartean eratuz doala. Urte hauetatik aurrera, berriz, hiru talde egingo ditugu, eta ordezkari bana hartu: (1) paradigmakoak (*Elhuyar* 1996); (2) ezer erantsi dutenak (3000); (3) paradigmaz kanpokoak (Gereño).

1. Irizpideak

NOMENKLATURAREN HAUTAPENA.— Hiztegi gintza batuaren irizpideen arazoa honetan datza, alegia: nola neurtu behar den hitz baten hedadura, erabilera maiztasuna edota nazioartekotasuna. Ikerlanik egin ezean, balirudike hiztegi gileek belarriz-edo ebatzi behar dituztela. Erabilera maiztasuna neurtzeko saio bakarra dugu artean, Sarasolaren *MaizH* (1977-1979), urte bakarreko erakusgarri baten gainean oinarritutakoa.

OEH-ak neurbide trinkoagoa eskaintzen du, ordea: literatur tradizioa, hots, hitzak noiztik noiz arte erabili diren, eta non, eta zeinek erabili dituen jakiteko modua. Honegatik, *HautaL*-ak *OEH*-aren corpusean oinarritutako lexiko hautaketa egiten du, 1750-1964 epeko literatur tradizioan zehatzago, euskal hitz ohikoak bildu nahiz. Behin honetara helduta, tradizioan agertu ez arren “ezinbestean hartu behar ditugun nazioarteko hitz orokorrak” ere ematen eta finkatzen ahalegintzen da.

Elhuyar-ek urte bereko 3000-k baino sarrera ezberdin gutxiago izateko arrazoi etako bat *OEH* (edota *HautaL*) nomenklaturaren eredu eta bermetzat hartzean datza: izan ere, 3000-ko sarreretatik %40 ez dago *OEH*-n, sarrera-buru behintzat, *Elhuyar*-en %20aren aldean.

MAILEGUEN TRATAMENDUA.— Hiztegi modernoak arauemaile dira maileguei dagokienez: kide jatorrik dutenak baztertutako aldaerak bezalaxe markatuak ageri dira, ikusi bezala. Paradigmako hiztegi etan, ordea, hemen ere tradizioak agintzen du: kontuan hartzen da, esaterako, Iparraldeko literatura klasikoan ohikoa izan zen maileguak orde zko berriak ez dituen konnotazioak badituela. Labur esanda, maileguen arteko mailak ezartzeko irizpide finagoak erabiltzen dituzte.

2. Lexikografi teknikak

SARRERA SAKABANATZEAREN BUKAERA.— *Elhuyar* eta 3000-ren arteko aldearen bigarren arrazoa honetan datza, alegia, sarreraren kontzeptua fintzean eta sarrera hobeto antolatzean. “Kintana” familiako hiztegi guztietan sakabanatze pixka bat badago: forma jokatuak, aditz perifrastikoak, kolokazioak... sarrera-buru agertzen dira; zenbat eta hiztegia zaharrago, hainbat eta errazago. Berbera edo areago dugu, beraz, *HTipia*-n eta batez ere LMuj-en. Sakabanatzea, hein batean bederen, euskara-erdara hiztegiak erdara-euskarazkoen alderantzizkoak izateari zor zaio edo, nahiago bada,

oraindik ere erdal baliokideen menpekoegi (cf. LMuj *abataren* “abacial”). Hau hiztegi elebakar landuagoekin bukatzen da (*Hautal*, *HiztMod...*), *OEH*-aren izpirituaren haritik: hitza bihurtzen da sarrera-buru, eta honelako guztiak, agertzekotan, sarreraren parte baino ez dira. Beraz, sarrera barruko atalen antolamendua nahiko konplexu bilakatzen da, adierez gainera azpiadierak, esapideak, lexikalizazioak, kolokazioak, elkartu batzuk, etab. ordenatu behar baitira.

TERMINOLOGIA ETA AZALPEN TEKNIKOAK.— Hizteggileen profesionaltzeagatik edota euskaraz aritu beharragatik, oro har lexikografi terminologia agertuz doa garai honetako hiztegietan. Paradigmako hiztegietan, sarrerak konplexuago bilakatu ahala, hitzaurrean irizpideak ez ezik, azalpen teknikoak ere agertzen dira, luze (“Sarasola” familia) edo irudien bitartez (“Elhuyar” familia).

HOMOGRAFOAK ETA BESTE.— Sarrera hobeto antolatzeak beste ondorio bat dauka: homografoak sarrera banatan agertu beharra. Honek nazioarteko hizteggintzan oso ezaguna den arazoa ekarri du gurera: zer hartu behar den aintzat. Paradigmako hiztegietan halako batasun bat lortu da, esanahi eta kategorian oinarri harturik.

ADITZEN FORMA KANONIKOA.— Orain arte ez bezala, Hegoaldekoak aditza egoki aurkezteaz kezkatzen dira: batuak bultzatzen duen aditzoina, zalantzak sortzen dituzten aditzizenen formak... hiztegietan islatu behar dira, erabiltzailearen mesedetan. Lehen unean neurritz gainera isla du joera berri honek: aipatutako forma guztiak, gehi betiko partizipioa, gehi geroaldiko formak, denak sarrera-buru agertzen dira (*HTipia*, *HArau*). Harrezkero, hiztegiak lautan banatzen dira honi dagokionez: (a) hiru formak (*abaildu*, *abail*, *abailtzen*) ematen dituztenak (“Sarasola” familia, *HBat*); (b) hiru formak kasu arazotsuetan bakarrik ematen dituztenak (*aberastu*, *aberats*, *aberasten*), eskuarki *abail(du)* erako formak baino ez eman arren (*Elhuyar 2000*); (c) *abail(du)* erako formak bakarrik ematen dituztenak (“Kintana” familia, “Elhuyar” familiako aurreko guztiak, *EuskararakoH*); (d) oraindik ere partizipioa huts-hutsean ematen dutenak (*Gereño*).

Bestalde, “Kintana” familiakoek, guztiek aditzoinaren arabera ordenatzen dute aditza, ziurrenik erabiltzaileak espero duten ez bezala.

ADIERAK.— *OEH-HautaL* bikotean lan handia egin da, euskal hitzen adierak ahalik koherente eta zehatzenik bereizteko, eta izan litezkeen irizpideen artean eskuarki kronologiaren arabera ordenatzeko. Lan honi esker, paradigmako hiztegietan adierak gehiago, ordenatuago eta zehatzagoak dira.

ORDAINAK.— Gaztelania-euskara hiztegien menpekotasunetik eratortzen da alderantzizkoetan erdal ordainak pilatzea. Paradigma berriko elebidunetan, adieren zehaztapenean egindako hobekuntzen kariaz, aukeraketa egiten da eta, behar izanez gero, azpiadierak bereizten. Bestalde, beharrezkotzat jotzen den bakoitzean ordainaren ingurunea ere zehazten da, eta parentesi artean egoki bereizten.

GRAMATIKA KATEGORIA.— Berrikuntza Sarasola *HArAu*-koa da (1977), hitzaurrean eskaini zuen “Gramatik kategoriak” izeneko gramatika deskriptiboko lanean oinarritzko kontzeptuak finkatu ondokoa. Ohitura hedatu da 1996ko hiztegietatik (*3000* eta *Elhuyar*). Hiztegi berean markatzen da lehenengoz aditzen jokia *da / du, zai / dio* sistemaren bitartez; harrezkero orokortu da. Aldiz, paradigmako hiztegiek bakarrik zehazten dituzte, hala dagokionean, aditzaren lagunak (norekin, zertara...).

ERABILERA-ADIBIDEAK.— Paradigmaz kanpoko hiztegietan gutxi eta denak-edo asmatuak izaten dira; batzuk erabilerari ezer gutxi laguntzen diotenak. Paradigmakoetan *OEH*-aren corpusetik hautatuak dira maiz, nahiz zuzenean, nahiz *HautaL*-aren bitartez; edonola ere, erabilerari begira zuzen-zuzen aukeratuak.

EUSKALKI-MARKAK.— Ezagutzen dugun joera fintzen da: “Ipar.” eta “Heg.”, edo “batez ere B” bezalako laburdurak erantsi dira, *OEH*-aren azterlanari esker.

HIZKUNTZ MAILAK.— *HautaL*-eko berrikuntzetako bat maila adierazteko markak ezartzea da: zaharkitua, klasikoa, literaturazkoa eta jaso, alde batetik; herrikoa eta lagunartekoa, bestetik. *Elhuyar*-ek ere halako zenbait baditu, batzuk oso ondo azalduak: arrunta (“gizabidearen arauak gaitzesten dutena”), herri-mailakoa (“idatziz erabili ohi ez dena”), lagunartekoa eta zaharra.

IKASLEENTZAKO IRAKURKETAK

Sarasola (1977): Gero “*OEH* paradigma” izango zenaren oinarriak ezartzen eta azaltzen dituen lana.

Mitxelena (1984): Maisuak Sarasolaren *Hautal*-aren aurkezpen gisa idatzi zuen lan bikaina; hiztegi berria testuinguruaren barruan kokatzeko, euskal lexikoak historian zehar izan dituen gorabeheren azalpena eta egun ere sortzen dituen arazoek kritika erabiltzen ditu.

BIBLIOGRAFIA

Agirrebaltzategi (1992). Irazabalbeitia (1992). Mitxelena (1974). de Rijk (1988). Sarasola (1977, 1997). Sagarna (1992). Torrealdai (1997). Urgell (1998c). Zabaleta (1992).

www.aeknet.net www.argia.com www.ivap.com

BIBLIOGRAFIA

- Agirrebaltzategi, P., 1992, "EUSENOR: Euskal Entziklopedia Orokorra", *Jakin* 72, 51-83.
- Al, B.P.F., 1989, "L'organisation microstructurelle dans le dictionnaire bilingue", in Hausmann *et al.*, 2828-2837.
- Algeo, J., 1989, "Dictionaries as Seen by the Educated Public in Great Britain and the USA", in Hausmann *et al.* (arg.), 28-34.
- Altuna, P., 1967, "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* 12, 139-300.
- , 1985, "Aizpitarteren hiztegi argitaragabea", in *Symbolae* II, 1097-1110.
- Anderson, J. D., 1972, *The development of the English-French, French-English Bilingual Dictionary: A Study in Comparative Lexicography*. Ph. D. diss., Baton Rouge, Louisiana State Univ. (Ann Arbor Univ. Microfilm).
- Aquesolo, L., 1967, "Un diccionario vasco inserto en *Mémoires de la Langue Celtique*, de Bullet (1755-1760)", *BAP* 23, 141-147.
- Arana, J. I., 1880, ik. Manterola 1880, 166-168.
- Aranbarri, F., 2002, "Aizkibelen hiztegia", Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- Arzamendi, J., 1981, "Euskal lexicografiaren historiarako hastapenak" in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo (163-193).
- Azkarate, M., 1989, "Basque Lexicography" in Hausmann *et al.* (arg.), II, 2371-2375.
- , 1992, "Larramendiren hitz eraketa", in Lakarra (arg.), 1992a, 207-219.
- Azkue, R. M., 1925, "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt...", *Euskera* 6:4, 60-66.
- Azorin, D., 2000, *Los diccionarios del español en su perspectiva histórica*.
- Bajo Pérez, E., 2000, *Diccionarios. Introducción a la historia de la lexicografía del español*, Ediciones Trea, Gijón.

- Bakker, P., *et al.*, 1991, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, *ASJU*-ren gehigarriak 23, Donostia (= *ASJU* 25:2, 315-467).
- Bandry, G., 1993, "Caracteres de imprenta", in *Gran Larousse Universal*, VII, 2336-2338.
- Beaujot, J.-P., 1989, "Dictionnaire et idéologies", in Hausmann *et al.* (arg.), 79-88.
- Béjoint, H. & Thoiron, Ph., 1996, *Les dictionnaires bilingues*, Editions Duculot, Louvain-la-Neuve.
- Benson, M., Benson, E., & Ilson, R., 1986, *Lexicographic Description of English*, John Benjamins, xx.
- Bikendi, J., 2002, "Pierre d'Urteren hiztegiaren azterketa", *Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea*, EHU, Gasteiz.
- Bilbao, G., 1991a, ik. Deen 1937.
- , 1991b, "Larramendiren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz", *ASJU* XXV-3, 751-768.
- , 1992, "Pouvreuren hiztegi laukoitza", *ASJU* XXVI-2, 341-389.
- , 2000, "Etxeberri Sarakoaren testuaz", *Euskal testuen historiaz eta edizioaz (I)*, EHU-aren XIX. Udako Ikastaroak, Donostia (uztailak 3-5).
- Bilbao, J., 1978-1981, *Eusko Bibliographia*, 10 vols., Auñamendi, San Sebastián.
- Bischoff, B., 1981, "A propos des gloses de Reichenau", in *La lexicographie du latin médiéval et ses rapports avec les recherches actuelles sur la vicilisation du Moyen Age*, CNRS, Paris, 47-56.
- Boisson, C., 1996, "L'antiquité et la variété des dictionnaires bilingues", in H. Béjoint & Ph. Thoiron, *Les dictionnaires bilingues*, Editions Duculot, Louvain-La-Neuve.
- Bosque, I. (1982), "Sobre la teoría de la definición lexicográfica", *Verba* 9, 105-123.
- Bourland, C. B., 1974, "The *Spanish schoole-master* and the polyglot derivatives of Noel de Berlamont's vocabulaire", *Revue Hispanique* 81, 283-318.
- Bray, L., 1989a, "Consultabilité et lisibilité du dictionnaire: aspect formels", in Hausmann *et al.* (arg.), 135-146.
- , 1989b, "La lexicographie française des origines à Littré", in Hausmann *et al.* (arg.), II, 1788-1818.
- Buridant, C. (arg.), 1986, *La lexicographie au Moyen Age*, *Lexique* 4, Presses Universitaires de Lille.

- Calderón, M., 1994, *Sobre la elaboración de diccionarios monolingües de producción. Las definiciones, los ejemplos y las colocaciones léxicas*, Univ. de Granada, Granada.
- Carrera de la Red, A., 1988, *El "problema de la lengua" en el Humanismo renacentista español*, Univ. de Valladolid, etab., Valladolid.
- Casares, J., 1992, *Introducción a la Lexicografía Moderna*, CSIC, Madrid.
- Castro, A., [1936], *Glosarios latino-españoles de la Edad Media*, CSIC, Madril, 1991.
- Colon, G. & Soberanas, A.-J., 1986, *Panorama de la Lexicografía catalana. De les glosses medievals a Pompeu Fabra*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona.
- Cooper, L., 1960a, "Sebastián de Covarrubias: una de las fuentes principales del *Tesoro de las dos lenguas francesa y española* (1616) de César Oudin", *BH* 62/4, 367-397.
- , 1960b, "Girolamo Vittori y Cesar Oudin: un caso de plagio mutuo", *NRFH* 14/1-2, 3-20.
- , 1962, "El *Recueil* de Hornkens y los diccionarios de Palet y de Oudin", *NRFH* 16/3-4, 297-328.
- Cubero, J. A., "Aizkibelen *Euskeratik erderara biurtzeko itztegia*-ren deskribapena", *Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea*, EHU, Gasteiz.
- Deen, N. G. H., 1937, *Glossaria duo Vasco-Islandica*, Paris/Amsterdam. G. Bilbaoren itzulpen eta argitalpena, *ASJU* 1991, 17-106.
- Della Casa, A., 1981, "Les glossaires et les traités de Grammaire du Moyen Age", in *La lexicographie du latin médiéval...*, CNRS, Paris.
- Dodgson, E. S., 1898, "The Biscayan grammar. Vocabulary and bilingual dialogues of Rafael Micoleta (Bilbao, 1653)", *RLPhC* 31, 35-41.
- Dreyfus, J. & Richaudeau, F., 1990, *Diccionario de la edición y de las artes gráficas*, Pirámide, Madrid.
- Dubarat, V., 1914, "Le dictionnaire basque et les rudiments du P. Dominique Bidegaray", *RIEV* 8, 6-16.
- Dubois, J. & Dubois, C., 1971, *Introduction á la lexicographie: le dictionnaire*, Librairie Larousse, Paris.
- Echenique, M. T., 1985, "Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco", in *Symbolae* II, 1089-1095.
- , 1987, *Historia lingüística vasco-románica*, 2. arg. orraztua, Paraninfo, Madrid.

- Egaña, I., 2002, "Pierre d'Urteren hiztegia: ordainen azterketarako sarrera", Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- Esparza, M. A., 1995, *Las ideas lingüísticas de Antonio de Nebrija*, Nodus Publikationen, Münster.
- Etxebarria, J.M., 1990, "XVIII eta XIX. gizaldietako sei hiztegi argitaragaberen berri", in E. Pérez & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Mundaiz, EUTG, Donostia, 63-83.
- , 1991, "XIX. gizaldiko landare hiztegi bat", *Memoriae* I, 363-374.
- , 1994, "Vocabulario Vasco-Francés izeneko XIX. mendeko hiztegia", *Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura* 12, 9-140.
- Etxebarria, M. C. & Etxebarria, J. M., 1990, "Diccionario inédito vasco-castellano de José M^a Odriozola y L. L. Bonaparte", *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura* 10, 15-63.
- Fita, F., 1880-1881, "Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. fray José de María, Carmelita Descalzo", *Revista de Ciencias Históricas*, II-III, 41-91.
- Fuentes Morán, M. T., 1997, *Gramática en la lexicografía bilingüe. Morfología y sintaxis en diccionarios español-alemán desde el punto de vista del germanohablante*, Lexicographica Series Maior 81, Niemeyer, Tübingen.
- Fuentes Morán, M. T. & Reinhold Werner, 1998, *Lexicografías iberorrománicas: problemas, propuestas y proyectos*, Vervuert & Iberoamericana, Frankfurt am Main/Madrid.
- Gallina, A., 1959, *Contributi alla storia della lessicografia italo-spagnola dei secoli XVI e XVII*, Olschki, Firenze.
- Garate, J., 1936, *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Imprenta Provincial de Vizcaya, Bilbao.
- , 1961, "Juicios y glosario vasco-latino de Buenaventura Vulcanius", *Euskera* 6, 239-245.
- , 1972, "El lingüista leniztar Fr. Melchor de Oyarguren", *Euskera* XVII, 99-100.
- Garate, J. & F. Ruiz de Arbulo, "El Lexicógrafo José María de Aizpitarte, vecino de Vitoria", *BISS* 1971, 257-267.
- Gavel, H., 1922, "Un pèlerin de Saint-Jacques au Pays Basque a la fin du XV^e siècle", *GH* 2, 382-390, 450-453 eta 579-588.
- , 1927, "Le nouveau Dictionnaire Basque-Français du Père Lhande", *GH* (1, janvier-février), 25-34.

- Gelpí, C., 1997, *Mesures d'avaluació lexicogràfica de diccionaris bilingües*, Doktorego tesia, Universitat de Barcelona.
- Genette, G., 1972-1973, "Avatars du cratylisme", *Poétique* 11, 367-394 eta 13, 111-133 eta 265-291.
- Green, J., 1996, *Chasing de Sun. Dictionary-Makers and the Dictionaries They Made*, Jonathan Cape, London.
- Guerrero Ramos, G., 1995, *El léxico en el Diccionario (1492) y en el Vocabulario (¿1495?) de Nebrija*, Univ. de Sevilla, etab., Sevilla.
- Haas, M.R., 1975, "What Belongs in the Bilingual Dictionary?", in Housholder and Saporta (arg.), 45-50.
- Haensch, G., Wolf, L., Ettinger, S. & Werner, R., 1982, *La Lexicografía. De la lingüística teórica a la lexicografía práctica*, Biblioteca románica hispánica, Gredos, Madrid.
- Haiman, J., 1980, "Dictionaries and Encyclopedias", *Lingua* 50, 329-357.
- Harrell, R.S., 1975, "Some Notes on Bilingual Lexicography", in Housholder and Saporta (arg.), 51-61.
- Hartmann, R.R.K. (arg.), 1983, *Lexicography: Principles and Practice*, Academic Press, London-Orlando.
- , (arg.), 1986, *The History of Lexicography*, (Studies in the History of the Language Sciences, 40), Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- Hausmann, F. J., 1988, "L'essor d'une discipline: la métalexigraphie à l'échelle mondiale", in R. Lorenzo (arg.), *Coloquio de Lexicografía, Verba, Anuario Galego de Filoloxía*, Anexo 29, Univ. de Santiago de Compostela, 79-109.
- , 1989, "Pour une histoire de la métalexigraphie", in Hausmann et al. (arg.), 216-224.
- Hausmann et al. (arg.), 1989, *Dictionaries. An International Encyclopedia of Lexicography*, (3 lib.), Walter de Gruyter, Berlin/New York.
- Hayashi, Tetsuro, 1978, *The theory of english lexicography: 1530-1791*.
- Hirigoyen, A., xxx, "Harrieten hiztegia eta euskalkiak",
- Householder, F.W. & Saporta, S. (arg.), 1975, *Problems in Lexicography*, Indiana University, Bloomington.
- Hualde, J. I., 1991a, "Icelandic Basque pidgin", *ASJU* 25:2, 427-437; aurrenik in *Journal of Basque Studies in America* 5 (1984), 41-59.

- _____, 1991b, "Foreword to *Glossaria duo Vasco-Islandica*", *ASJU* 25:2, 317-319.
- Hüllen, W., 1989, "In the beginning was the gloss. Remarks on the historical emergence of lexicographical paradigms", in James (arg.), 100-115.
- _____, (arg.), 1990a, *Understanding the Historiography of Linguistics. Problems and Projects*, Symposium at Essen, 23-25 November 1989, Nodus Publikationen, Münster.
- Humboldt, W., [1817], *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin. Traducción castellana de J. Garate, *RIEV* XXIV (1933), 460-487 y XXV (1934), 87-126.
- Ibar, 1935, *Genio y Lengua*, Tolosa.
- Illson, R.F., 1986, "Lexicographic Archaeology: Comparing dictionaries of the same family", in Hartmann (arg.), 127-136.
- Irazabalbeitia, I., 1992, "Hiztegi entziklopedikoa", *Jakin* 72, 45-50.
- James, G., (arg.), 1989, *Lexicographers and their works*, University of Exeter
- Jones, W. J., 1991, "*Lingua teutonum victrix?* Landmarks in German lexicography", *HEL* 13:2, 131-152.
- Kerejeta, M. J., 1991, "Oihenart Silvain Povreauren hiztegian", *ASJU* XXV-3, 865-899.
- _____, 1997, "La copia del diccionario de Povreau y otros trabajos lexicográficos encontrados en el legado de Humboldt", www.gemi.kfunigraef.ac.at/humboldt
- Kibbee, D.A., 1986, "The Humanist Period in Renaissance Bilingual Lexicography", in Hartmann (arg.), 137-146.
- _____, 1987, "Bilingual Lexicography in the Renaissance: Palsgrave's English-French Lexicon (1530)", in Aarsleff *et al.* (arg.), 179-188.
- Knörr, H., 1981, "Some New Documents concerning Aizpitarte's Dictionary", *Euskaltzaindia, IKER* II, 83-127.
- _____, 1986, "Maurice Harriet-en hiztegiak", *ASJU* 20:2, 413-417.
- _____, 1987, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*, doktorego tesi argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- _____, 1995, "Euskal Hiztegi-gintza (1850-1936)", zerrenda kronologiko argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- Knörr, H. & Zuazo, K. (arg.), 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Euskal Azterlan Bilduma 7, Eusko Legebiltzarra.

- Koerner, E. F. K., 1999, *Linguistics Historiography. Projects & Prospects*, John Benjamins, Amsterdam/Phildadelphia.
- Kroman *et al.*, 1989, "Principles of Bilingual Lexicography", in Hausmann *et al.* (arg.), 2711-2725.
- Lafitte, P., 1965, "Bibliographie. Cinq dictionnaires basques", *BMB* 171-177.
- Lakarra, J. A., 1985a, "Larramendiren hiztegitzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-50.
- , 1985b, "Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez", *ASJU* XIX-2, 439-452.
- , 1991, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), I, 217-258.
- , 1992a, (arg.), *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala-Euskaltzaindia-Gipuzkoako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Andoain.
- , 1992b, "Larramendirekin aurreko hiztegitzaren historiaz: aztergai eta gogoeta", in Lakarra (arg.) 1992a, 279-312.
- , 1993, *XVIII. mendeko hiztegitzaren etorkiez*, EHUaren tesi argitaragabea, Gasteiz.
- , 1994a, "Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)", *ASJU* XXVIII-1, 1-178.
- , 1994b, "Euskal hiztegitzaren historiarako: II. Gogoetak Urteren hiztegitzaz", *ASJU* XXVIII-3, 871-884.
- , 1994c, "Euskal hiztegitzaren historiarako: III. Urteren Gramatikako hiztegia", *ASJU* XXVIII-3, 885-914.
- , 1995, "Pouvreuren hiztegiez eta hiztegitzaren historiaz", *ASJU* XXIX-1, 3-52.
- , 1996a, "Iturrien erabilera eta tamainak egitura(z) zehaztuaz: *Refranes y Sentencias* eta *Hiztegi Hirukoitza*", *Uztaro* 16, 21-55.
- , 1996b, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, Euskararen Lekukoak-19, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1997, "Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque (~1620)*", *ASJU* 31:1, 1-66.
- , 1999, "*L'interprète ou traduction du françois, espagnol & basque (~1620)*: II. Elkarrizketak", *ASJU* 33:2, 493-568.
- Lakarra, J.A. & Urgell, B., 1988, "Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)", *ASJU* XXII-1, 99-211.

- Landau, S. I., 1989 [1984], *Dictionaries. The Art and Craft of Lexicography*, Cambridge University Press.
- Lara, L. F., 1989, "Dictionnaire de langue, encyclopédie et dictionnaire encyclopédique: le sens de leur distinction", in Hausmann *et al.* (arg.), 280-287.
- , 1997, *Teoría del diccionario monolingüe*, El Colegio de México, México D.F.
- Lépinette, B., 1987, "L'étymologie dans le *Thresor* de Nicot (1606)", *Travaux de Linguistique et de Litterature* XXV/1, 325-346.
- , 1989, "Contribution a l'étude du *Tesoro de la Lengua Española o Castellana* (1611) de Sebastián de Covarrubias", *Historiographia Linguistica* XVI/3, 257-310.
- , 1992, "La postériorité lexicographique de Nebrija. Les *Vocabularius Nebrissensis* latin-français (1511-1541)", *Historiographia Linguistica* XIX/2-3, 227-260.
- Leroy-Turcan, I., 1991, *Introduction a l'étude du Dictionnaire étymologique ou origines de la langue française de Gilles Ménage* (1694), Centre d'Études Linguistiques Jacques Goudet, Lyon.
- Malkiel, Y., 1975, "A Typological Classification of Dictionaries on the Basis of Distinctive Features", in Householder & Saporta (arg.), 3-24.
- Manterola, J., 1880, "Curiosidades bascongadas", *Euskal Erria* I, 45-47 y 166-168.
- Manterola Agirre, J., 2002, "Otxandioko eskuizkribua (Voces y frases vascongadas oídas en el señorío de Vizcaya)", *Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea*, EHU, Gasteiz.
- Mañaricua, A. E., 1970, "Los vascos vistos en dos momentos de su historia", in *I Semana Internacional de Antropología Vasca I*, Univ. de Deusto, LGEV, 263-303.
- Martin, S.E., 1967, "Selection and Presentation of Ready equivalents in a Translation Dictionary", in Housholder & Saporta (arg.), 153-159.
- Martínez de Madina, E., 1998, "Landuchioren hiztegi iraulia, euskara-gaztelania", in Knörr & Zuazo (arg.), 335-465.
- Martínez de Sousa, J., 1981, *Diccionario de Tipografía y del Libro* (2. arg.), Paraninfo, Madrid.
- , 1995, *Diccionario de Lexicografía práctica*, Bibliograf, Bartzelona.
- Matoré, G., 1968, *Histoire des dictionnaires français*, Paris.
- Meillet, A. [1925], *Metodo konparatzailea Hizkuntzalaritza historikoan*, EHU, Bilbo, 2001.
- Messelaar, P.A., 1990, *La confection du dictionnaire général bilingue*, Uitgeverij Peeters, Leuven.

- Migliorini, B., [1933], "Lessicografia", in *Enciclopedia Italiana*, Istituto della Enciclopedia Italiana, Roma, 1950.
- , 1946, *Che cos'è un vocabolario?*, Roma.
- Mitxelena, K., 1958, "Introducción" in Agud & Mixelena 1958.
- , [1959], "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)". Orain *SHLV* II, 900-912.
- , [1961], "Euskal iztegitik XVII-XVIIIgarren mendeetan". Orain *SHLV* I, 361-372.
- , 1963, "Adabakiak. Justo Garate jaunarentzat", *EGAN* 4-6, 230-231.
- , 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid.
- , 1965, "El Diccionario Vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País...", *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa* 6, Publicaciones de la Excma. Diputación de Guipúzcoa, Donostia, 99-126.
- , [1966a], "Azkue lexicógrafo", in K. Mixelena *et al.*, *Don Resurrección María de Azkue*, Bilbo. Orain *SHLV* I, 373-384.
- , 1966b, "Adabakiak", *EGAN* 25, 128-132.
- , 1968, "Euskaltzaindiaren euskal-iztegiak", *Euskera* 13, 270-271.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbao.
- , 1974, "De Lexicografía Vasca. A propósito de *Axular-en Hiztegia* del Padre Luis Villasante", *FLV* 16, 103-121.
- , [1983a], "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII-1. Orain *SHLV* II, 912-915.
- , [1983b], "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)", *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, Bilbo. Orain *SHLV* II, 948-964.
- , 1984, "Aurkezpena" in Sarasola 1984.
- , 1987, *Palabras y Textos*, EHU, Gasteiz.
- , 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, (2 lib.), J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren gehigarriak, 10), Donostia.
- Murray, J., 1900, *The Evolution of English Lexicography*, Oxford. *OED*-aren web-orrian irakur daiteke (www.oed.com)
- Nebrixa, A., [1492], *Diccionario latino-español (Salamanca, 1492)*, G. Colón & A.-J. Soberanas (arg.), Puvill, Barcelona, 1979.

_____ [c. 1495], *Vocabulario de Romance en Latín. Vocabulario de Romance en Latín. Transcripción crítica de la edición revisada por el autor (Sevilla, 1516) con una introducción de Gerald J. MacDonald*, Castalia, Madrid, 1973.

Niederehe, H.-J., 1986, "La lexicologie espagnole jusqu'à Covarrubias" *HEL* 8-1, 1-19.

_____, 1987, "La lexicografía española desde los principios hasta el año 1599" in Aarsleff *et al.* (arg.), 157-166.

Ormaechea, N. "Orixe", 1927, "Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra", *Euskal Esnalea* XVII, 148-156, 169-173, 191-196, 205-215, 228-237 eta 246-252.

Oroz Arizcuren, F. J., 1981, "Lucubración sobre un glosario vasco-latino: El *Parergon* de Vulcanius (1597)", in H. Geckeler (arg.), *Logos Semantikos. Studia Linguistica in honorem Eugenio Coseriu (1921-1981)*, Gredos, Madrid, I, 339-357.

Osselton, N.E., 1973, *The Dumb Linguists. A Study of the Earliest English and Dutch Dictionaries*, University Press, Leiden.

_____, 1983, "The History of english-language Dictionaries", in Hartmann (arg.), 13-21.

_____, 1986, "The first english dictionary? A sixteenth-century compiler at work" in Hartmann (arg.), 175-184.

_____, 1989a, "Alphabetisation in monolingual English dictionaries to Johnson" in James (arg.), 165-173.

_____, 1989b, "English Lexicography From the Beginning Up to and Including Johnson", in Hausmann *et al.* (arg.), II, 1943-1953.

_____, 1990, "Distorting the Linguistic Record: Secondary Documentation in the *Oxford English Dictionary*", in Hüllen (arg.) 1990a, 183-193.

_____, 1995, *Chosen words: past and present problems for dictionary makers*.

Oyharçabal, B., 1993, "Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 17ème siècle", *ASJU* 27:1, 265-284.

Palau, A., 1948-1977, *Manual del librero hispano-americano*, (28 lib.), Barcelona.

Peillen, Tx., 1983, "Bela-ko zaldunaren Zuberotar hiztegia, XVIII. mendean", *FLV* XV, 127-146.

Pérez, L., 1909, "Los franciscanos en el Extremo Oriente. (Noticias bio-bibliográficas)", *RIEV* III, 17-23.

Picoche, J. & Marchello-Nizia, C., 1989, *Histoire de la langue Française*, Editions Nathan.

- Polin, Z., 2002, "Añibarroren Voces vascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra...-ren azterketa", Euskal Lexikografia irakasgaiko lan argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*, Didier, Paris, etab.
- Ramos, E., 1994, "Consideraciones sobre el léxico pretendidamente vasco de la *Notitia*", in Euskaltzaindia, *Oihenarten Laugarren Mendeurrena*, IKER-8, Bilbo, 103-114.
- Read, A. W., 1992, "Dictionaries", in *The New Encyclopaedia Britannica*, 18. lib., Encyclopaedia Britannica, Chicago, etab.
- Real Academia Española, [1726-1739], *Diccionario de Autoridades*. Berrarg. faks., 3 lib., Editorial Gredos, Madrid, 1979.
- Rey, A., 1977, *Le lexique: images et modèles. Du dictionnaire à la lexicologie*, Librairie Armand Colin, Paris.
- , 1980, *La lexicologie*, Editions Klincksieck, Paris.
- , 1989, "Divergences culturelles et dictionnaire bilingue", in Hausmann *et al.*, 2865-2870.
- , 1992, "Entziklopedia kulturaren identifikatzaile", *Jakin* 72.
- Rey-Debove, J., 1971, *Etude linguistique et sémiotique des dictionnaires français contemporains*, Mouton, The Hague/Paris.
- Rico, F., 1982, "Glosa Emilianense", in *Primera cuarentena y tratado general de literatura*, Barcelona.
- Rijk, R. P. G. de, 1988, "How reliable and comprehensive is the DGV?", *ASJU* XXII-2, 695-700.
- Rissanen, M., 1990, "On the happy reunion of English philology and historical linguistics", in Fisiak (arg.), 353-369.
- Robins, R. H., 1984, *Breve historia de la Lingüística*, 4. arg., Paraninfo, Madrid.
- Sarasola, I., 1976, *Historia social de la Literatura Vasca*, J. A. Ciden itzulp., Akal, Madrid.
- , 1977, "Euskal hiztegi arauemaile entziklopedikoaren proiektua", *Euskera* 22, 125-138.
- , 1983, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* XVII, 69-212.
- , 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* XX-1, 203-215.

- _____, 1997, "Euskal hitz altxorraz", *ASJU* XXXI-2, 617-642.
- _____, 1998, *Irakaskuntza egitasmoa [Euskal Lexikografiaren historiaz]*, EHU, Bilbo (argitaragabea).
- Schuchardt, H., [1906], *Baskisch und Romanisch; zu De Azkue baskischen Wörterbuch*, Niemeyer, Halle. A. Goenagaren gaztelaniazko itzulp., *BAP* XIII (1957), 464-487, XV (1959), 181-205 eta XVI (1960), 339-363.
- Seco, M., 1978, "Problemas formales de la definición lexicográfica" in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach II*, Oviedo, 217-239.
- _____, 1987, *Estudios de Lexicografía española*, Paraninfo, Madrid.
- Seiffert, L., 1990, "The Vernacularist and Latinist Justus-Georgius Schottelius and the Traditions of German Linguistic Purism", in Hüllen (arg.) 1990a, 241-261.
- Snell-Hornby, M., 1986, "The bilingual dictionary. Victim of his own tradition?", in Hartmann (arg.), 207-218.
- Starnes, W.T., 1954, *Renaissance Dictionaries, English-Latin and Latin-English*, University of Texas Press, Austin.
- Starnes, W.T. & Noyes, G.E., [1946], *The English Dictionary from Cawdrey to Johnson. 1604-1755*. 2. arg. (Studies in the History of the Language Sciences, 57), Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 1990.
- Stein, G., 1986, "Sixteenth-century English-Vernacular Dictionaries", in Hartmann (arg.), 219-228.
- _____, 1988, "The emerging role of English in the dictionaries of Renaissance Europe", *Folia Lingüística Histórica* 9/1, 29-138.
- Steiner, R. J., 1970, *Two Centuries of Spanish and English Bilingual Lexicography, 1590-1806 (Janua Linguarum. series practica 108)*, Mouton, The Hague.
- _____, 1986, "The three-century Recension in Spanish and English Lexicography", in Hartmann (arg.), 229-239.
- _____, 1989, "Bilingual Lexicography: English-Spanish and Spanish-English", in Hausmann *et al.* (arg.), 2949-2954.
- Svensén, B., 1993, *Practical lexicography. Principles and methods of dictionary-making*, Oxford University Press, Oxford / New York.
- Tellechea-Idigoras, J. I., 1966a, "El jesuita Manuel de Larramendi", *BAP* XXII, 307-360.

- _____, 1966b, "Nota autógrafa del P. Larramendi a la copia que hizo del Nuevo Testamento de Lizarraga. Advertencia", *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa* 7, Publicaciones de la Excma. Diputación de Guipúzcoa, Donostia, 175-176.
- _____, 1969, etab.: ik. Larramendi.
- Tomaszczyk, J., 1983, "The case for bilingual dictionaries for foreign language learners" in Hartmann (arg.), 41-51.
- Torrealdai, J. M., 1997, *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, s.l.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madrid.
- Ullmann, S., [1964], *Semântica. Uma introdução à ciência do significado*, J.A. Osório Mateus-en itzulpena, 4. arg., Fundação Calouste Gulbenkian, Lisboa, 1977.
- Urgell, B., 1992a, "Axular eta Larramendi", in Lakarra (arg.) 1992a, 221-246.
- _____, 1992b, "Martin Harriet Añibarrorengan", *ASJU* XXVI/1, 221-258.
- _____, 1995, "Atari gisa" in F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko Kondaira* (2 lib.), Klasikoak, Donostia, i-lxxxi.
- _____, 1996, "Larramendi o el despertar de la Literatura Vasca peninsular" in Aulestia (arg.), 261-288.
- _____, 1997, "Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca", *ASJU* 31:2, 643-685.
- _____, 1998a, "*Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (I): oinarrizko ezaugarri zenbait", *ASJU* 32:1, 109-163.
- _____, 1998b, "*Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia", *ASJU* 32:2, 365-414.
- _____, 1998c, "Euskal hiztegiak irakaskuntzaren eremuan", Bizkaiko Filosofi, Letra eta Zientzietako Doktore eta Lizentziatuen Kolegio Ofizialean emandako ikastaro argitaragabea (Bilbo, 1998-2-5).
- _____, 1999a, "*Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (III): Gaztelania", *ASJU* 33:1, 157-238.
- _____, 1999b, "Larramendirengandik baturaino: *antzina* eta *ahots*", *Txillardegiren omenaldia*, H. Knörr eta P. Etxebarria (koord.), Euskaltzaindia / EHU (argitaratzeko).
- _____, 2000, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, tesi argitaragabea, EHU, Gasteiz.

- , 2001a, “El *Diccionario de Autoridades* de la Academia Española y el *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (1745) del P. Larramendi”, *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, Arco/Libros, Madrid, 2001, 907-918.
- , 2001b, *Fr. Pedro Antonio Añibarro. Guero Guero. Edizio kritikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2001c, “Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian”, *ASJU* 35:1, 2001 [prentsan].
- , 2001d, “Larramendiren *Eranskina*: saio bat hiztegi gintzaren testu kritikaz”, *ASJU* 35:2 [prentsan].
- , 2002a, “Etimología y creación léxica en el diccionario vasco del P. Larramendi (1745)”, *III Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, Universidad de Vigo (febrero de 2001). [prentsan].
- , 2002b, “*Hiztegi Hirukoitza*-ren kanpoko eta barruko historiaz”, R. P. de Rijk irakaslearen omenaldia, EHU [prentsan].
- , 2003a, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren iturriak*, *ASJU*-ren gehigarriak [prestaketan].
- , 2003b, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren hitz sorbideak*, *ASJU*-ren gehigarriak [prestaketan].
- , 2003c, “Euskal hiztegien azterketaz, Odriozola-Bonaparte hiztegiaren aitzakian”, *ASJU*-n argitaratzeko.
- Urkizu, P., 1971, ik. Voltaire.
- , 1983, “Edward Lhwyd-en hiztegi poliglota (1703)”, *Euskera* 28:2, 387-401.
- , 1986, “Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan”, *ASJU* XX-2, 343-350.
- , 1989, *Pierre d'Urteren hiztegia. Londre 1715*, 2 lib., Mundaiz, Donostia.
- , 1991, “Agosti Chahoren hiztegia”, *Memoriae* I, 349-361.
- , 1992, “XVIII. mendean Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzak* iparraldeko zenbait idazlerenganduen eraginaz”, in Lakarra (arg.) 1992a, 313-324.
- (arg.), 1996, *Juan Ignazio Iztueta. Vocabulario de Vascuence*, Iztueta Fundazioa, Zaldibia.

- Urquijo, J., 1905, "Los precusores de Azkue", *Euskal-Erria* LIII, 283-287 eta 409-412.
- , 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes D'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*, Paris. Berrarg. faks. RIEV XXVIII, Bilbo, 1976.
- , 1909, "Las citas del Diccionario de Pouvreau", RIEV III, 504-519.
- , 1910, "Notes d'Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreau", RIEV IV, 220-232.
- , 1925, "¿Cuál es el primer texto vasco impreso conocido?", RIEV 16, 477-491.
- , 1934, "Vascófilos ingleses (continuación)", RIEV XXV, 605 hh.
- Van Lerberghe, K., 1990, "Language in Sumer and Akkad", in P. Swiggers & A. Wouters, *Le langage dans l'Antiquité*, Leuven University Press, Louvain, 47-55.
- Verdonk, R.A., 1988, "El diccionario plurilingüe llamado «Anónimo de Amberes» (1639), reflejo de la lexicografía española en Flandes", in Ariza *et al.* (arg.), 995-1002.
- , 1990, "La importancia del *Recueil* de Hornkens para la lexicografía bilingüe del Siglo de Oro", *BRAE* 70, 69-109.
- , 1992, "El *Nuevo Dictionario* neerlandés-español/español-neerlandés de A. De la Porte (Amberes, 1659) y su importancia para la lexicología y la lexicografía del español de los Siglos de Oro", in Lorenzo (arg.), 35-45.
- Villasante, L., (arg.) 1963, *Voces Bascongadas*, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo.
- Vinson, J., 1877, "Notice bibliographique relative à l'étude de la langue basque", in F. Ribary, *Essai su la Langue Basque*, Paris, 125-151.
- , 1881, "Les premiers grammairiens basques. Notes de Sylvain Pouvreau", *RLPhC* 14, 109-119.
- , [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Berrarg. faks. J. Urquijoren oharrekin (ASJU-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- Viscardi, A., *et alii*, 1959, *Le prefazioni ai primi grandi vocabolari delle lingue europee. I. Le lingue romanze*, Instituto Editoriale Cisalpino, Milano/Varese.
- Wells, R. A., 1973, *Dictionaries and the authoritarian Tradition. A Study in English Usage and Lexicography*, Mouton, The Hague/Paris.
- Werner, R. & Chuchuy, C., 1992, "¿Qué son los equivalentes en el diccionario bilingüe?" in Wotjak, G. (arg.), *Estudios de lexicología y metalexigrafía del español actual*, Niemeyer, Tübingen, 99-107.

- Wierzbicka, A., 1985, *Lexicography and conceptual Analysis*, Karoma Publishers, Ann Arbor.
- Wolf, H. J., 1996, *Las glosas emilianenses*, S. Ruhstaller-en gazt. itzulp., Univ. de Sevilla, Sevilla.
- Wooldridge, T.R. / Lancashire, I (arg.), 1995, *Informatique et Dictionnaires anciens*, Dictionnaire et Lexicographie 3, Didier Érudition, Paris.
- Zabaleta, J., 1992, "Lur Hiztegi Entziklopedikoa", *Jakin* 72, 33-43.
- Zelaieta, A., 1988, "Rafael Micoleta Çamudio: *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*", Eusko Ikaskuntza, *Hizkuntza eta Literatura* 7, 133-214.
- Zgusta, L., 1971, *Manual of lexicography*, Mouton, The Hague / Paris.
- , 1989, "The Role of Dictionaries in the Genesis and Developement of the Standard", in Hausmann *et al.* (arg.), 70-79.
- Zuazo, K., 1988, *Euskararen batasuna*, Iker-5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zubiaur, J.R., 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, Mundaiz, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.